SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2025eko urtarrila

ALDAHITZ IKERKETA PROIEKTUA

2024ko MEMORIA

Aurkibidea

Egindako lanen eskema 2
Proiektuko erakundeak 4
1 Garapen taldea eta proiektuaren kudeaketa orokorra 5
2 Gipuzkoa arigune 6
3 Uler-saioak metodologia 7
4 Euskarara hurbiltzea. Ikerketa-ildo osagarria 13
5 Ulerrizketa metodologia 17
6 Eusle metodologia 18
7 Sistema Integrala 19
8 Garapen teoriko-metodologikoa 22
9 Emaitzen zabalkundea eta harremanak 23
10 ERANSKINAK 25
10.1 Eusle metodologia. Esperientzien lokalizaziorako fitxa 25
10.2 Ulerrizketa esperientziak antolatzeko eskema 26
10.3 Uler-saioak 3. Mintzatzaileak taldean sartzeko prozesua 27
10.4 Mintzatzaileak taldeetan. Informazioa 29
10.5 Mintzatzaileak taldeetan sartzea. Formazioa 30
10.6 Uler-saioak. Itzulketa txostena 33
10.7 Uler-saioak. 9 Itzulketa txosten 36
10.8 Uler-saioak 2023-2024. Esperientzien ebaluazioa 38
10.9 Formakuntza ikastaroa 2024 40
10.10 Uler-konpetentziak 41
10.11 Uler-saioak – Esperientzien ikerketa eta jarraipena 42
10.12 Uler-saioak - esperientzien antolaketa – urratsak eta irizpideak 49
10.13 Sistema integrala proba pilotuak. Ulerrizketaren ezaugarri nagusiak 50
10.14 Sistema integralaren proba pilotuak. Zer da Ulerrizketa? 52
10.15 Sistema integralaren proba pilotuak. Aukeren fitxa 53
10.16 Sistema integralaren proba pilotuak. Arduradunaren dokumentua 54
10.17 Sistema integrala - Ikerketa mailako helburuak eta irizpideak 55
10.18 Sistema integralaren proba pilotuak. Asteroko jarraipen fitxa 56
10.19 Sistema integralaren proba pilotuak. Mintzatzaileen balorazioa 57
10.20 Sistema integralaren proba pilotuak. Ebaluaziorako txantiloia 58
10.21 Workshop - egitaraua 59
10.22 Workshop – komunikazioaren edukia 60
10.23 Nazioarteko konferentzia - komunikazioa 62
10.24 Hastapeneko ikerketa – marko teorikoa - bibliografia 64
10.25 Hastapeneko ikerketa - hautatutako unibertsoa 68
10.26 Hastapeneko ikerketa - elkarrizketarako gidoia 69
10.27 Aldahitz egitasmoa Gip arigune batzordean 73

ALDAHITZ IKERKETA PROIEKTUA

MEMORIA 2024

EGINDAKO LANEN ESKEMA

Egiteko nagusiak	2024											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1.- Garapen Taldea eta kudeaketa orokorra												
Garapen Taldeko bilerak eta koordinazioa												
Egitasmoa 2024 – diseinua eta planifikazioa												
Egitasmoaren jarraipena eta kudeaketa												
Memoria-txostenak 2024												
Egitasmoa 2025 – diseinua												
Harremanak (GTkoak eta kanpokoak)												
2.- Gipuzkoa arigune												
Batzordea eta jarraipena												
Bulego teknikoarekin koordinazioa												
Esp. – Eusle – Ulerriz.- Materialak												
Esp. berriak – Eusle / Ulerriz./ Uler-saioak – **A**												
3.- Uler-saioak metodologia **A**												
Esp. 2023-2024. Jarraipena - datu-jasoketa												
Esp. 2023-2024. Berriak abiatu + jarraipena												
Esp. 2023-2024. Itzulketa partzialak												
Aditu-taldea – esperientziak + metodologia												
Metodologiaren zabalkundea – lankidetza												
Trebatzaileen formakuntza												
Metodologiaren garapena - hobekuntza												

Egiteko nagusiak	2024											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
4.- Euskarara hurbiltzea. Ikerketa-ildo osagarria												
Proiektuaren plangintza												
Ikerketaren diseinua												
Marko teorikoaren azterketa eta ikerketaren gaiak												
Unibertsoaren azterketa eta ikerketarako unibertsoaren hautaketa												
Datu-bilketaren prestaketa												
Datu-bilketa												
Datu-kudeaketa												
Datu-azterketa												
Kontraste-saioa												
Txostena idatzi												
5.- Ulerrizketa metodologia												
2019-2021 esp. – Analisiak eta ondorioak												
Ulerlaguna jarraipena												
6.- Eusle metodologia												
2018-2021 esp. – Analisiak eta ondorioak												
7.- Sistema Integrala I: Uler-saioak 3 > Ulerrizketa jarraipena												
Diseinua - definizioa												
Dokumentazioa eta irizpideak landu												
Lokalizazioa-hautaketa-formazioa A												
Esperientzien garapena A												
Balorazioak A												
Emaitzen dokumentuak A												
8.- Garapen teoriko-metodologikoa												
Ikerketa Taldearen saioak eta lanketak												
9.- Emaitzen zabalkundea												
Webgunea eguneratu												
“Research metodologies” konferentzia (Gales)												
Online mintegia - Arfor												

PROIEKTUKO ERAKUNDEAK

Proiektuan partaide diren erakundeak:

Goiko bost erakundeak izan dira 2024 honetan zehar proiektuko erakunde partaideak. Erakunde horietako hiruk, gainera (Ahize-AEK, Emun eta Elhuyar), besteek baino inplikazio zuzenagoa izan dute egitasmoaren garapenean, *Uler-saioak* metodologiarako eratutako *aditu-taldean* ordezkari bana duten neurrian.

Proiektuan partaide eta babesle diren erakundeak:

2024an hiru erakunde publikoren babes ekonomikoa jaso du **Aldahitz** proiektuak. Babesle nagusia Gipuzkoako Foru Aldundia izan da (Etorkizuna Eraikiz eta Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza). Erakunde horiek proiektuan "partaide eta babesle" izan dira.

Proiektua lankidetzan:

Bestalde, lankidetzari dagokionez, hiru erakunderekin aritu gara 2024. urtean -maila batean edo bestean- lankidetzan. Batetik, Ikerketa Taldetik, harremanak mantendu dira neurri batean Equiling Ikerketa taldearekin. Bestetik, aholkularitza mailan zenbait lan egin dira EHUko Pello Jauregi ikerlariarekin. Azkenik, *Uler-saioak* metodologian lankidetzan aritu gara HABErekin.

1 GARAPEN TALDEA ETA PROIEKTUAREN KUDEAKETA OROKORRA

	2024											
Egiteko nagusiak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1.- Garapen Taldea eta kudeaketa orokorra												
Garapen Taldeko bilerak eta koordinazioa												
Egitasmoa 2024 – diseinua eta planifikazioa												
Egitasmoaren jarraipena eta kudeaketa												
Memoria-txostenak 2024												
Egitasmoa 2025 – diseinua												
Harremanak (GTkoak eta kanpokoak)												

2024. urte honetan, proiektua kudeatzeko modu orokorra aurreko urteetakoaren antzekoa izan da. Proiektuko Garapen Taldea izan da erabaki eta koordinazio gune nagusia, eta bertan elkartu dira proiektuan "partaide" zein "partaide eta babesle" diren zortzi erakundeetako ordezkariak.

Garapen Taldeak bi bilera egin ditu urtean zehar, aurrez aurrekoak eta on-line motakoak konbinatuz: martxoan eta ekainean. Bilera horien bitartez egin da erakunde horietatik urteko egitasmoaren jarraipen nagusia.

Garapen Taldeko bilerez gain, lehentasunezko egitekoak izan dira lan-ildo honetan urteko egitasmoaren diseinua, planifikazioa eta haren urte osoko jarraipena eta kudeaketa. Era berean, ohi bezala, urtearen amaiera aldera garaturiko jardueraren memoria-txostena osatu da.

Lehentasunezko lan horiez gain, urtean zehar harremanak mantendu dira, bai Garapen Taldeko erakundeekin eta bai proiektutik kanpokoekin. Azkenik, urtea amaitu aurretik 2025eko egitasmoaren oinarri nagusiak landu dira.

2 GIPUZKOA ARIGUNE

	2024											
Egiteko nagusiak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
2.- Gipuzkoa arigune												
Batzordea eta jarraipena												
Bulego teknikoarekin koordinazioa												
Esp. – Eusle – Ulerriz.- Materialak												
Esp. berriak – Eusle / Ulerriz./ Uler-saioak – **A**												

Urte guztian zehar landu den lan-ildoa izan da *Gipuzkoa arigune*-koa. 2023. urtean zehar proiektuaren oinarriak finkatu ondoren, aurtengo urtean zehar hautatutako guneetan pilotatzeak abiatzeko lanak egin dira proiektu horretan. **Aldahitz** Ikerketak zuzeneko inplikazioa izan du garapen horretan, eta bere ekarpena egin du proiektuko metodologietatik eta *hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen* gaineko ezagutzatik.

2024. urte osoan zehar **Aldahitz**-eko Ikerketa Taldeko kideek modu iraunkorrean hartu dugu parte *Gipuzkoa arigune* proiektuaren batzordean. Horrez gain, **Aldahitz**-en 2024ko Egitasmoa diseinatzeko orduan oso kontuan hartu da *Gipuzkoa arigune* proiektuaren garapena, eta urtean zehar zaindu da bien arteko osagarritasuna eta koordinazioa. Esate baterako, batzordearen martxoko saioan, **Aldahitz** Ikerketaren urteko egitasmoaren aurkezpena egin zen. ***→ ikus 10.27 Eranskina***

Horrekin batera, proiektu honen eguneroko garapenean ari den bulego teknikoarekin koordinazioan aritu gara urte osoan zehar, une bakoitzean behar izan diren lanketak eginaz.

Esperientzia berriak. Eusle. Ulerrizketa. Materialak eta irizpideak

Gipuzkoa arigune proiektuaren pilotatzeetan eta guneetan *Eusle* eta *Ulerrizketa* metodologien esperientzia pilotu edo/eta egokituak egin ahal izateko materialak eta irizpideak landu dira urtean zehar, neurri batean. Tartean, kontuan hartu da *Eusle* eta *Ulerrizketa* metodologiak, lan-munduko esparruetan ez ezik, bestelako eremu eta testuingurutan aplikatzeko aukera. Prozesu hori ez da amaitu, dena den, eta 2025. urtean osatuko da lan hau.

Besteak beste, *Eusle* metodologiaren kasuan, esperientzia berrien lokalizaziorako eta baloraziorako bildu beharreko informazioa eguneratu da, lokalizazio-fitxa berri batekin. ***→ ikus 10.1 Eranskina***

Ulerrizketa metodologiaren kasuan ere landu dira esperientzia berriak antolatzeko irizpideak eta materialak, besteak beste, esperientzia bat antolatzeko eman beharreko urratsak, eta urrats bakoitzerako materialak. ***→ ikus 10.2 Eranskina***

3 ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Egiteko nagusiak	2024											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
3.- Uler-saioak metodologia A												
Esp. 2023-2024. Jarraipena - datu-jasoketa												
Esp. 2023-2024. Berriak abiatu + jarraipena												
Esp. 2023-2024. Itzulketa partzialak												
Aditu-taldea – esperientziak + metodologia												
Metodologiaren zabalkundea – lankidetza												
Trebatzaileen formakuntza												
Metodologiaren garapena - hobekuntza												

Aurreikusi bezala, eta goiko kronograman ikus daitekeen moduan, *Uler-saioak* metodologiaren atalean garatu da **Aldahitz** Ikerketa proiektuko 2024ko egitasmoaren zatirik zabalena.

2024an zehar 9 gunetan antolatu eta garatu dira *Uler-saioak* metodologiaren esperientziak. 5 kasutan ziklo bakarreko esperientziak izan dira, eta lau kasutan bi ziklo osatu dira bata bestearen jarraian. Azpiko taulan adierazten dira 9 gune horietako taldeen esperientziak zein daten artean garatu diren eta *Uler-saioak* metodologiako zein ziklo osatu dituzten.

	TALDEA	Udalerria	Uler-saioak	HASIERA-DATA	AMAIERA-DAT	Uler-saioak	HASIERA-DATA	AMAIERA-DATA
1	*Beasain ostalariak*	Beasain	Uler-saioak 2	**Azaroak 6**	**Urtarrilak 15**	Uler-saioak 3	**Urtarrilak 17**	**Ekainak 3**
2	SOS+Koldokide nahasita (Goiza)	Errenteria	Uler-saioak 1	**Azaroak 7**	**Urtarrilak 18**	Uler-saioak 2	**Otsailak 15,**	**Maiatzak 21**
3	SOS+Koldokide nahasita (Arratsaldea)	Errenteria	Uler-saioak 2	**Azaroak 9**	**Otsailak 13**	Uler-saioak 3		
4	EDE Fundazioa	Bilbo	Uler-saioak 3	**Azaroak 9**	**Martxoak 12**			
5	Ederfil Becker	Legorreta	Uler-saioak 1	**Urtarrilak 8**	**Martxoak 13**			
6	EJIE	Gasteiz	Uler-saioak 1	**Urtarrilak 29**	**Martxoak 18**	Uler-saioak 2	**Apirilak 8**	**Ekainak 29**
7	Athletic Club	Lezama	Uler-saioak 1	**Apirilak 8**	**Ekainak 11**			
8	Inmakulada Ikastetxea	Tolosa	Uler-saioak 1	**Apirilak 8**	**Ekainak 3**			
9	Danobat Group	ONLINE	Uler-saioak 1	**Apirilak 23**	**Ekainak 27**			

Esperientzien aldi edo unitate gisa 2023-2024 ikasturtea hartu den arren, 2024ko udazkenean jarraipena eman zaie taulako 2., 3. eta 6. zenbakidun esperientziei.

Bestalde, harremanak egin dira 2024-2025 ikasturtean, 2025eko urtarriletik aurrera esperientzia berriak antolatzeko.

Lan guzti horren garapena, nagusiki *aditu-taldea*-k landu eta garatu du, **Aldahitz**-eko Ikerketa Taldearekin koordinatuta

Argazkian, aditu-taldeko hiru kideak eta Ikerketa Taldeko biak. Emun-eko Xabi Bosch (ezkerretik lehena), Elhuyar-eko Uxue Loinaz (eskuinetik bigarrena) eta Ahize-AEK-ko Raul Perez (eskuinean). Haien tartean Ikerketa Taldeko Maialen Iñarra (SLK) eta Pablo Suberbiola (SLK).

Esperientzia horien bitartez, alde batetik metodologiaren garapen praktikoan jarraitu dugu, 2023an formaturiko trebatzaileek metodologiaren zikloak osatuz, jardun horretan *aditu-taldea*ren jarraipena eta babesa izan dutelarik: trebatzaile guztiek aholkularitza-saioak egin dituzte aditu batekin *Uler-saioak* ikastaroan zehar. Horrekin batera, esperientzia horien ikerketarako datuak jaso dira esperientzien une ezberdinetan.

Esperientzien jarraipena zein ikerketarako datu jasoketa bideratzeko, 2023an sorturiko Uler-saioetarako Atari digitala erabili dugu (gune pribatua). Azpiko irudian, atariaren menu nagusia.



Esperientzia horietan jasotako datuen analisi osatuak 2025. urtean egingo dira. Nolanahi ere, analisi horien lehen urratsa osatu da, bertan parte hartutakoek esperientziez egin dituzten balorazioak txosten batean bilduz. Azpiko irudia da aipatu txosten horren azala. Horrez gain, txosten osoa kontsultatzeko, ***→ ikus 10.8 Eranskina***

Esperientzia hauetan, 2020-2021ean eginiko *Uler-saioak* esperientzietatik abiatuta, aurrera jarraitu da metodologiaren garapenarekin. Garapen honetako berrikuntza bat izan da *Uler-saioak* 3 zikloko taldeetan, azken 20 orduen baitan, inguruko *mintzatzaileak* taldeetan sartzea.

Garapen metodologiko horretako beste bi lan aipagarri izan dira, alde batetik, bideo eredugarrien bilduma osatzea (aholkularitza-saio eta barne erabilerarako), eta da *Uler-saioak* 3 zikloaren materiala berritzea, 2020ko argitalpeneko oinarria abiapuntu hartuta.

Uler-saioak 3 zikloko taldeetan *mintzatzaileak* sartzeari dagokionez, prozesu horren definizioa eta lanketa egin da lehenik, eta ondoren, *Uler-saioak 3*-ko taldeetan lehen aplikazio praktikoak.

Prozesu eta lanketa horren erakusgarri:

→ ikus 10.3 Eranskina

→ ikus 10.4 Eranskina

→ ikus 10.5 Eranskina

Aurreikusi bezala, bestalde, eginiko esperientzia horietako bakoitza amaitu ahala, "Itzulketa txostenak" landu dira esperientzian jasotako datu hautatuekin, tokian tokiko eragileek ahalik eta epe laburrenean jaso zezaten.

Prozesu eta lanketa horren erakusgarri:

→ ikus 10.6 Eranskina

→ ikus 10.7 Eranskina

Esperientziak antolatu, horien jarraipena egin eta amaitu ondoren itzulketa-txostenak egiteaz gain, urtean zehar metodologia bera garatzen eta hobetzen jarraitzeko lana egin da. Lan horri esker, eguneratu egin da "Esperientzien ikerketa eta jarraipena" egiteko moduen oinarria. Azpiko irudian, landutako txostenaren azala ikus liteke, eta txostenaren xehetasunetarako, ***→ ikus 10.11 Eranskina***

Urtean zehar, landu dira halaber *Uler-saioak* esperientziak antolatzeko eman beharreko urratsak, balizko taldeek bete behar dituzten ezaugarriak, antolatzaileek egin beharreko lanak, eta abar. Azpiko irudiak erakusten du gai horretaz landuriko txostenaren lehen orria. Txostenaren xehetasunak ezagutzeko, berriz, ***→ ikus 10.12 Eranskina***

Metodologiaren garapen eta hobekuntzarako egindako ahaleginetan, arreta berezia eskatu du *ulertzaileek* ulermenean egiten duten aurrerapena neurtzeko eta ebaluatzeko

moduak. Aukera ezberdinak irudikatu eta landu dira horretarako urtean zehar. Azpiko irudian, esaterako "Ulermena konprobatzeko" egindako proben bideo bateko irudia.

Prozesu horren emaitza gisa, 2025era begira, definitu da nola egingo den *ulertzaileen* ulermenaren eta horren aurrerapenaren ebaluazioa. Elementu berri bat landu da horretarako, "Uler-konpetentziak" deitu duguna, eta ebaluazio-prozesuan gehitu (orain arte bi elementu erabiltzen genituen: HABEko ahozko ulermena neurtzeko proba eta HEOC dokumentuan deskribatutako mailatan *ulertzaileak* mailakatzea). ***→ ikus 10.10 Eranskina***

Trebatzaileen formakuntza

Uler-saioak metodologiaren garapenarekin eta esperientzien zabalpenarekin jarraitzeko, 2024ko urrian eta azaroan Formakuntza-ikastaro bat antolatu da (aurrekoa 2023an antolatu genuen). Azpiko irudian ikastaroaren oinarrizko informazioa; xehetasun gehiagorako, ***→ ikus 10.9 Eranskina***



Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Formakuntza-ikastaroa 2024

Ikastaro hau jasotzeko, lehentasuna izango dute **2025eko urtarriletik aurrera** abia litezkeen *Uler-saioak* esperientzietan **trebatzaile gisa** jardungo duten kideek.

IKASTAROAREN EZAUGARRIAK:

DATA:	2024ko urriaren 25etik azaroaren 29ra
IRAUPENA:	30 ordu
EDUKIERA:	12 trebatzaile, gehienez
BEHARREZKO MATERIALA:	* Praktika-saioetarako pertsona boluntario bat (euskarazko ahozko ulermenean A1 mailako soslaia duen pertsona) * Praktika-saioetako une jakinak grabatzeko materiala (ahots- nahiz irudi-grabaketak izango dira)
IKASTARO-EMAILEAK:	Raul Perez Martinez (Ahize-AEK) Uxue Loinaz Urruzola (Elhuyar Aholkularitza) Xabi Bosch Urdanibia (Emun)

Formakuntza-ikastaro honetan bederatzi lagunek hartu dute parte. Ondorengo taulan adierazten da zein erakundetakoak diren:

ULER-SAIOAK METODOLOGIA
Formakuntza-ikastaroa 2024

Izen-abizenak	Erakundea	Lanpostua edo lanbidea	Euskalduntze-alfabetatzean eskarmenturik ba al duzu?
1. Inaxio Usarralde Arantzadi	Emun aholkularitza	Aholkularia	Bai
2. Onintza Olaizola Aristi	Euskaltzaleen Topagunea	Hizkuntz aniztasunaren arloko arduraduna	Ez
3. Emma Arrizabalaga Hernandez	Nafarroako Euskaltzaleen Topagunea	Teknikaria	Ez
4. Oihana San Jose Garmendia	AEK	Euskaltegiko arduraduna eta irakaslea	Bai
5. Nadhet Arruti Roteta	AEK	Irakaslea	Bai
6. Maria Angeles Alberdi Mendizabal	Errenteriako Udal Euskaltegia	Irakaslea	Bai
7. Goizane Arana Arexolaleiba	Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea	Euskara teknikaria	Bai
8. Jone Igartua Fernandez	Debagoineko AEK	Irakaslea	Bai
9. Maialen Rodriguez Barcena	AEK	Euskara irakaslea	Bai

Aurreikusi bezala, ikastaroa urriaren 25ean abiatu zen eta azaroaren 29an eman zaio amaiera. Azpiko argazkian, ikastaroko partaideak, irakasle izan dituzten *aditu-talde*ko kideekin batera:

4 EUSKARARA HURBILTZEA. IKERKETA-ILDO OSAGARRIA

	2024											
Egiteko nagusiak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
4.- Euskarara hurbiltzea. Ikerketa-ildo osagarria												
Proiektuaren plangintza												
Ikerketaren diseinua												
Marko teorikoaren azterketa eta ikerketaren gaiak												
Unibertsoaren azterketa eta ikerketarako unibertsoaren hautaketa												
Datu-bilketaren prestaketa												
Datu-bilketa												
Datu-kudeaketa												
Datu-azterketa												
Kontraste-saioa												
Txostena idatzi												

"Euskarara hurbiltzea. Ikerketa-ildo osagarria" ekainetik abendura bitartean garatu da. *Uler-saioak* metodologiaren helburu eta ezaugarrietan adierazten den bezala, *ulertzaile* gisa aritzeko izena ematen dutenak, oro har, ordura arte *euskaratik urrun* bizi izan diren pertsonak dira. Alegia, kasu gehienetan, euskaraz aritzen diren harreman-sareetatik urrun egon ohi dira. Hala, hurbilpen gisa, ikerketa-ildo osagarri honen helburu nagusia izan da oinarri egoki bat sortzea 2025 eta 2026an zehar garatuko den ikerketa bideratzeko. Horrez gain, helburu zehatzagoa izan da *Uler-saioetan* parte hartzeak pertsona hauei zer ekarri dien ezagutzea eta aztertzea, besteak beste: *nola bizitu dute prozesu hori? Nolatan hurbildu dira saioetara, eta zein helbururekin? Prozesuan zehar, bete dira helburu horiek? Eta, euskara ahoz ulertzen hasi izanak zer ekarri du haientzat? Zer suposatu die? Euskara ulertzen hasi izanak zabaldu die ate berririk euren bizitzan? Eman die aukera harreman, diru-baliabide edo lan-baldintza aldetik onurarik jasotzeko, edo sentitzeko?*

Uler-saioetan izena eman eta bertako ziklo bat edo gehiago (*Uler-saioak* 1, 2, 3) egin duen jendearen eskarmentua jasotzea erabilgarria da etorkizunean halako urratsa eman dezakeen jendeari begira. Hain zuzen, ondorio positibo horiek modu egokian komunikatzea eraginkorra izan daiteke balizko parte-hartzaileengan euskarara hurbiltzeko gogoa aktibatzeko. Bestalde, *Uler-saioetan* aritu den jendearen ezaugarriak, bizipenak, ikuspegiak… ondo ezagutzea lagungarria izan daiteke euskaraz oinarrizko ulermena ez duen jendearengana nola hurbildu hobeto jakiteko.

Goiko taulako kronograman laburtu dira 2024an egindako lanaren egiteko eta data nagusiak. Bi atal nagusitan banatu da garaturiko lana. Alde batetik, gaiaren inguruko bibliografia aztertu da (***10.24 Eranskinean***), lan honetan aurrera begira aintzat hartuko ditugun oinarri teorikoak finkatzeko. Bestetik, 2023-2024 ikasturtean *Uler-saioetan* parte hartu duten ulertzaileen iritziak, ikuspegiak, bizipenak eta abar ezagutze aldera, lagin baten hautaketa egin da, eta 8 lagunekin sakoneko elkarrizketak egin dira

(***10.25 Eranskinean***). Marko teorikoa eta ikerketaren diseinua kontuan hartuta, elkarrizketarako gai hauek zehaztu dira:

1. BIOGRAFIA	Migrazio-prozesua Lana Herria
2. BIOGRAFIA LINGUISTIKOA	Lehen hizkuntza Beste hizkuntza batzuk
3. HIZKUNTZA ZER DEN	Funtzioak eta balioak Euskararen loturak Irudiak eta usteak
4. ABIAPUNTUA	Informazioa nola jaso Zerk bultzatuta
5. IKASTARO BARNEKO SOZIALIZAZIOA	Trebatzailea Ikaskideak
6. IKASTAROAREN EZAUGARRIAK	Egitura Metodologia
7. BALIABIDEAK	Pertsonalak Lanekoak
8. HIZKUNTZA-GAITASUNA	Helburuak bete Emaitzak
9. HIZKUNTZA-ERABILERA	Helburuak bete Emaitzak
10. INTEGRAZIO SOZIALA	Harremanak Emozioak
11. INTEGRAZIO LABORALA	Prestigioa
12. INTEGRAZIO KULTURALA	Ekitaldiak Kontsumoa
13. INTEGRAZIO IDENTITARIOA	Emozioak
14. IKASTAROAREN EBALUAZIOA	Orokorra Proposamenak
15. GOMENDIOAK	Euskara ez dakienari Euskaldunei

Aipatutako gaiak aintzat hartuta, elkarrizketa horietarako gidoia prestatu da (***10.26. Eranskina***), eta jasotako informazioaren analisi tematikoa egin da Atlas.ti ikerketa kualitatiborako tresna erabiliz. Programa hau oso erabilgarria da datu kualitatiboak modu sistematizatu batean antolatzeko eta kudeatzeko, analisi-prozesua arintzeko, eta emaitzak modu errazagoan irakurtzeko eta gurutzatzeko (beheko irudia).



Azkenik, landuriko oinarri teorikoen araberako datuen hustuketa egin da, eta emaitzak lau ataletan sailkatu dira: (1) parte-hartzaileen hizkuntza ideologiak; (2) parte hartzeko motibazioak eta moduak; (3) parte hartu ondoren ondorioak, iritziak eta emaitzak; eta (4) *Uler-saioen* prozesua.

Parte-hartzaileen HIZKUNTZA-IDEOLOGIAK

- Alderdi formal-linguistikoak
- Alderdi pertsonalak
- Alderdi komunitarioak (balio integratzailea)
- Alderdi pragmatikoak (balio instrumentala)

Parte hartzeko MOTIBAZIOAK eta MODUAK

- Aurretiko arrazoiak
- Espektatibak

Parte hartu ondoren *ONDORIOAK, IRITZIAK eta EMAITZAK*

- Alderdi psikosozialak
- Alderdi komunitario-kulturalak
- Alderdi instrumentalak

***Uler-saioen* PROZESUA**

- Informazioa nola jaso
- Metodologia didaktikoa
- Balorazioa

Azterketaren emaitzetatik, ondorioak eta gako esanguratsuak identifikatu dira, eta hiru multzotan sailkatu dira: *Uler-saioetan* hasi aurretik metodologia horrekiko parte-hartzaileek izan duten jakinmina eta espektatibak; alderdi psikosozialean bizi izan duten esperientzien bilakaera; eta parte-hartzaileek *Uler-saioen* inguruan egin duten balorazio orokorra. Laburpen moduan, ideia hauek azpimarratu daitezke:

- *Uler-saioen* metodologia berritzaileak parte-hartzaileengan jakinmina piztu du, euskaraz ulertzea erronka erakargarri modura hartuz. Era berean, lan-esparru euskaldunetan komunikazioa normalizatzeko eta bezeroekin harreman hobea izateko espektatibekin izena eman dute parte-hartzaile batzuek. Beste batzuk espektatiba argirik gabe hasi dira, erronka pertsonal gisa. Oro har, parte-hartzaileek itxaropenak bete direla adierazi dute, euskararen ulermen-mailan hobekuntza nabarmena lortu baitute.

- *Uler-saioek* euskararekiko jarrera aldaketa positiboak eragin dituzte parte-hartzaileengan. Familia eta komunitate giroan euskara garrantzi handiagoa hartzen ari da, eta ulermena hobetzeak bazterketaren sentimendua gutxitu eta

integrazio handiagoa sustatu du. Gainera, bertako euskaldunek ahalegin hori aitortzen dutela sentitzeak motibazioa areagotu die. Nolanahi ere, aldaketa hauek ez dira parte-hartzaile guztietan maila berean gertatu, eta batzuek harreman sozialetan edo kulturaletan eragin mugatua somatu dute.

- *Uler-saioen* izaera eta metodologia oso positiboki baloratu dira, bereziki irakaslearen papera, talde txikietan lan egitea eta ahozko ulermena helburu nagusi izatea. Batzuek adierazi dute metodologia dinamiko eta malguak hizkuntza ikasteko prozesua errazten duela, estresa gutxituz eta motibazioa sustatuz. Parte-hartzaileek saioak arrakastatsuak izan direla eta lorpenak egingarriak direla sentitu dute. Era berean, *Uler-saioek* euskararekin lehen harreman atsegina eskaintzen dutela adierazi dute, eta horrek etorkizunean urrats berriak egiteko motibazioa indartzen die.

Aipatutako lana berariazko txosten batean jaso da. Bi oinarri horietatik abiatuta, bestalde, datozen bi urteetan gai honen inguruko ikerketa garatzeko proposamena aurkeztu da, eta bi ikerketa aukera planteatu dira (behean dokumentu horren azala).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2024ko abendua

ALDAHITZ IKERKETA 2024

Ildo osagarria: Euskarara hurbiltzea

Hastapeneko ikerketaren emaitza eta 2025-2026rako ikerketa proposamena

Horrez gain, 2024ko azaroaren 5ean Badalaben antolatutako kontrastea-saioaren ekarpenak ere kontuan hartu dira txosten horretan. Saio horretan, *Gipuzkoa Ariguneko* batzordeko kideek parte hartu zuten (behean saioaren argazkia). Soziolinguistika Klusterrak ildo honen lanketa aurkeztu zuen, eta besteak beste hastapeneko ikerketaren nondik-norakoak, behin-behineko emaitzen laburpena eta ildo honen ikerketa proposamenaren planteamendua partekatu zituen. Saioan zehar, taldekideek aukera eduki zuten horren inguruko ekarpenak egiteko; horiek guztiak ere aztertu eta aintzat hartu dira aipatutako dokumentuan.

Bidalitako proposamena lantzen jarraituko da datorren urtean, eta behin-betiko 2025-2026ko ikerketaren diseinua zehaztu eta inplementatuko da.

5 ULERRIZKETA METODOLOGIA

	2024											
Egiteko nagusiak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
5.- Ulerrizketa metodologia												
2019-2021 esp. – Analisiak eta ondorioak												
Ulerlaguna jarraipena												

2019 eta 2021 artean eginiko esperientziak. Analisiak eta ondorioak

2019 eta 2021 artean eginiko *Ulerrizketa* metodologiaren esperientzien gaineko analisiak eta horien ondorioen lanketa egin da urtean zehar, neurri batean. Lan hori, dena den, ez da aurreikusten zen moduan garatu ahal izan, eta analisien amaiera zein argitalpena aurreragorako utzi da.

Ulerrizketa esperientzien materialak eta urratsak

Gipuzkoa arigune egitasmoaren baitan modu pilotuan garatzea aurreikusten den *Ulerrizketa* metodologiaren esperientziei begira, materialen eta esperientziak antolatzeko urratsen gaineko lanketa egin da, neurri batean (ikus gorago **2.- Gipuzkoa arigune** atala).

Ulerlaguna egitasmoaren jarraipena

Ulerlaguna proiektua, Euskaltzaleen Topaguneak garatzen du. Bertan, modu esperimentalean, *Ulerrizketa* metodologiaren oinarriak aintzat hartzen dira, *Mintzalaguna* proiektuan aritzeko behar besteko maila ez duten kideei aukera berri bat eskaintzeko. Uztarketa interesgarria da, besteak beste *Ulerrizketa* metodologia lan-mundutik kanpo aplikatzeko aukera berriak zabal ditzakeelako.

2024 urtean zehar, Topagunea *Ulerlaguna* proiektuan lanean ari diren kideekin koordinazio bilerak egin dira eta proiektu horren garapenean ematen ari diren urrats interesgarrien berri jaso dugu. Era berean, aurrera begira *Ulerrizketa* proiektuarekin lankidetzan aritzeko egon litezkeen aukerak eta horretarako behar diren baldintzak landu dira.

Ulerrizketa metodologiaren eguneraketa

2024 urtean zehar egin ditugu lehen aldiz **Aldahitz**-en *Uler-saioak* eta *Ulerrizketa* metodologien arteko uztarketa edo jarraipena aztertzeko esperientzia pilotuak (ikus beherago **7.- Sistema integrala** atala). Proba horiei begira, *Ulerrizketa* metodologiaren aurreko urteetako esperientziak, balorazioak eta hobetu beharrekoak hartu dira kontuan, eta metodologiaren datu-jasoketa eta jarraipena egiteko materialak eguneratu dira. Besteak beste, ikerketa mailan esperientzia bateko partaideak haien artean "Ulerrizketan ongi" aritzera iritsi diren edo ez gaiaren inguruan teorizatu da, eta bereizketa hori txertatu esperientzien jarraipenean eta datu jasoketan. ***→ ikus 10.17 Eranskina***

6 EUSLE METODOLOGIA

	2024											
Egiteko nagusiak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
6.- Eusle metodologia												
2018-2021 esp. – Analisiak eta ondorioak												

2018 eta 2021 artean eginiko *Eusle* metodologiaren esperientzien gaineko analisiak eta horien ondorioen lanketa egin da urtean zehar, neurri batean. Lan hori, dena den, ez da aurreikusten zen moduan garatu ahal izan, eta analisien amaiera zein argitalpena aurreragorako utzi da.

Bestalde, *Gipuzkoa arigune* egitasmoaren baitan modu pilotuan garatzea aurreikusten den *Eusle* metodologiaren esperientziei begira, materialen eta esperientziak antolatzeko urratsen gaineko lanketa egin da, neurri batean (ikus gorago **2.- Gipuzkoa arigune** atala).

7 SISTEMA INTEGRALA

Egiteko nagusiak		2024											
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
7.- Sistema Integrala I: Uler-saioak 3 > Ulerrizketa jarraipena													
Diseinua - definizioa													
Dokumentazioa eta irizpideak landu													
Lokalizazioa-hautaketa-formazioa	**A**												
Esperientzien garapena	**A**												
Balorazioak	**A**												
Emaitzen dokumentuak	**A**												

Sistema Integrala I: Uler-saioak 3 eta Ulerrizketa metodologien arteko jarraipenaren ikerketa. Proba pilotuak

Aldahitz proiektuko metodologien arteko loturak ikertzea izan da *Sistema integral*-aren garapenean eman den lehen urratsa. Eta urrats hori antolatu da 2023-2024an garatzen ari garen *Uler-saioak* metodologien esperientziekin lotuta.

Uler-saioak 3 zikloa amaitzean, hipotesia da *ulertzaileak* B1 inguruko ulermen-maila izatera iritsiko direla. Eta ulermen-maila hori da, hain zuzen, *Ulerrizketa* metodologian abiapuntu gisa hartzen duguna. Hala, 2024an zehar, bi metodologia horien arteko lotura modu pilotuan ikertzeko esperientziak diseinatu, antolatu eta garatu dira. Esperientzia horietan parte hartu duten unitateak borondatezkoak izan dira, eta hautatu dira *Uler-saioak 3* zikloa amaitu eta B1 inguruko ulermen-maila lortu duten *ulertzaileen* artean.

Proba pilotu hauek garatu ahal izateko, gaiaren lanketa teoriko-metodologikoa egin da lehenik. Jarraian dokumentazioa eta irizpideak finkatu dira, bi metodologien arteko lotura edo jarraipena partaideei nola proposatu eta horretarako bete beharreko baldintzak definitzeko. Ondorengo irudiak laburtzen du 2024an *Uler-saioak 3* eta *Ulerrizketa* metodologien arteko lotura lehen aldiz ikertzeko proba pilotuak antolatzeko egindako prozesuaren urrats nagusiak:

Behin proba pilotuak egiteko oinarriak landuta (goiko eskeman, 1 eta 2 urratsak), tokian tokiko harremanak garatu dira. Guneetako arduradunen laguntzaz, balizko partaideak lokalizatu (*ulertzaile/mintzatzaileak*) eta parte hartzeko proposamena luzatu zaie (eskeman 3, 4 eta 5 urratsak). Behin esperientzietan parte har zezaketen partaideak definituta ("Ulerrizketa unitateak"), esperientziak garatzeko datak adostu dira, eta formazio-saioak antolatu (*aditu-taldeko* kideek eman dituzte). Formazio-saioak egin ondoren hartu dute partaideek *Ulerrizketa* esperientziak garatzeko erabakia, eta esperientziek garatu dira 8 astez, asteroko jarraipenarekin eta ikerketarako datuak jasoz. Azkenik, esperientzien ebaluazioak egin dira partaideekin (eskeman 6, 7 eta 8 urratsak). Guztira 3 esperientzia egin dira (hiru "Ulerrizketa unitate"), gune bakarrean[1] (Bilboko EDE Fundazioa), urria eta abendua artean. Esperientzia horien ebaluazioak eta datuen analisiak 2025. urtean egingo dira.

Proba pilotuen urratsak eta irizpideak tokian toki esperientziak antolatzen lagundu diguten arduradunei ongi adierazteko txosten bat landu da. Ondorengo irudia da txosten horren azala, eta bere xehetasunak ezagutzeko, ***→ ikus 10.16 Eranskina***



Aldahitz Ikerketa 2024

ULER-SAIOAK 3-TIK > ULERRIZKETA-RA. PROBA PILOTUAK ETA IKERKETA 2024

ARDURADUNAREN DOKUMENTUA

PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK, BALDINTZAK ETA URRATSAK

2024KO APIRILA

1) Ideia orokorra eta urratsak

- *Uler-saioak 3* zikloa amaitu duten ikasleekin, proba pilotu bat egingo dugu haien euskararen ikaste- eta erabilt̂ze-prozesuarekin aurrera jarraitzeko, *Ulerrizketa* esperientzien bitartez.
- Esperientzia hauek ez dira *Uler-saioak* bezala klase-orduetan egiten, baizik kideen arteko harreman naturalaren baitan (laneko harreman formalean, informalean... haiek duten harremanean).
- Borondatezko esperientziak izango dira, nahi duten *ulertzaileek* soilik parte hartuko dute.
- Baina ez nahi duen *ulertzaile* orok, gutxieneko baldintza batzuk eskatuko dira, esperientziak ongi ateratzeko aukerak bilatu asmoz.
- Ideia nagusia da esperientzia egiteko parte hartuko duen *ulertzaile* bakoitzak behar dituela, borondatea eta B1 inguruko ulermen-maila gain, bere hurbileko harreman naturalean bi *mintzatzaile* (edo, gutxienez bat), *ulertzailearekin* ahozko harremana maiz izaten dutenak, eta prest daudenak probatzeko euren harremana 8 astez *Ulerrizketa* moduan edo estiloan egitea (Ikusi informazio osagarrian zertan datzan *Ulerrizketa*).
- Esperientzia hauek antolatzeko, lehen urratsa izango da *Uler-saioak 3* egin duten *ulertzaileekin* bilera bat antolatzea. Bilera horretan adierazko zaie zer den *Ulerrizketa*, proposatuko zaie esperientzia pilotu hau egiteko aukera, eta (interesa dutene) galdetuko zaie ea zein aukera duten haien inguruan *mintzatzaile* aldetik.
  - Bileran bertan "*Aukeren fitxa*"-n jasoko da informazioa, eta, beharreskoa bada, osatu egingo da hurrengo egunetan, baliziko *mintzatzaileei* zuzenean kontsulta eginda (*ulertzaileak* berak, edo arduradunak).
- Behin osatuta, taulatan jasotako informazioa pasako die arduradunak Aldahitzeko Ikerketa Taldeko kideei eta baloratuko dira esperientziak egiteko aukerak.
- Aukera egokiak dituzten *ulertzaile* eta *mintzatzaileekin* formazio laburrak antolatuko dira (2 ordukoa edo 4 ordukoa, kasuaren arabera, haientzat erraztena den ordutegi eta lekuan).

1

Proba pilotu hauek antolatzen lankide izan ditugunei urratsak eta irizpideak adierazi aurretik, proba hauen ikerketa aldetik aintzat hartu ditugun helburuak eta irizpideak definitzeko lana egin da. Horretarako, besteak beste, *Ulerrizketa metodologia*-ren eguneraketa bat egin da (ikus gorago **5.- Ulerrizketa metodologia** atala). Azpiko irudia da txosten horren azala, eta bere xehetasunak ezagutzeko, ***→ ikus 10.17 Eranskina***

[1] Beasaingo *Uler-saioak* esperientziaren taldean ere eman ziren pausoak proba pilotu hauek egiteko, baina ulertzaileen lan-baldintzen aldaketak tarteko, azkenean ez zen aukerarik izan esperientziak garatzeko.



Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

SISTEMA INTEGRALA
METODOLOGIEN ARTEKO LOTURA ETA JARRAIPENA IKERTZEA

ULER-SAIOAK 3 > ULERRIZKETA. PROBA PILOTUAK ETA IKERKETA 2024

IKERKETA MAILAKO HELBURUAK, IRIZPIDEAK ETA KONTUAN HARTZEKO OHARRAK

ALDAHITZ IKERKETA TALDEA ETA ULER-SAIOETAKO ADITU-TALDEA

2024ko iraila

1) Sarrera

Uler-saioak 3 amaitu eta *Ulerrizketa* metodologiaren esperientzia bat osatzeko egingo ditugun proba pilotu hauetan bi dokumentu erabiliko ditugu oinarri gisa: batetik "Arduradunaren dokumentua", ideia orokorrak, urratsak eta bestelakoak azaltzen dituena, eta, haren osagarri gisa, bigarren hau, aditu-taldeko kideek eta Ikerketa Taldeak erabiltzekoa, ikerketari begirako helburu, irizpide eta bestelakoak xeheago jasotzen dituena.

Bi dokumentu horiez gain, "Esperientzia_urratsak_ardurak_oharrak" excel fitxategian daude jasota esperientzia bakoitzaren urratsak, baliatu beharreko dokumentuak eta kontuan hartu beharreko oharrak xehetasun gehiagorekin.

2) Helburuak

1. Aztertzea ea lortzen ote den *Uler-saioak 3* amaitu eta *Ulerrizketa* esperientzia baten proposamena onartu duten *ulertzaileak harreman naturalekin*[1] *mintzatzaileekin* *Ulerrizketa*-n ongi aritzera iristea.
   Gai hori aztertzea, bai ikuspegi kuantitatibotik, eta bai kualitatibotik:
   - Kuantitatiboki:
     - Esperientziak abiatu dituztenetatik, zenbaten kasuan lortu da *Ulerrizketa*-n nolabait aritzera iristea? Eta, *ongi* aritzera iristea? (ikus beherago 3. puntua).
     - *Ulerrizketa*-n aritzera iristea lortu den kasuetan (ongi izan edo ez), lortu da pertsona horiek duten harreman naturalaren egoera gehienetan (edo denbora gehienean) egitea, edo, aldiz, harremanaren zati edo une (oso) jakinetan soilik?

[1] Hemen, Aldahitz-ao ohi dugunez, 'talde naturala' eta 'harreman naturala' erabiltzen dugu zentzu honetan: *Uler-saioak* zein *Ulerrizketa* metodologiak, esperientziak eta abarrak alde batera utziz, laneko, lagun-taldeko edo desa delako harreman-careao harreman finkatu bat izatea, elkarrekin maiz egotea eta artzea dakarrena, dela antolaketa formalagatik (zail bereko kideak, adibidez, lanean), dela bestelako harreman informal edo afektiboengatik.

1

Bi oinarri horiez gain, beste hainbat elementu landu dira proba pilotu hauetarako. Esate baterako, *Uler-saioetan* ibili diren partaideei, *Ulerrizketa* metodologia zer denari buruzko azalpenak (euskaraz eta gaztelaniaz), balizko partaideek proba hauetan parte hartzeko inguruan *mintzatzaile* egokiak zituzten jasotzeko fitxak eta esperientzien jarraipen eta ebaluaziorako hainbat elementu.

Prozesu eta lanketa horren erakusgarri, material horietako batzuk jaso dira ondorengo eranskin hauetan:

→ ikus 10.13 Eranskina

→ ikus 10.14 Eranskina

→ ikus 10.15 Eranskina

→ ikus 10.18 Eranskina

→ ikus 10.19 Eranskina

→ ikus 10.20 Eranskina

8 GARAPEN TEORIKO-METODOLOGIKOA

	2024											
Egiteko nagusiak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
8.- Garapen teoriko-metodologikoa												
Ikerketa Taldearen saioak eta lanketak												

Lehentasunezko lan-ildoa izan ez den arren, egitasmoaren garapenak ahalbidetu duen neurrian, proiektuko Ikerketa Taldeak lan-saioak zein bestelako lanketak egin ditu garapen teoriko-metodologikoan aurreratzeko.

Apirilean Ikerketa Taldeko bi kidek parte hartu genuen CUSC-ek antolaturiko mintegi batean, Equiling proiektuko Joan Pujolar eta Maite Puigdevall ikerlariek emandakoa: "Conscienciació i agència en la construcció de la justícia sociolingüistica". Azpiko irudia da mintegi horretan hizlariek emandako azalpenen atal bat.

Horrez gain, maiatzean Ikerketa Taldeko kideok parte hartu genuen Galesko *Centre for language planning*-ek antolaturiko saio batean. Bertako gaia "Using Behaviour Change Methods in Language Policy and Planning" izan zen, **Aldahitz** proiektuko gaiekin lotura zuzena duena. Irakaslea Osian Elias doktorea izan zen. Azpiko irudian, saio horretako materialen azala:

9 EMAITZEN ZABALKUNDEA ETA HARREMANAK

	2024											
Egiteko nagusiak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
9.- Emaitzen zabalkundea												
Webgunea eguneratu												
"Research metodologies" konferentzia (Gales)												
Online mintegia - Arfor												

Emaitzen zabalkundea eta harremanak ere ez dira izan lehentasunezko lan-ildo bat 2024ko egitasmo honen baitan, eta beraz, gai honetan egin diren lanak baldintzatuta egon dira.

Nolanahi ere, aintzat hartu da proiektuko webgunearen eguneratzea, horretarako aukera egon den neurrian.

Aldahitz Ikerketan landuriko edukiak eta sorturiko ezagutza zabaldu zein beste eremuetako ikerlariekin harremanak egiteari dagokionez, bestalde, bi jarduera nagusi garatu dira 2024an.

Batetik, irailean parte hartu genuen Galesko "Centre for Welsh Politics and Society" erakundeak antolaturiko Workshop batean: "Economy, language and the workplace: good practice from the Basque Country". Azpiko irudian ikus daiteke gaiari buruz Gales-en argitaratutako albistea. Workshop-aren egitarauaren xehetasuna ezagutzeko, berriz, ***→ ikus 10.21 Eranskina*** Eta bertan azaldutako edukiak ezagutzeko, ***→ ikus 10.22 Eranskina***



Watch: Webinar on promoting minority languages in workplaces, best practice in the Basque Country

October 2024 | Arfor

Facebook X LinkedIn

On Friday 20 September 2024 Aberystwyth University held a specialist workshop featuring academics and experts from the Basque Country invited to discuss their work in the field of language planning in workplaces.

The workshop is one of a series of events and conferences organised by Dr Elin Royles and Dr Huw Lewis from the university as part of their work with Wavehill on the Monitoring, Evaluation and Learning workstream of the ARFOR II programme. It's now possible to stream the contributions of Dr Auxkin Galarraga, Pablo Superbiola, Leire Okaranza and Galder Lausen discussing different aspects of language planning in workplaces, and the ways in which institutions, including social enterprises and businesses, in the Basque Country are global innovators in using the workplace as a space to promote a minority language. The presentation are a valuable resource for anyone interested in the field of language policy in Wales and beyond, particularly those that are interested in how to encourage work practices that promote Welsh in the workplace.

Horrez gain, uztailean **Aldahitz**-eko zuzendariak parte hartu zuen Soziolinguistika Klusterreko beste lankide batekin batera Galesko Aberystwyth unibertsitatean antolaturiko nazioarteko "Research Metodologies Conference"-an, bertan **Aldahitz** Ikerketarekin eta bere garapenarekin loturiko komunikazio bat aurkeztuz.

Azpiko bi irudietan, batetik Conference horretako partaideen argazkia, eta bestetik **Aldahitz**-en inguruan aurkezturiko komunikazioaren une bat. Bertan aurkezturiko edukien xehetasuna ere kontsulta daiteke; ***→ ikus 10.23 Eranskina***

10 ERANSKINAK

10.1 EUSLE METODOLOGIA. ESPERIENTZIEN LOKALIZAZIORAKO FITXA



Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

Eusle metodologia

Esperientzien lokalizaziorako fitxa
(talde natural edo gune bakoitzerako fitxa bat)

Eusle metodologia esperientzia bat garatzeko irudikatu duzuen lankide-talde hori gogoan izanik bete galdetegia. Kasu batzuetan erantzuna laburra da (kopuru bat edo bai/ez). Besteetan, saiatu kasuan kasuko egoera labur deskribatzen, ezagutzen duzuen bezain zehatz.

1. Kokapena

- Erakundea, enpresa edo taldea:
- Herria:
- Taldearen lantokiko saila(k)/arloa(k): (bat baino gehiago badira, aipatu guztiak)
  -

2. Taldea eta harremanak

- Zenbat lankide/kide dira esperientziarako irudikatu duzuen taldean:
- Irudikatutako hori "talde naturala" da? (kontuan hartu a) kokapen fisikoa eta b) haien arteko loturak organigraman)
  -
- Eguneroko lana edo harremana dela eta, irudikatutako talde horretako kideek izaten dute elkarrekin ahoz harremanik? Zenbatekoa? Nolakoa?
  -
- Taldean badira maiz lantokitik kanpo ibiltzen diren kideak? (halako kasuak badaude, azaldu bakoitza)

3. Taldearen eta lanpostuen egonkortasuna

- Oro har, irudikatutako taldeko (lan)kideek urte asko daramate lanpostu horietan eta elkarrekin lanean, edo haien arteko harremana aspaldikoa da?
- Lantokian, edo sail horretan, egonkortasuna handia da? edo maiz gertatzen dira lanpostu eta lankide aldaketak?
  -
- Zehazki, esperientzia irudikatu den eperako, badago aurreikusita lankide-talde honi zuzenean eragingo dion aldaketarik?

www.soziolinguistika.eus

Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

4. Taldekideen euskarazko gaitasuna

- Lankide talde horretan, kide guztiek dute euskaraz "elkarrizketa arrunt bat" ulertzeko gaitasuna?
- (horretan zalantzazko kasurik balitz) Zein erreferentzia dituzue euskara ulertzeko zailtasunak izan ditzaketen lankide horiei buruz? (adierazi banaka)
  -
- *Eusle* izateko, taldeak kideak aukeratuko ditu euskaraz hitz egiteko "erraz samar" moldatzen direnen artean. Irudikatutako taldean nolakoa da banaketa? Zenbat lankide dira euskaraz hitz egiteko erraz moldatzen direnak, eta zenbat maila hori ez dutenak?

5. Taldeari galdetu aurretik...

- Lantokiko organigrama, prozedurak eta ohiturak kontuan hartuta, zein organu edo arduradunen oniritzia beharko luke esperientziak, lankideei galdetu aurretik? (halakorik behar bada)
-
- Baduzue (aurreko galderako) organu edo arduradun horiekin harreman zuzenik, edo gai hau haiekin lantzeko modurik?

6. Aurretik egindako ekimenak

- Lantoki edo erakunde horretan, egin izan dira lankideen arteko harremanetan euskarazko erabilera areagotzeko ekimenak azken urteetan? (baiezkotan) Zeintzuk edo nolakoak?

7. Besterik?

- Adierazi hemen beste edozein ohar edo zalantza:

8. Nork eta data

- Galdetegi hau bete du (izen-abizenak + erakundea):
- Data eta lekua:

Mila esker aldez aurretik!

www.soziolinguistika.eus

10.2 ULERRIZKETA ESPERIENTZIAK ANTOLATZEKO ESKEMA



10.3 ULER-SAIOAK 3. MINTZATZAILEAK TALDEAN SARTZEKO PROZESUA



Aldahitz Ikerketa 2024

ULER-SAIOAK 3

MINTZATZAILEAK TALDEAN SARTZEKO PROZESUA

ESPERIENTZIAREN ARDURADUNARENTZAKO AZALPENA

Helburuak, irizpideak eta urratsak

1) Helburuak

- ***Mintzatzaileak*** *Uler-saioak 3* esperientzietan sartzearen helburu nagusia da ***ulertzaileak*** *mezua helburu komunikazio-estrategia*, edo hemen sinonimotzat hartuko dugun *Ulerrizketa estiloa*, ordura arte soilik trebatzailearekin klasean landu eta praktikatu dutena, beste hiztun batzuekin praktikatzen hastea, *Uler-saioen* testuinguruak eskaintzen duen gune bebestuan.
- Helburua da praktikan ikustea (eta bizipena izatea) nola hiztun bakoitzarekin *Ulerrizketa estiloan* aritzeko egokitu egin behar garen haren hitz egiteko eta adierazteko modura: batzuekin errazago egingo zaigu, eta beste batzuekin gehiago kostako zaigu. *Uler-saioak 3* amaitu aurretik praktika hori modu leburrean egiteko aukera ematea da prozesu honen helburua.
- Prozesu honek lotura zuzena du ~~Aldahitzen~~ *hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak* bultzatzeko edo errazteko dugun xede orokorrarekin. Aldaketa horiek, noski, borondatezkoak dira ~~Aldahitzen~~, baina nahi hori duenari bidea erraztea da helburua. Hala, ***mintzatzaileak*** sartzeko prozesu honen helburua da, *Uler-saioak* amaitzerako, ***ulertzaileari***, euskara erabiltzen joateko prozesuan hurrengo urratsa maila praktikoan eta ingurune bebestuan probatzeko aukera ematea. Gero, norberak erabakiko du horretan aurrera egin nahi duen, baina proba egin ondoren.
- Bestalde, ahal den neurrian prozesu hori egingo dugu ***ulertzaileen*** hurbileko kideekin. Modu horretan, hurbilekoekin *Ulerrizketa* esperientzia bat abiatzeko, edota *Ulerrizketa estiloan* euskara erabiltzen hasteko bidea erraztu nahi zaie.
- Azkenik, euskara erabiltzea errazteko bide horretan, helburu osagarria da ***mintzatzaileei*** ere eskaintzea *Ulerrizketa estiloa* zer den ikasteko eta lehen esperientzia praktiko lebur bat izateko aukera eskaintzea hurbileko kideekin.

www.soziolinguistika.eus

Aldahitz Ikerketa 2024

2) Eman beharreko pausoak

- *Uler-saioak 3* esperientzietan taldean sartuko diren ***mintzatzaileak*** lokalizatu, haiekiko harremana egin eta taldean sartzeko prest izateko prozesua taldearen arduradunak egingo du, nagusiki.
- Kasuaren arabera, gerta liteke berak loguntza eskatzea bere lankideei, ***trebatzaileari*** edo balta ***ulertzaileei*** ~~bozioi~~ ere, zeozer galdetzeko edo kontrastatzeko. Baina berak izango du prozesuaren kontrola eta ardura: zenbat kideri proposatu dien, zenbatek eman duten baiezkoa, besteren batí galdetu behar ote zaion, noiz sartuko diren taldean...
- Lortu behar duguna da *Uler-saioak 3* taldeko ***ulertzaileekin*** saioetan parte hartzeko prest dauden kideen taldetxo bat, ***mintzatzaile*** gisa aritzeko. Euskaraz ahoz hitz egiteko ongi moldatzen direnak, eta prest egon ~~itzulpenak~~ euren hizkera egokitzeko.
- Arduradunen egitekoa izango da halako kideak bilatzea, haiei proposamenak egitea eta prest daudenekin taldetxoa osatzea, modu horretan, *Uler-saioak 3* esperientziaren 40. ordu ingurura iristean, hauek taldera batzeko. Kasuaren arabera, ***mintzatzaile*** egokien prestutasunaz gain, guneko edo erakundeko arduradunen oniritzia ere lortu beharko du taldearen arduradunak.
- ***Mintzatzaile*** hauek, ahal den neurrian, ***ulertzaileen*** ingurune naturaletan bilatuko ditugu. Horrela, behin *Uler-saioak 3* amaitutakoan ***ulertzaileren batek/batzuek*** *Ulerrizketa* esperientzia bat abiatu nahi badu(te), lan batzuk aurreratuta izango ditu(~~ate~~).
- Ondorengo puntuetan dituzue zehaztuta lokalizazio eta hautaketa hauek egiteko irizpideak eta xehetasunak.

3) Mintzatzaileak lokalizatzeko eta hautatzeko

- Bi izango dira ***mintzatzaileak*** bilatu eta hautatzeko oinarrizko irizpideak; lehena ezinbestekoa, eta bigarrena, ahal den neurrian beteko duguna:

1. **Euskaraz ongi hitz egitea.**
   - Euskaraz ongi, erraztasunez eta bere hizkera egokitzeko adinako gaitasunarekin hitz egiten duen hiztuna izan behar du.
   - Ez da ezinbestekoa, baina ahal dela bai komenigarria, ingurune horretan (lan-eremu horretan, harreman-sare horretan...) dagoeneko beste kide batzuekin euskaraz egiteko ohitura (eta beraz, balta erraztasuna ere) izatea hiztun horrek.
     - Hala ez balitz, eta hiztunak euskaraz hitz egiteko gaitasun eta erraztasun hori izan arren, eremu horretan beste inorekin euskaraz aritzeko aukerarik/joerarik ez balu, ~~ütakasuna~~ da ***mintzatzaile*** lana ongi egin ahal izatea, baina kontuan hartu behar dugu erronka

www.soziolinguistika.eus

Aldahitz Ikerketa 2024

seguruenik handiagoa izango dela (bai ***mintzatzaile*** horrentzat, eta bai ***ulertzailearentzat*** ere).

- Prozesu honetan ez dugu hitz egiteko gaitasun/erraztasun hori proba bidez neurtuko. Nolanahi ere, erreferentzia modura, bilatzen ari garen profila litzateke hiztun bat euskaraz ahoz egiteko C1 inguruko gaitasuna duena.

2. *Uler-saioak 3* esperientzian parte hartzen ari diren ***ulertzaileetako batekin (gutxienez) hurbileko harremana*** izatea ingurune natural batean: lanean, lagun-taldean, jardueraren batean inguruan... "Hurbileko" harremana ~~diagnosen~~, ulertzen da egunero edo ia egunero ikusten dutela elkar, eta ahozko harremanak (izan formalak, informalak, edo biak) maiz samar izaten dituztela.

- Ez bada posible ***ulertzaile*** horien harreman-sare naturaletan "hurbilekoak" diren ***mintzatzaileak*** topatzea, arduradunak bilatuko ditu talderako ***mintzatzaile*** batzuk (kopuruari buruz, ikus beherago 4. puntua) euskaraz ongi egiteko gai direnak eta eskatutako saioetan ***mintzatzaile*** rola jokatzeko prest daudenak.
  - Kasu horretan, ***ulertzaileek*** ikasiko dute, eta praktikatu, ***mintzatzaile*** horiekin nola aritzen den *Ulerrizketa estiloan*. Gero, ordea, *Uler-saioak 3* amaitutakoan *Ulerrizketa* esperientzia bat abiatu nahi badute, bi ***mintzatzaile*** "berri" bilatu beharko dituzte (edo bilatu beharko zaizkie), haien ingurune naturalen batean bereziekin harremana dutenak.
- Bestalde, aukera dagoenean ***ulertzaileen*** hurbilekoak diren ***mintzatzaileak*** hautatzeko, lehenetsiko ditugu *Ulerrizketa* bidez bere ikaste- eta erabiltze-prozesua jarraitzeko interes eta aukera gehien duten taldeko *ulertzaileen* hurbileko *mintzatzaileak*.
  - Eta nola jakin nork duen interes eta aukera gehien? Esperientziaren 50. ordu inguruan galdetu egingo diogu kideei interes horren inguruan, baina ordurako guk ***mintzatzaileak*** aspaldi hautatuta izango ditugu (eta dagoeneko taldean saio batzuk eginda). Beraz hautaketa hori -puntu honetan aipaturiko aukera hori dagoenean; beti ez da egongo- lehenago egin beharko dugu.
  - Interes eta aukera hori baloratzeko, ***trebatzaileari*** galdetuko diogu bere iritzi subjektiboa, eta irizpide hori hartuko dugu aintzat.
- ***Mintzatzaileak*** bilatzeko eta hautatzeko beste irizpide bat gogoan izan ~~dezakegute~~ pertsonaren malgutasuna edo egokitzeko gaitasuna da; izaera mailan, nolabait.

* "Natural"-ekin hemen adierazi nahi dugu harreman bat dutela ez ~~diagnosi~~ zerikusirik *Uler-saioak* esperientziarekin. Hau da, *Uler-saioen* aurretik ~~batzuek~~ nolaba beko hurbileko harremana, eta *Uler-saioak 3* amaitutakoan ere izango dutela.

www.soziolinguistika.eus

Aldahitz Ikerketa 2024

- Esaten dugu *Ulerrizketa*, neurri handian, lan "~~soziabeziaa~~" dela, eta ariketa erpatikoa eskatzen duela bi aldeetatik: bestearen lekuan jarri, gure adierazteko modua haren ulertzekora hurbiltzen saiatu...
- Noski, ez da beti erraza halako gaitasunak nork dituen jakitea, eta noski ez gara hasiko balizko ***mintzatzaileen*** "~~empatia~~-mailaz" azterketak egiten, baina, besterik gabe, bada irizpide lagungarri bat arduradunak kontuan har ~~dezakeena~~, eta lagungarri suerta daitekeena ***mintzatzaile*** egokiak topatzeko.

4) Mintzatzaile-kopurua, eta "txandak"

- ***Mintzatzaileak*** taldean sartzeko "txanda" kontzeptua erabiliko dugu, eta txanda bakoitzean ***mintzatzaile bikote*** bat sartuko da *Uler-saioetako* taldean (5 lagun edo gutxiagoko talde txikietan izan ezik; horietan kide bakarra sartuko da).
  - "Txanda" esango diogu ***mintzatzaileak*** taldean sartu, *mezua helburu estrategian*, edo *Ulerrizketa estiloan* nola aritzen den ikasi, eta jarraian haiek ***mintzatzaile*** gisa ***ulertzaileekin*** praktikatzeko tarteari.
  - *Uler-saioak 3* metodologiako 3 saio hartuko du "txanda" bakoitzak, eta hau izango da saio horietako bakoitzean nagusiki ***mintzatzaileek*** egingo dutena:
    - 1. saioan: *mezua helburu estrategian*, edo ~~Ulerrizketan~~ nola egiten den ikusi, eta ikasi, nagusiki ***trebatzaileak*** eta ***ulertzaileek*** haien artean nola egiten duten ikusita.
    - 2. saioan, haiek ariko dira ***mintzatzaile*** lanetan taldeko ***ulertzaileekin***, ***trebatzaileak*** gidatuta edo lagunduta (gaiak erraztu, aholkuren bat behar bada...).
    - 3. saioan ere berdin, ***mintzatzaile*** gisa aritu, ***trebatzaileak*** gainbegiratuta eta lagunduta.
- "~~Txanda'ren~~ definizio honetan erreferentzia gisa hartzen dugu *Uler-saioak 3*-ren formatu estandarra, hau da, astean bi orduko bi saiokoa. Hala, ***mintzatzaileen*** "txanda" bakoitza 2 orduko 3 saiokoa izango da.
  - Hala, ***mintzatzaile*** gisa aritzea proposatzen ~~diogu~~ kideei eskatzen diogu 2 orduko 3 saio horietarako laguntza (gutxira, 6 ordu). Ordu horietatik kanpo, lankidetza honek ez die bestelako lanik eskatuko: ez aurrez begiratu beharreko materialik, ez prestaketarik eta ez ondorengo saiorik.
  - Formatu estandarraz aparteko ordutegi/egutegiak dituzten taldeetan (saio laburragoak...), "txanda" bakoitzerako erreferentzia aipatu 6 ordukoa izango da, baina kasu horietan ***trebatzaileearekin*** kontrastatuko da aldez aurretik nola antolatu "~~txandak~~", eta horren arabera egingo zaie proposamena balizko ***mintzatzaileei***.

www.soziolinguistika.eus

- *Uler-saioak 3* esperientzia bakoitzean ***mintzatzaileen*** bi txanda sartuko dira saioetan, bakoitzean (ahal dela) ***ulertzaileen*** ingurune hurbileko bi ***mintzatzaile*** bikote (guztira, 4) sartuko dira. Modu horretan, ***ulertzaileek*** aukera izango dute mezua helburu estrategia 4 ***mintzatzaile*** ezberdinekin praktikan jartzeko.
  - ***Mintzatzaile***-bikote bakoitzaren "txanda" 3 saiokoa izanik (guztira, 6 ordu), orotara mintzatzaileak taldean ariko dira 12 orduz.
  - Hala, sarrera hau esperientziaren 40. ordu inguruan izango denez, eta esperientziaren azken saioa kenduta (egokia ez ~~ützaiookoika~~), ***mintzatzaileak*** taldean ariko dira esperientziaren 40. eta 58. orduen artean dauden 18 ordu horietatik 12 ordutan. Hau da, 40. ordutik aurrera, ordurik gehienetan ***mintzatzaileak*** tartean izango dira, baina ez ordu guztietan.
    - 40-58 orduen arteko bitarte horretan ***mintzatzaileak*** zein saio zehatzetan aritu taldearen arduradunak eta ***trebatzaileak*** koordinatuko dute haien artean. Besteak beste, kontuan hartuko dituzte horretarako ***mintzatzaileen*** egutegi/ordutegi-aukerak, eta ***trebatzailearen*** irizpidea.
- Gorago aipatu bezala, taldea txikia denean, 5 kide edo gutxiagokoa, prozesua berdin egingo da, baina ***mintzatzaileak***, bikote bat izan ordez, bakarra izango da.
  - Kasu horretan, arduradunak, talde horretarako 4 ***mintzatzaile*** bilatu beharrean, 2 ***mintzatzaile*** soilik lortu beharko ditu.
- Guneren batean ***ulertzaileen*** hurbilekoak diren ***mintzatzaile*** egokiak lortzeko zailtasunak baldin badaude, bi txanda antolatu beharrean, txanda bakarra antolatu beharko da (4 izan ordez, 2 ***mintzatzaile*** soilik).
  - Kasu horretan, talde horretako ***ulertzaileek mintzatzaileen*** txanda bakarra izango dute eta, bistan da, praktikatzeko eta hiztun ezberdinetara egokitzeko aukera ~~ugariagoa~~ izango dute.
  - Hala gertatzen den kasuetan, ***trebatzaileak*** intzidentzia gisa jasoko du hori esperientziari buruzko informazioan.

5) Epea eta urratsak

- Erreferentzia modura, ***mintzatzaileak*** sartuko dira *Uler-saioak 3* esperientziaren saioetan 40. ordu inguruan.
- Ordurako, honako urrats hauek emanda izan beharko ditu arduradunak:
  1. (balizko) ***Mintzatzaile*** egokien lokalizazioa.
  2. Haiekiko harremana egitea, proposamena luzatu eta haien baiezko erantzuna jaso. Erantzuna ezezkoa bada, beste batzuengana jo beharko dugu, behar dugun ***mintzatzaileen*** taldetxoa osatu arte.
  3. Esperientziaren gunearen eta erakundearen arabera, beharrezko bada, erakundeko arduradunen oniritzia; bereziki, ***mintzatzaileak*** *Uler-saio* horietan sartzen direnean lan-orduetan egingo badute.

Aldahitz Ikerketa 2024

  4. Ordutegi aldetik posible izatea. Bistan da, ez da bakarrik beharrezkoa ***mintzatzaileak*** ezaugarri egokiak izatea eta saioetan parte hartzeko prest egotea; beharrezkoa da ere ***mintzatzaile*** horrentzat *Uler-saioak* egiteko taldeak dorablen ordutegian aritu ahal izatea.
- Gauzak ondo, *Uler-saioak 3*ko taldea esperientziako ~~40. ordura heldu baino aste bete lehenago~~, guneko arduradunak emanda izan beharko ditu goiko urrats hauek, eta ~~Aldahitzeko~~ ikerketa taldeari adierazita.

6) Bestelakoak

- ***Mintzatzaileei*** proposamena egiteko, taldeko arduradunak aurkezpen-dokumentu labur bat izango du eskura, erreferentzia gisa erabiltzeko.
- Dokumentu honekin batera helarazten zaio esperientziaren arduradunari aurkezpen-dokumentu labur hori.

www.soziolinguistika.eus

10.4 MINTZATZAILEAK TALDEETAN. INFORMAZIOA

Ulertzaileekin euskara erabiltzeko prest zaude?

Ulertzaile deitzen zaie ***Uler-saioak metodologia***ren bidez euskararen ulermena garatzen ari diren kideei. Metodologia hori euskaraz batere ulertzen ez duten pertsonei ("0 maila") edo (oso) gutxi ulertzen dutenei zuzendua dago, eta ahalik eta eperik laburrenean euskara ulertzera iristeko aukera ematen die.

Ingurune babestu batean egiten dira saioak (gela batean, ordutegi baten barruan, hizkuntza-soslai bera duten beste kide batzuekin batera eta irakasle/*trebatzaile* bat gidari), baina ez dira euskara-eskola arruntak.

Uler-saioak ez da ohiko metodologia bat. Ahozko euskara ahalik eta eperik laburrenean ulertzera iritsi ahal izateko, ulermen horren garapenean jartzen du bere arreta ia guztia, eta, beraz, ez ditu lantzen beste hiru trebetasunak: euskaraz irakurtzea, idaztea eta hitz egitea.

Ulermen horretan aurreratu ahala, ***Uler-saioak***-ek proposatzen du halaber dinamika eraginkor bat, ulertzaileari (aurrerago) euskara erabiltzera iristeko ere balioko diona. Horretarako, tarteko urrats gisa, *ele biko elkarrizketak* baliatzen ditu.

Hala, metodologiak aurreikusten du, hiru saiotan, ulertzaileei **euskaraz modu errazean egingo dieten kide**ek parte hartzea. Kide horiei *mintzatzaile* deitzen zaie.

Mintzatzaileen bidez, ulertzaileei aukera ematen zaie maila praktikoan eta ingurune babestuan probatzeko, euskara erabiltzen joateko prozesuaren hurrengo urratsa. Saioen aurretik ez zaie lanik eskatuko mintzatzaileei.

Uler-saioak metodologia esperimentazio-fasean dago. 2023-2024 epealdiko esperientzia pilotuetan aztertuko da ea saioetan parte hartzen duten ulertzaileek dinamika berritzaile hau jarrai dezaketen eguneroko harremanetan. Horretarako, ikerketari begirako datu-jasoketak egingo dira.

Mintzatzaile izan nahi?

Beharrezkoa da honako baldintza hauek betetzea:

- **Euskaraz ongi hitz egitea:**
  - euskaraz erraztasunez aritzeko gaitasuna
  - hizkera egokitzeko adinako gaitasuna
- Posible bada, komeni da *Uler-saioak 3* esperientzian parte hartzen ari diren ***ulertzaileetako* batekin (gutxienez) hurbileko harremana** izatea, ingurune natural batean (lanean, lagun-taldean, jardueraren baten inguruan...), baina ez da ezinbestekoa.
- **Laguntzeko prest egotea**
  - 3 saio izango dira, 2 ordukoak; guztira 6 ordu.
  - Ulertzaileei lagunduko diezu euskara ikasteko prozesuan, baina zuretzat ere esperientzia berri bat eta ikasketa bat izango da!

Uler-saioak metodologia (Aldahitz Ikerketa). Esperientzia pilotuak 2023-2024

- *Metodologiaren sortzailea:* Pello Jauregi Etxaniz (EHUko ikerlaria)
- *Metodologiari buruzko xehetasunak:* Jauregi, Pello (2020). *Uler-saioak metodologia. Ulermena garatzeko estrategia soziolinguistikoa*. Soziolinguistika Klusterra. Argitalpen elektronikoa.
- *Informazio gehiago:*
  - https://www.lavanguardia.com/local/paisvasco/20211030/7827189/posible-entender-euskera-60-horas.html
  - https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20211203/una-metodologia-pionera-para-aprender-euskara-en-60-horas
  - www.soziolinguistika.eus/aldahitz

10.5 MINTZATZAILEAK TALDEETAN SARTZEA. FORMAZIOA

Aldahitz IKERKETA

ULER-SAIOAK METODOLOGIA

ULERMENA GARATZEKO ESTRATEGIA SOZIOLINGUISTIKOA

Formakuntza-ikastaroa 2023-2024

Mintzatzaileak Uler-saioak 3 taldeetan sartzea

Aldahitz Ikerketa-taldea
Uler-saioak – Aditu-taldea

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2024-01-19

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Gaurko saioa

1. **Azalpena (1:10')**
   a) Kokapena
   b) *Mintzatzaileak* sartzea: helburua, noiz, zein profil…
   c) *Ulerrizketa*. Ezaugarri nagusiak
   d) Saioen antolaketa, irizpideak, ariketak…
   e) Info osagarria (aukera)
2. **Talde-elkarrizketa (30 min)**
   a) Zalantzak, aukerak…

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Uler-saioak esperientziak 2023-2024. Esperientzien ikerketa eta jarraipena txostena

3.4.1. atala (17 or.)

3.4.1 Uler-saioak 3: mintzatzaileak

Uler-saioak 3 zikloaren kasuan, esperientziaren 40. ordu inguruan, ***mintzatzaileak*** inkorporatuko dira esperientziara. Hortik aurrera, taldeko ***ulertzaileak*** eta taldera etorritako ***mintzatzaileak*** zuen gidaritzapean hasiko dira saioetan *Ulerrizketa* praktikatzen, egoera eta gune "babestuan".

Inkorporazio eta egoera babestuko praktika honen helburua da, behin *Uler-saioak 3* esperientzia amaituta, euren ingurune naturaletan (lantokia, hurbileko harreman-sarea…) *Ulerrizketa* esperientzia bat egin nahi dutenei horretarako bidea prestatzea.

Mintzatzaileak *Uler-saioak 3* taldean inkorporatzeko urratsa hau esperientzia honen "taldeko arduradunak" koordinatu eta antolatuko du (ikus [illegible]).

Bestalde, ***ulertzaile-mintzatzaile*** dinamika hau nola antolatu zehazteko, eta *Ulerrizketa*ren nondik norakoak gogora ekartzeko (funtsean "mezua helburu" | komunikazio-estrategiaren garapen bat da), trebatzaile guztiontzat formazio-saio bat egingo dugu 2024ko urtarrilean.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Aldahitz ikerketako hiru metodologiak

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Mintzatzaileak Uler-saioak 3 taldeetan sartzea

Helburuak

1. *Ulertzaileei* aukera ematea ***mezua helburu*** komunikazio-estrategia **beste hiztun batzuekin** probatzen hasteko, trebatzailearen laguntzarekin eta ingurune babestuan.
2. **Hizkuntza-ohituren aldaketa**ren ikuspegitik, **hurrengo urratsa** eman nahi duenari bidea erraztea: *Uler-saioak* amaitzean, bere inguruko norbaitekin ***Ulerrizketa***-n aritzeko lehen praktika eta bizipena izatea.
3. Taldean sartzen diren *mintzatzaileei* aukera ematea *Ulerrizketa* estiloan hitz egitea zer den **ikasten hasteko**, praktika labur baten bidez.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Mintzatzaileak sartzea; hurrengo urratsa emateko bidea erraztu



Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Mintzatzaileak taldeetan sartzea. Zenbat? Noiz?

- *Uler-saioak 3* zikloaren azken partean: 40 eta 60. orduen artean.
- Bi "txanda", bakoitzean bi mintzatzaile. Txanda bakoitza, Uler-saioetako hiru saio.
- Txanda bakoitza (3x2 =) 6 ordu. Bi txanda izanik (6x2 = 12), *Uler-saioak 3* zikloaren 40 – 58 orduen arteko 18 orduetatik, 12 mintzatzaileekin.
- Talde txikietan (5 kide edo gutxiago), "txanda" bakoitzean, 2 *mintzatzaile* ordez, bakarra sartuko da.
- *Mintzatzaileak* lortzeko zailtasunak badaude, bi "txanda" egin ordez, bakarra egin beharko da.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Mintzatzaileak. Nortzuk izango dira? Zein profiletakoak?

- Taldean sartuko diren *mintzatzaileak* lokalizatu, proposamena egin, eta abar, esperientziaren arduradunak.
- Arduraduna zuekin koordinatuko da ordutegi/egutegi kontuetarako, eta (behar bada) kideak hautatzeko.
- *Mintzatzaileen* profila:
  - Euskaraz ongi hitz egin (≈ C1) + hizkera egokitzeko gaitasuna.
  - Borondatez, parte hartzeko prest.
    - Ez dira adituak!! (ez talde dinamikan, ez *Ulerrizketan*)
  - (ahal bada) *Ulertzaileen* ingurune natural batekoak (lankide…).
- *Ulertzaileen* inguruko *mintzatzaileak* hautatzeko, aukera badago, lehenetsi zuen ustez jarraitzeko interes/aukera gehien dutenak.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Ulerrizketa metodologia — **Zer da?**

- Aldahitz metodologia. Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak errazteko (eta ikertzeko)
- Bi profil: a) Tarteko ulermena (≈ B1) [*ulertzailea*] + b) Euskaraz ongi hitz egin (≈ C1) [*mintzatzailea*]
- Gurpil zoro bat hautsi nahi: tarteko ulermena duenari inork euskaraz egin ez!
- Borondatezkoa. Talde erabakia. Jokaera berri eta "arraro"ari eremu bat sortu.
- Lan kolaboratiboa (bi rolek lan aktiboa eta ikasketa).

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Ulerrizketa metodologia — **Ezaugarri nagusiak**

Ulerrizketa metodologia (2019) - 3.1. "Oinarrizko ideia" (32-35 or.)

1) *Euskara-gaitasun altuko hiztunen eta gaitasun ertaineko hiztunen arteko euskarazko komunikazioa.*
2) *Ingurune naturaletan ematen den komunikazioa.*
3) *Ele biko elkarrizketak maiz dituena (uler-jarioan jardun).*
4) *Hizkera egokitua erabiltzen duena (uler-sintonia erregulatu)*
5) *Jokaera egiaztatzailea erabiltzen duena (uler-kontrola eduki).*
6) *Hizkera malgua erabiltzen duena (uler-trabak gainditu).*

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Saioak mintzatzaileekin

- Helburua:
  - *Ulertzaileei* aukera ematea ***mezua helburu*** komunikazio-estrategia **beste hiztun batzuekin** probatzen hasteko, ingurune babestuan.
  - *Mintzatzaileei* aukera ematea *Ulerrizketa* estiloan hitz egitea zer den **ikasten hasteko**.
- Adi: bolondresak dira. Ez dira adituak; ez talde-dinamikan, ez *mezua helburu* komunikazio-estrategian...
- Trebatzailearen laguntza, uneoro. Tentsioa kendu (borondatezko praktika bat), lotsa, segurtasun-falta…: lagundu!
- Mintzatzaileak ahotsa, gidaria trebatzailea.
- Proba da. Trebatzaileen laguntza + ikerketa

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Formazioa (urria): 1. saioa (23-10-06)

MEZUA HELBURU KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA

Ulertzaileak mezua, esandakoaren ideia nagusia ulertzea izango da helburua, eta ez hitzez hitzeko ulermena.

Horretarako, euskara erraza erabiliko dugu, ulertzaileak ulertu duen konprobatu eta ez badu ulertu mezua birformulatuko dugu. Alegia, beste modu batez esango dugu.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Formazioa (urria): 1. saioa (23-10-06)

MEZUA HELBURU KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA

Euskara erraza / hizkera egokitua

a) Input ulergarria: ulertzaileen hizkuntza-baliabide ia berberak (%90) erabiliko ditu trebatzaileak hitz egitean (kontrol-sentsazioaren eta erronka-sentsazioaren arteko orekaren bila). Hiztunaren arreta erakarri behar du trebatzaileak eta input-ak osoa behar du izan.

b) Input ulergarria aukeratzeko trebatzaileak ulertzailearekin sintonizatu behar du: trebatzaileak bere hizkera egokituko du, ulertzaileak gehien-gehiena ulertu arte.

-Esaldi motzak eta ahoskera garbia eta poliki hitz egin

-Esalditik esaldira isilune motzak egin, konprobatzeko ulertzaileak zer ulertu duen.

-Doinuak eta keinuak areagotu

-Trebatzaileak beste modu batean esango du esaldian ulertu ez dena, hizkuntza-forma zehatzetan tematu gabe.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Formazioa (urria): 1. saioa (23-10-06)

ULERMENA EGIAZTATZEA

a) Trebatzaileak ulertutakoaz galdetu behar du, etengabe: "Ulertu duzu?", "Zer ulertu duzu?"

b) Ulertzaileak ulertutakoa laburtu behar du oso maiz

c) Ulertzaileak ulertutakoa itzul lezake (gaztelaniaz)

D) Ulertzaileak elkarrizketari lotu dakioke harira datozen iruzkinak eginda

E) Ulertzaileak eskatu dezake zer behar duen hobeto ulertzeko

F) Egiaztatze inezpezifikoak saihestu behar dira

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Formazioa (urria): 1. saioa (23-10-06)

EUSKARAREN ETA ERDARAREN ERABILERA

a) Trebatzaileak euskaraz besterik ez du egingo

b) Ulertzaileek aukeratuko dute erdaraz ala euskaraz egitea

c) Ulerrizketaren helburua betetzeak (ulertzaileek zer ulertu duten egiaztatzea) lehentasuna izango du ikasleek euskaraz hitz egitearen gainetik

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Formazioa (urria): 1. saioa (23-10-06)

KOMUNIKAZIO-FORMATUAK

a) Aurrez aurreko komunikazioa izango da, entzungailurik erabili gabe

b) Albisteak

c) Informazio labur eta zehatzak

D) Kontakizunak

E) Elkarrizketak

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Saioen antolaketa, irizpideak, ariketak…

- 2 txanda, 3 saiokoak.
- 1. saioa:
  - Ongi etorria eta azalpena (zertara datoz…) (20 min)
  - Eskertza, giroa, tentsioa kendu
  - Ariketekin hasi
- 1. saioan, nagusiki behatzaile: trebatzailearen eta ulertzaileen egiteko moduak ikusi, ulertu…
- 1. saioan bertan, mintzatzaileak praktikan hasi? Baloratu (giroa, haien jarrera, izaera…).
- 2. eta 3. saioak: trebatzailea gidari eta mintzatzaileak/ulertzaileak praktikan.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Saioen antolaketa, irizpideak, ariketak…

- Trebatzaileak lagundu eta mezua helburu-rako aholkuak.
- Trebatzaileak banatu arreta-gunea eta zein ulertzailek ulertu/konprobatu.
  - Talde txikitan jartzeko aukera
- Mintzatzaileei (+ Ulertzaileei) **aholkuak**, oharrak…:
  - Saioetan bertan (oreka: zuzenketa, tentsioa, giroa…)
  - Saioaren ondoren / aurretik (labur, aholku/ideia nagusiak)
- Mintzatzaileek erabiltzeko **materialak** (albisteak, elkarrizketa-gaiak, kontakizun-aukerak, ikus-entzunezkoak…) trebatzaileek prestatuko dituzue.
- Materialak prestatzeko, aukerak:
  - *Ulerrizketa metodologia*. 4.3.- Formazioa. Ariketen azalpena eta materiala (76-97 or.)
  - *Uler-saioak 3*, trebatzaileek partekatuak

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Formazioa (urria): 1. saioa (23-10-06)

GAIAK NONDIK ATERAKO DITUGU

- Egunkaria informazio-iturri gisa erabiltzearen abantailak
- Ulertzaileen interesguneak ezagutu eta kontuan hartu
- Bestelako informazio-iturriak: ikus-entzunezko materialak

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Formazioa (urria): 1. saioa (23-10-06)

BIDEOA

- https://drive.google.com/file/d/1Hk2Yu512TeiWFDBg3U5fUhRKTy_r8z2A/view?usp=drive_link

Zer egin du trebatzaileak? Nola egin du trebatzaileak?

Zer egin du ulertzaileak? Nola egin du ulertzaileak?

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Saioen antolaketa, irizpideak, ariketak…

Talde-elkarrizketa
➢ Zalantzak, aukerak…

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Ulerrizketa metodologia

***Mintzatzailearen* eta *ulertzailearen* egitekoak, funtzioak eta arriskuak**

Ulerrizketa metodologia, 3.8.2 (66 or.)

ULERRIZKETAREN ATALAK, FUNTZIOAK ETA ARRISKUAK

1) JARDUTEA
Mintzatzailea → Euskaraz jardun nagusiki
Ulertzailea → Komentario egokiak egin euskaraz edo erdaraz
Arriskua: Bakarrizketan aritzea

2) SINTONIZATZEA
Mintzatzailea → Euskara ulergarria erabili
Ulertzailea → Eskatu zer behar duzun
Arriskua: Ezin ulertzea

3) ZIURTATZEA
Mintzatzailea → Galdetu besteari zer ulertu duen
Ulertzailea → Konprobatu zer ulertu duzun
Arriskua: Orokorregi ibiltzea

4) ARGITZEA
Mintzatzailea → Berregin esaldia erdararra pasa gabe
Ulertzailea → Argitu zer ez duzun ulertu
Arriskua: Zehatzegi ibiltzea

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Ulerrizketa metodologia "Txartelak"; *Ulerrizketa metodologia*, 8.2 (124-136 or.)

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Zuzendaria: Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)
Ikerlaria: Maialen Iñarra Arregi (Soziolinguistika Klusterra)
Aholkularia: Pello Jauregi Etxaniz (UPV/EHU)

Proiektuan partaide:

Proiektuan partaide eta babesle:

Proiektua lankidetzan:

10.6 ULER-SAIOAK. ITZULKETA TXOSTENA

Aldahitz
ikerketa

ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Esperientzia pilotuak 2023-2024
Itzulketa-txostena

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

Gunea: **X gunea**

Data: **2024ko uztaila**

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Aurkibidea

1. Uler-saioak metodologia
2. Esperientzien ikerketa-helburua
3. Itzulketa-txosten honen helburua
4. Esperientzia-fitxa: X gunea
5. Ulermenaren aurrerapena: X gunea
6. Esperientziaren balorazioa: X gunea
7. Hurrengo urratsak

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Uler-saioak metodologia: zertaz ari gara?

Uler-saioak metodologia euskaraz batere ez dakiten edo oso gutxi ulertzen duten kideek, komunikazio naturalaren bidez, **euskararen ulermena garatzeko diseinatutako metodologia da**, eta momentuz esperimentazio eta ikerketa fasean dago.

Helburua da norbanakoek **ahalik eta eperik laburrenean euskara ulertzeko** gaitasuna eskuratzea, euskarazko harremanetan (*ele biko elkarrizketen* formatuan bederen) murgiltzeko aukera izan dezaten, kalean, lanean eta ingurune naturaletan.

Metodologia ingurune babestu batean garatzen da: gela batean, ordutegi baten barruan eta hizkuntza-soslai bera duten beste kide batzuekin batera. Bertan, irakasle (*trebatzaile*) batek **euskarazko *input ulergarri* ugari ematen die** kideei (*ulertzailei*).

Jauregi, Pello (2020). *Uler-saioak metodologia. Ulermena garatzeko estrategia soziolinguistikoa*. Soziolinguistika Klusterra. Argitalpen elektronikoa

---

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Uler-saioak metodologia: zikloak

Uler-saioak metodologia. Zikloak, eskola-orduak eta hasierako/amaierako ulermen-mailak euskaraz				
	Metodologiaren zikloak	**Eskola-orduak**	**UM-has**	**UM-buk**
Uler-saioak metodologia	Uler-saioak 1	30	A0	A1
	Uler-saioak 2	30	A1	A2
	Uler-saioak 3	60	A2	B1
		120		

- [UM-has]: euskaraz ahozkoaren ulermenean ikasleen maila, hasieran.
- [UM-buk]: euskaraz ahozkoaren ulermenean ikasleen maila, bukaeran.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Uler-saioak metodologia: erabilerari begira

Metodologia hau erabat **ulermenean fokalizatua** dagoen arren, **erabilerara zuzenduriko bokazio argia du**. Hala, 3. zikloan, ikasleei euskaraz modu errazean egingo dieten kideak inkorporatzen dira saioetara (*mintzatzaileak*). Bertan, trebatzailearen laguntzaz, ikasleei euskara modu errazean egiteko dinamika abiatzen dute, euskaraz egiteko ohitura hartuz (*Ulerrizketa*).

Modu horretan, ***Uler-saioak metodologia*** amaiturik, ikasleari aukera ematen zaio bere harreman-sare naturaletan euskaraz hitz egitera eramango duen prozesuarekin jarraitzeko.

Jauregi, Pello; Suberbiola, Pablo (2019). *Ulerrizketa metodologia. Gaitasun ertaina dutenekin euskaraz aritzeko bide bat*. Soziolinguistika Klusterra. Argitalpen elektronikoa

---

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Esperientzien ikerketa-helburuak (2023-2024)

1. Uler-saioak metodologiaren bidez, ikasleek euskarazko ahozko ulermenean **aurreikusitako ulermen-maila eskuratu dutela egiaztatzea**:
   a) Uler-saioak 1: A1 maila eskuratu duten aztertzea
   b) Uler-saioak 2: A2 maila eskuratu duten aztertzea
   c) Uler-saioak 3: B1 maila eskuratu duten aztertzea
2. Esperientzien ezaugarrien arabera ikasleen **ulermen-aurrerapenak zer nola aldatzen diren aztertzea**:
   a) Esperientzien bilakaeraren arabera
   b) Taldearen ezaugarrien arabera
   c) Trebatzailearen ezaugarrien arabera
   d) Ikasle profilaren arabera
3. Esperientziaren **balorazio kualitatiboa** ezagutzea (ikasleena nahiz trebatzaileena)
4. *Uler-saioak 3n*, hurbileko harreman sareko kide batzuekin *Ulerrizketa* dinamika abiatu den aztertzea

---

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Itzulketa-txosten honen helburuak

Esperientzia-gunea: *Errenteria [Arratsaldeko taldea]*

1. Txosten honen helburua da esperientzia-gune bakoitzeko arduradunei eta partaideei *Uler-saioak* **esperientziaren garapenari buruzko nondik norako nagusiak helaraztea.**

   Txosten honetan, ez dira esperientziaren emaitzei buruzko ondorio orokorrak jasoko. Aurrerapen modura, esperientzian zehar bildutako **datu hautatu batzuk** bildu dira, esperientziaren balorazioa osatzeko baliagarri izan nahian.
2. Horrekin batera, itzulketa-txosten honen helburua da ere **eskerrak ematea.** Aldahitz Ikerketa proiektu **esperimentala** da eta metodologia berriak garatzeko eta hobetzeko ezinbestekoa zaigu esperientzia pilotuak antolatzeko beste erakundeen **lankidetza**, eta horietan borondatez **parte hartzen** duten kideak. Eskerrik asko!

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Esperientziaren datuak: *X gunea*

Gunea		
Esperientziaren arduraduna	(Arduraduna)	
Esperientzia jarraitzeko aditua	(Aditua)	
Esperientzia gidatzeko trebatzailea	(Trebatzailea)	
Esperientziako partaideak	• Partaideа 1 • Partaideа 2 • Partaideа 3 • Partaideа 4 • Partaideа 5 • Partaideа 6 • Partaideа 7 • Partaideа 8	• Partaideа 1 • Partaideа 2 • Partaideа 3 • Partaideа 4 • Partaideа 5 • Partaideа 6 • Partaideа 7
GUZTIRA	8 ulertzaile	7 ulertzaile
Uler-saioak ZIKLOAK	***Uler-saioak 2***	***Uler-saioak 3***
Hasiera-data	2023/11/09	2024/02/22
Amaiera-data	2024/02/08	2024/05/23
Asteroko ordu-kopurua	2 ordu	2 ordu

ULER-SAIOAK 2 ZIKLOA

Esperientzia-gunea: X gunea

Hasiera-data	2023/11/09
Amaiera-data	2024/02/08
Asteroko ordu-kopurua	2 ordu

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Ulermenaren aurrerapena: *X gunea*

ULERTZAILEAK	AHOZKO EUSKARAZKO ULERMEN-MAILA, ESPERIENTZIA AMAIERAN		ASISTENTZIA-MAILA, ESPERIENTZIAN
	A2 entzumen-probako emaitza (erantzunen % zuzen)	A2 entzumen-trebetasuna, HEOC ebaluazio-irizpideen arabera (1 baxua - 3 altua)	Orduak (%)
Partaidea 1	GAINDITUTA - %84	3	%100
Partaidea 2	GAINDITUTA - %76	3	%86
Partaidea 3	GAINDITUTA - %68	2	%33
Partaidea 4	GAINDITUTA - %68	2	%40
Partaidea 5	GAINDITUTA - %80	3	%53
Partaidea 6	GAINDITUTA - %76	2	%86
Partaidea 7	EZ GAINDITUTA - %28	1	%35
Partaidea 8	Ez da lortu	1	%46

HABE (2015). *Helduen euskalduntzearen oinarrizko curriculuma, HEOC. (A2 maila, 129.or.)*

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Esperientziaren balorazioa: espektatiben betetze-maila

Esperientziaren amaieran ulertzaileek ebaluaziorako galdetegia erantzun zuten; honako hauek izan ziren, besteak beste, aipatutakoak:

"Para poder comprender cuando me hablan en euskera, además de mejorar la integración en el País Vasco"

"Siempre he anhelado saber hablar y entender el euskera"

Zergatik edo nolatan eman zenuen izena Uler-saioak esperientzian?

Ulertzaileei haien helburuak erdietsi ote diren galdetuta, 1-5 eskalan (1 erabat desados - 5 erabat ados), batez besteko puntuazioa 3,3koa izan da. Beraz, **ulertzaileek adierazi dute haien helburuak maila handia batean bete direla.**

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Esperientzien balorazioa: garapena



Ulertzaileen eta trebatzaileen erantzunak kontuan hartuta, **esperientziaren garapena oso egokia** izan da.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Esperientzien balorazioa: aurrera begira

Kalean norbaitek gaur euskaraz egiten badie, aitortu dute **esperientzia hasi aurretik baino gehiago ulertuko luketela.**

Halaber, ulertzaile **guztiek baieztatu dute lagunen bati gomendatuko lioketela** *uler-saioak* metodologia.

"Que sigan ayudando a personas con el anhelo de aprender euskera"

ULER-SAIOAK 3 ZIKLOA

Esperientzia-gunea: X gunea

Hasiera-data	2024/02/22
Amaiera-data	2024/05/23
Asteroko ordu-kopurua	2 ordu
Guztizko ordu kopurua	24 ordu [%40]

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Esperientzien balorazioa: garapena



Ulertzaileen eta trebatzaileen erantzunak kontuan hartuta, **esperientziaren garapena oso egokia** izan da.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Esperientzien balorazioa: aurrera begira



Kalean norbaitek gaur euskaraz egiten badie, aitortu dute **esperientzia hasi aurretik baino gehiago ulertuko luketela.**

Halaber, ulertzaile **guztiek baieztatu dute lagunen bati gomendatuko lioketela** *uler-saioak* metodologia.

"Cuando practicamos las frases más de una vez, te quedan memorizadas"

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Ulermenaren aurrerapena: *Errenteria [Arratsaldeko taldea]*

ULERTZAILEAK	AHOZKO EUSKARAZKO ULERMEN-MAILA, ESPERIENTZIA AMAIERAN		ASISTENTZIA-MAILA, ESPERIENTZIAN
	B1 entzumen-probako emaitza (erantzunen % zuzen)	B1 entzumen-trebetasuna, HEOC ebaluazio-irizpideen arabera (1 baxua - 3 altua)	Orduak (%*)
Partaidea 1	EZ GAINDITUTA - %45	3	%30
Partaidea 2	EZ GAINDITUTA - %45	2	%10
Partaidea 3	EZ GAINDITUTA - %45	3	%40
Partaidea 4	GAINDITUTA - %55	3	%20
Partaidea 5	EZ GAINDITUTA - %45	2	%6,7
Partaidea 6	GAINDITUTA - %70	3	%26,7
Partaidea 7	GAINDITUTA - %50	2	%16,7

(*) 60 ordurekin kalkulatu dira asistentzia-mailak. Dena den, ulertzaileek 24 orduko esperientzia besterik ez dute burutzerik izan.

HABE (2015). *Heldugen euskalduntzearen oinarrizko curriculuma, HEOC.* (B1 maila, 163or.)

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Esperientziaren balorazioa: espektatiben betetze-maila

Esperientziaren amaieran ulertzaileek ebaluaziorako galdetegia erantzun zuten; honako hauek izan ziren, besteak beste, aipatutakoak:

"Para aprender a relacionarme con la gente en el idioma del País Vasco"

"Me apunté porque tenía mucho interés en aprender el idioma, y ha sido una experiencia maravillosa"

Zergatik edo nolatan eman zenuen izena Uler-saioak esperientzian?

Ulertzaileei haien helburuak erdietsi ote diren galdetuta, 1-5 eskalan (1 erabat desados - 5 erabat ados), batez besteko puntuazioa 3,8 koa izan da. Beraz, **ulertzaileek adierazi dute haien helburuak maila handia batean bete direla.**

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Hurrengo urratsak

Gune honetan ez ezik, beste hainbat gunetan antzeko esperientziak gauzatu dira, *Uler-saioak* metodologian oinarritutakoak. Aldahitz Ikerketak esperientzia guztien datuak jaso, aztertu eta ondorio orokorrak ateratzea du helburu.

Horien berri jakin nahi izanez gero, Soziolinguistika Klusterreko webgunera jo: www.soziolinguistika.eus/aldahitz, bertan zintzilikatuko ditugu esperientzien galneko berriak, eta Soziolinguistika Klusterraren azken berriak jarraitzeko, harpidetu Soziolinguistika Albistarira: www.soziolinguistika.eus/albistaria

Eskerrik asko egindako ekarpenagatik, hemendik aurrera ere *Uler-saioak* metodologia garatzen jarraituko dugu.

Aldahitz IKERKETA • ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Zuzendaria: Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)
Ikerlaria: Maialen Iñarra Arregi (Soziolinguistika Klusterra)
***Uler-saioak* metodologiaren sortzailea:** Pello Jauregi Etxaniz (UPV/EHU)
***Uler-saioak* metodologian aditu-taldea:**

- Raul Perez Martinez (AEK)
- Uxue Loinaz Urruzola (Elhuyar)
- Xabi Bosch Urdanibia (Emun)



Uler-saioak metodologiaren Errenteriako esperientziak *Gipuzkoa origune* egitasmoaren abaroan gauzatu dira.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

Proiektuan partaide:

artez · ahize · emun · elhuyar · euskaltzaleen topagunea

Proiektuan partaide eta babesle:

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra · Eusko Jaurlaritza · Gobierno Vasco · Gipuzkoako Foru Aldundia

Proiektua lankidetzan:

Universidad de País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea · EquiLing · HADE

10.7 ULER-SAIOAK. 9 ITZULKETA TXOSTEN

Aldahitz
ikerketa
ULER-SAIOAK
METODOLOGIA
Esperientzia pilotuak 2023-2024
Itzulketa-txostena
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Gunea: Inmakulada Tolosa
Data: 2024ko ekaina

10.8 ULER-SAIOAK 2023-2024. ESPERIENTZIEN EBALUAZIOA



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2024ko azaroa

ALDAHITZ IKERKETA

Uler-saioak 2023-2024 esperientzien ebaluazioa

Aldahitz Ikerketa 2024

1 SARRERA

Taxoten hometan, 2023 eta 2024. urteetan egin diren Uler-saioetako esperientzien ebaluazioa jasotzen da. Irebatzaileek eta ulertzaileek egindako ebaluazioak, hain zuzen ere.

Ondorengo taulan, esperientzia hauen inguruko informazio orokor bat agertzen da: zein taldeetan eta udalerrietan egin diren esperientzia hauek. Uler-saio bakoitza zein zikloetak hartzen den (1. 2 edo 3) eta noiztik nora garatu diren.

	TALDEA	Udalerria	Uler-saioak	HASIERA-DATA	AMAIERA-DATA	Uler-saioak	HASIERA-DATA	AMAIERA-DATA
1	Beasain ostalariak	Beasain	Uler-saioak 2	Azaroak 6	Urtarrilak 15	Uler-saioak 3	Urtarrilak 17	Ekainak 3
2	SOS Kaldokide nahasita (Goiza)	Ermua	Uler-saioak 1	Azaroak 7	Urtarrilak 18	Uler-saioak 2	Otsailak 15	Martxoak 21
3	SOS Kaldokide nahasita (Arratsalde)	Ermua	Uler-saioak 2	Azaroak 9	Otsailak 13	Uler-saioak 3		
4	EDE Fundazioa	Bilbo	Uler-saioak 3	Azaroak 9	Martxoak 12			
5	Edarfil Becker	Legorreta	Uler-saioak 1	Urtarrilak 8	Martxoak 13			
6	EJIE	Gasteiz	Uler-saioak 1	Urtarrilak 29	Martxoak 18	Uler-saioak 2	Apirilak 8	Ekainak 29
7	Athletic Club	Lezama	Uler-saioak 1	Apirilak 8	Ekainak 11			
8	Inmakulada Ikastetxea	Tolosa	Uler-saioak 1	Apirilak 8	Ekainak 3			
9	Danobat Group	ONLINE	Uler-saioak 1	Apirilak 23	Ekainak 27			

www.soziolinguistika.eus 2

2 ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA

Esperientzia bakoitzean ibilbideko ulertzaile eta irebatzaileei galdetegi bat prestatu zitzaien (ikus 3.1 eta 3.2 atala). Galdetegietako galderak hiru azpiataletan sailkatu dira: esperientziaren garapena nolakoa izan den, aurrera begira ulertzailek zer espero duten eta euren espektatiben betetze-mailaren inguruko helburuak bete diren ala ez.

2.1 GARAPENA

Ulertzaile zein *irebatzaileen* erantzunak kontuan hartuta (1 erabat desados izanik eta 5 erabat ados), batez-beste 4,3ko puntuazioa ateratzen da. Beraz, esan daiteke esperientziaren **garapena** egokia izan dela.

Ondorengo diagraman, garapena ezartzeko kontuan izan beharreko galderak agertzen dira. bakoitza bere batez-besteko puntuazioarekin.

www.soziolinguistika.eus 3

Aldahitz Ikerketa 2024

2.2 AURRERA BEGIRA

Etorkizunean ulertzaileek beraien burua nola ikusten duten azterzeko, **aurrera begira** deritzon atala sortu da. Bertan, galdetegietako bi galdera nagusi hartu behar dira kontuan eta horretarako, azpiko diagraman ikus daiteke galdera bakoitzaren erantzunekin osatutako batez-besteko puntuazioak.

Beraz, esan daiteke lalean norbaiteki gaur euskaraz egiten badie, esperientzia hasi aurretik baino gehiago ulertuko luketela.

www.soziolinguistika.eus 4

Aldahitz Ikerketa 2024

2.3 ESPEKTATIBEN-BETETZE MAILA

Ulertzaileen **espektatiben betetze-maila** aztertu ahal izateko, galdera honetan jasotako erantzunak aztertu dirai: "Zergatik edo nolatan eman zenuen izena Uler-saioak esperientzian?".

Jarraian, taldez-talde esperientzia bakoitzean jasotako erantzun esanguratsuak ikus daitezke:

1. Beasain Ostalariak
   - "Para poder socializar, entender y expresarme en euskera."
   - "Porque quiero integrarme y aprender euskera."
   - "Quise aprender un poco más el euskera porque me ayuda a entender en mi trabajo."
   - "Para aprender y comprender mejor el idioma."
2. SOS Kaldokide nahasita (Goiza)
   - "Me apuntó porque me gustaría comprender cuando te hablan en euskera, además siento que es una forma de inclusión".
   - "Tengo grandes esperanzas de completar los cursos restantes."
3. SOS Kaldokide nahasita (Arratsaldea)
   - "Para poder comprender cuando me hablan en euskera, además de mejorar la integración en el País Vasco."
   - "Siempre he anhelado saber hablar y entender el euskera."
4. EDE Fundazioa
   - "Me pareció muy interesante el método y se adaptaba muy bien a mi trabajo/vida personal. Quería reencontrarme con el idioma pero de una manera diferente a como lo había estudiado."
   - "Mejorar mi nivel de comprensión para ir incorporando capacidad de expresión."
   - "Es un espacio de oportunidad, en el que aprender y poder conversar de forma natural. Desde la práctica y sin la obligación de tener que realizar tareas o ejercicios fuera de las horas lectivas."

www.soziolinguistika.eus 5

Aldahitz Ikerketa 2024

5. Edarfil Becker
   - "Para aprender lo básico."
   - "Para saber mas el euskera."
6. EJIE
   - "Aprendizaje de unas bases del Euskera."
   - "Para comprender mas lo que escucho en euskera en cualquier ambiente, medio de comunicación."
   - "Para probar si conseguía tener un nivel mínimo de comprensión en una conversación en euskera."
7. Athletic Club
   - "Por responsabilidad y por interés."
   - "Para que me permita entenderme con el resto de personas y poder iniciar a mi hija en el euskera, no desde mi conocimiento (porque igual no lo tengo), pero si, para fomentarle interés por el mismo."
   - "Ojalá pudiéramos seguir con esta misma dinámica en septiembre."
8. Inmakulada Ikastetxea
   - "Es algo muy bueno para la comprensión del euskera."
   - "Quiero aprender euskera al 100%, y así poder trabajar en lo que me gusta."
   - "Para aprender y poder incluirme al entorno."
9. Danobat Group
   - "Para empezar a comprender el idioma y poder seguir algunas conversaciones de compañeros de trabajo y amigos."
   - "Porque tenía un nivel muy muy muy muy básico y quería llegar a entender conversaciones básicas."
   - "Por tener un primer contacto con el euskera."

www.soziolinguistika.eus 6



Alpu guzti hauetatik atera daitekeen ondorio nagusia honako hau litzateke: Ulertzaileen **espektatibak**, gehienbat, arlo sozialarekin lotzen direla. Hau da, euskara ikastea nahi gisa ulertzen da eta ez hainbeste behar bezala: izan ere, euskara menperatzeak, gizartean edo norbere ingurune sozialean integratuago sentitzera eramaten du ulertzailea.

2.4 ULER-SAIOETAKO ZIKLOAREN ARABERA BEREIZITAKO EBALUAZIOA

Atal honetan, egin diren **Uler-saio ziklo ezberdinen ebaluazioa** agertzen da. 1etik 5erako puntuazioak kontuan izanik, oro har, ziklo guztietako emaitzak antzekoak direla ateman daiteke. Diagraman ajeri diren datuak ikusirik, zikloaren arabera (Uler-saioa 1, 2 edo 3) ez dago la aldaketarik.

Beraz, ondorioztatu daiteke, Uler-saioak metodologiaren eskutik, bete direla ulertzaileek euskararen ulermena eta garapenarekin lotuta zituzten helburuak.

2.5 TALDE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKOA

Beheko taula honetan, *Uler-saioak metodologia* egin duten taldeak agerri dira. Esperientzia bakoitzaren batez-bestako puntuazioa zerbatzetik izan den ikus daiteke ulertzaileek eginiko ebaluazioaren arabera, aurrez aipaturiko **garapena** eta **aurrera begira**ko balioak aintzat hartuz.

		GARAPENA	AURRERA BEGIRA
1	Beasain ostalariak	4,7	4,3
2	SOE=Kiddoiode nahasita (Goiza)	4,6	4,5
3	SOE=Kiddoiode nahasita (Arratsaldea)	4,7	4,1
4	EDE Fundazioa	4,1	4,1
5	Eberfil Beclar	4	3,6
6	EIBE	4,6	3,5
7	Athletic Club	3,8	4,2
8	Ikmaluada Ikastetxea	4	4
9	Denobat Group	4,8	3,3

3 ERANSKINAK

3.1 ULERTZAILEEN EBALUAZIOAREN GALDETEGIA

1 - Totalmente en desacuerdo / Erabat desados
5 - Totalmente de acuerdo / Erabat ados

1. **Nombre y Apellidos** Izen-abizenak.
2. **Valora el curso o la experiencia, en general.** Balora ezazu modu orokorrean ikastaroa edo esperientzia.

Sesiones de comprensión oral en euskara: Metodologia Uler-saioak

3. **La metodología ha sido la adecuada.** Metodologia egokia izan da.
4. **El ritmo y organización del curso han sido adecuados.** Ikastaroaren erritmoa eta antolaketa egokiak izan dira.
5. **Las clases/sesiones han estado bien planificadas.** Saioak ondo planifikatu dira.
6. **Los materiales didácticos han sido adecuados.** Material didaktikoa egokia izan da.

Comprensión y uso del euskara. Euskararen ulermena eta erabilera

7. **Creo que he avanzado mucho en la comprensión del euskera desde que comenzó el curso/la experiencia.** Ikastaroa hasi zenetik hona, euskara ulertzen aurrerapen nabarmena egin dudala uste dut.
8. **Si alguien me habla hoy en la calle en euskera, creo que podría entenderle mejor/más fácilmente que antes de comenzar las sesiones.** Kalean norbaitek gaur euskaraz egiten badit, uste dut klaseak hasi aurretik baino hobeto/errazago ulertuko nioke/ela.
9. **En el futuro me gustaría que la gente me hablara en euskera en la calle.** Etorkizunean jendeak niri kalean euskaraz egitea nahiko nuke.

Valoración general. Balorazio orokorra

10. **El ambiente de las clases ha sido bueno.** Saioetako giroa ona izan da.
11. **Se lo recomendaría a un/a amigo/a.** Lagunen batí gomendatuko nioke.
12. **¿Por qué te apuntaste a la experiencia** *Uler-saioak*?. Zergatik edo nolatan eman zenuen izena *Uler-saioak* esperientzian?
13. **He alcanzado mis objetivos.** Nire helburuak erdietsi ditut.
14. **Si has estado estudiando en algún euskaltegi. ¿en qué difías que es diferente** *Uler-saioak*? Euskaltegiren batean ikasten aritu izan bazara, zertan esango zenuke dela desberdina *Uler-saioak*?
15. **Añade cualquier comentario o sugerencia.** Oharren bat edo iradokizunen bat aipatu



3.2 TREBATZAILEEN EBALUAZIOAREN GALDETEGIA

1. **Trebatzailearen izen abizenak.**
2. **Izendatu zure Uler-saioak esperientzia.**
3. **Adierazi zure Uler-saioak esperientziaren ZIKLOA.**

1 - Erabat desados
5 - Erabat ados

4. **Nire ustez, Uler-saioak esperientzia ongi joan da.**
5. **Nire ustez, ulertzaileek euskarazko ahozko ulermenean aurreratu dute.**

Egiteko modu hauek egin/aplikatu ditut:

6. **Ulertzaileekin euskaraz aritzea.**
7. **Hizkera egokitzea eta sintonizatzea (hitz sinpleak, hizkera erraza, mantso hitz egin, esaldi motzak...).**
8. **Etengabe ulermena egiaztatzea (zuzenean edo zeharka).**
9. **Beharrezkoa izan denean ulertu dutela zuzenean egiaztatzea (forma berriak aurkezteaz, besteak beste).**
10. **Mezua helburu tekniketan, mezua beste modu batean ematea (esaldia bir formulatu, adibideak eman...).**
11. **Forma berriak lantzeko, urratsak egoki ematea: agertu, zuzeneko egiaztatzea, maiz erabili.**
12. **Arreta guneak oso maiz errepikatzea eta 3 arreta gune baino gehiago ez lantzea.**

Egiteko modu hauetan eroso sentitu naiz:

13. **Ulertzaileekin euskaraz aritzea.**
14. **Hizkera egokitzea eta sintonizatzea (hitz sinpleak, hizkera erraza, mantso hitz egin, esaldi motzak...).**
15. **Etengabe ulermena egiaztatzea (zuzenean edo zeharka).**
16. **Beharrezkoa izan denean ulertu dutela zuzenean egiaztatzea (forma berriak aurkezteaz, besteak beste).**
17. **Mezua helburu tekniketan, mezua beste modu batean ematea (esaldia bir formulatu, adibideak eman...).**
18. **Forma berriak lantzeko, urratsak egoki ematea: agertu, zuzeneko egiaztatzea, maiz erabili.**
19. **Arreta guneak oso maiz errepikatzea eta 3 arreta gune baino gehiago ez lantzea.**

20. **Nire ustez, saioak ondo planifikatu ditut.**
21. **Nire ustez, esperientziaren erritmoa egokia izan da.**
22. **Nire ustez, saioetako giroa (taldearena) ona izan da.**

23. **Nola deskribatuko zenuke taldeak izan duen giroa. dinamika eta parte-hartze orokorra?**
24. **Ohiko euskalduntzearekin alderatuta, zertan uste duzu dela desberdina Uler-saioak metodologia?**
25. **Nire ustez, jarraipen- eta ahokularitza-sistema (adituekin harremana, ahokularitza-saioak...) egokia izan da esperientzia jarraitzeko.**
26. **Parteka itzazu gurekin metodologiaren hutsuneak edo hobetzekoak, mesedez.**

10.9 FORMAKUNTZA IKASTAROA 2024

ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Formakuntza-ikastaroa 2024

Ikastaro hau jasotzeko, lehentasuna izango dute **2025eko urtarriletik aurrera** abia litezkeen *Uler-saioak* esperientzietan **trebatzaile gisa** jardungo duten kideek.

IKASTAROAREN EZAUGARRIAK:

DATA:	2024ko urriaren 25etik azaroaren 29ra
IRAUPENA:	30 ordu
EDUKIERA:	12 trebatzaile, gehienez
BEHARREZKO MATERIALA:	* Praktika-saioetarako pertsona boluntario bat (euskarazko ahozko ulermenean A1 mailako sosiala duen pertsona) * Praktika-saioetako une jakinak grabatzeko materiala (ahots- nahiz irudi-grabaketak izango dira)
IKASTARO-EMAILEAK:	Raul Perez Martinez (Ahize-AEK) Uxue Loinaz Urruzola (Elhuyar Aholkularitza) Xabi Bosch Urdanibia (Emun)

ASTEROKO JARDUERAK:

1) **Aurrez aurreko saioa:**

Saio hauek bi zati izango dituzte: batetik, oinarri metodologikoa nahiz teorikoa eskainiko diete trebatzaileei ikastaro-emaileek; eta, bestetik, irakurgaien, idazlanen eta praktiken gorabeherak argitzeko tartea egongo da.

Zati teorikoan, trebatzaile guztiak elkartuko dira ikastaro-emaileekin (ordubetez); eta zalantzak argitzeko zatirako edo tutoretza-tarterako hiru azpi-talde osatuko dira: azpi-talde bakoitzean, bost trebatzaile egongo dira gehienez, ikastaro-emaile bakar batekin (ordu bat eta erdiko iraupena).

Aurrez aurreko saio hauek bi ordu eta erdiko iraupena izango dute guztira, eta Martin Ugalde Kultur Parkean (Andoain) eskainiko dira. Guztira lau saio izango dira. Ostiral goizetan, 11:00-13:30 artean, elkartzea proposatzen da.

2) **Praktikak:**

Trebatzaile bakoitzak aurrez aurreko saioetan eskuratutako teknikak aplikatu beharko ditu. Horretarako, aurrez, A1 mailako ulermena duen pertsona bat topatu beharko du, eta, formakuntzan zehar, 9 orduko praktikaldia egingo du boluntario horrekin: formakuntza-ikastaroaren aurrez aurreko lehen saioa igaro ostean, astero, 1'5 orduko bi saio antolatu beharko ditu trebatzaileak pertsona horrekin (guztira sei saio).

Ikastaro-emaileek sei praktika-saio horietako une jakinak grabatzeko eskatuko diete trebatzaileei. Grabazio horiek aurrez aurreko saioa baino bi egun lehenago bidaliko dizkiete ikastaro-emaileei trebatzaileek, eta, aurrez aurreko saioetako tutoretza-zatietan, elkarrekin aztertuko dituzte.

Praktika-saio horietarako pertsona boluntarioa formakuntza-ikastaroaren aurrez aurreko lehen saiorako kontaktatuta izatea komeni da. Pertsona hori lortzeko, hiru bide erabil daitezke:

1. Norbere ingurune sozialeko ezagunen bat.
2. Norberak kudeatzen duen erakundeetako langileren edo bezeroren bat.
3. Herriko euskaltegiko ikasleren batekin hitzarmena eginda.

3) Irakurtzeko, hausnarketa idatzietarako eta praktikak prestatzeko **tarte pertsonala:**

Formakuntzan zehar, irakurtzeko, hausnarketa pertsonalak idazteko eta praktikak prestatzeko tartea ere hartu beharko du trebatzaile bakoitzak. Oinarri metodologikoak eta teorikoak biltzen diren testuak irakurriko dira, eta horien gaineko gogoetak idatziko dira, ikastaro-emaileekin partekatzeko.

EGUTEGI-PROPOSAMENA:

2024 urria - azaroa						
A	As	X	Og	Ost	Lar	Ig
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	1

Aurrez aurreko saioak (11:00-13:30)
Praktika-saioak (Norberak zehaztu sei hitzordu)

Asteko egitekoak	Aurreikusp.
Kokapena, boluntarioa lotu, aurrez aurreko saioa	5,5 ordu
Tarte pertsonala, praktika-saio 1	3,5 ordu
Praktika-saio 1, aurrez aurreko saioa	4 ordu
Tarte pertsonala, praktika-saio 1, aurrez aurreko saioa	6 ordu
Tarte pertsonala, 2 praktika-saio	5 ordu
Tarte pertsonala, praktika-saio 1, aurrez aurreko saioa	6 ordu
	30 ordu

Zalantzak argitzeko:
Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)
p.suberbiola@soziolinguistika.eus
688716565

10.10 ULER-KONPETENTZIAK

ALDAHITZ

ULER-SAIOAK METODOLOGIA

Ulertzaileen uler-konpetentziak

Trebatzaileek bete beharreko fitxa:

Trebatzailearen izen-abizenak:	
Esperientzia:	
Data:	

Uler-saioak metodologiak euskara ulertzeko gaitasunaren garapena du oinarri, ustez-edo ulermenak duela hizkuntza-erabilera sozialaren atea zabaltzeko (edo ixteko) giltza. Helburu du norbanakoek ahalik eta eperik laburrenean euskara ulertzeko gaitasuna eskura dezaten. Horretarako, ulertzailearen jokabidea funtsezkoa da. Hots, zenbait uler-konpetentzia bere egin behar ditu, uler-saioak zikloa(k) bukatutakoan ulerrizketa naturalera begira ulertzaile aktibo izango bada.

1 Ulertzailea gai izan da trebatzaileari zer ulertu duen egiaztatzeko, honako estrategiaren bat erabiliz:

- Ulertutakoa itzuli
- Ulertutakoa laburtu
- Komentario egokiak egin
- Elkarrizketa jarraitu

Bete taulako laukitxoak 5etik 1era (Erabat ados: 5 / Guztiz desados: 1)

	Ulertzailea	(1-5)
1		
2		

www.soziolinguistika.eus

ALDAHITZ

3		

2 Ulertzailea gai izan da trebatzaileari hobeto ulertzeko zer behar duen eskatzeko (polikiago hitz egiteko, hitz errazagoak erabiltzeko, esaldi laburragoak erabiltzeko, errepikatzeko...) eta ulertu ez duena adierazteko.

Bete taulako laukitxoak 5etik 1era (Erabat ados: 5 / Guztiz desados: 1)

	Ulertzailea	(1-5)
1		
2		
3		

3. Galdera horiek erantzuteaz gain, baduzu ebaluazio-ariketa honi buruzko bestelako ohar edo iradokizunik?

www.soziolinguistika.eus

10.11 ULER-SAIOAK – ESPERIENTZIEN IKERKETA ETA JARRAIPENA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

ALDAHITZ IKERKETA

Uler-saioak esperientziak.

Esperientzien ikerketa eta jarraipena

Trebatzaileentzako dokumentazioa

ALDAHITZ Ikerketa. *Uler-saioak* esperientziak
Esperientzien ikerketa eta jarraipena - TREBATZAILEAK

Aurkibidea

1 SARRERA 3
2 IKERKETA-HELBURUAK 4
3 ESPERIENTZIA GARATZEKO IRIZPIDEAK ETA DATU-JASOKETA 5
3.1 ESPERIENTZIA HASI AURRETIK 5
3.2 LEHEN SAIOA 5
3.2.1 Trebatzailearen aurkezpena eta ulertzailearen izen-ematea 6
3.2.2 Esperientziaren kokapena egin eta grabazio-baimena zein parte hartze-konpromisoa sinarazi 6
3.2.3 Ulermen-proba eginarazi 8
3.2.4 Saioei ekin 11
3.2.5 Asistentzia-orria bete 12
3.3 ESPERIENTZIAN ZEHAR: AHOLKULARITZA-SAIOAK ADITUAREKIN 13
3.3.1 Ariketak grabatu bidenz eta karpetara igo 13
3.3.2 Zaintzen fitxa bete 14
3.3.3 Aholkularitza-saioa adituarekin 14
3.4 ESPERIENTZIAREN AZKEN TXANPAN 16
3.4.1 Uler-saioak 3: mintzatzaileak 17
3.5 AZKEN SAIOA 17
3.5.1 Ulermen-proba eginarazi 17
3.5.2 Ebaluazio-galdetegia betearazi 18
3.5.3 Ahoz bermetsi ulertzaileekin hurrengo zikloaren hasiera 18
3.6 ESPERIENTZIA AMAITZEAN 19
3.6.1 Ulertzaileen amaierako ulermena ebaluatu 19
3.6.2 Esperientziaren ebaluazio-galdetegiari erantzun 20
4 SAIOETARAKO GOMENDIO BATZUK 21
4.1 AHOLKU OROKORRAK 21
4.2 FORMA HELBURU 21
4.3 MEZUA HELBURU 22
4.4 GOGOAN IZAN KONTZEPTU NAGUSIAK 22
5 ANTOLAKETA 26

www.soziolinguistika.eus 2



ALDAHITZ Ikerketa. *Uler-saioak* esperientziak
Esperientzien ikerketa eta jarraipena - TREBATZAILEAK

1 SARRERA

Kaixo, lagun!

Dokumentu honetan, *Uler-saioak* esperientziak martxan jartzeko jarraibideak jaso dituzuegu trebatzaileoi.

Jakina denez, esperientzia hauen bidez, *Uler-saioak* metodologiaren eraginkortasuna aztertu nahi da, euskaraz batere ez edo gutxi ulertzen duten lankideek euskararen ahozko ulermena gara dezaten.

Gai hori ikertu ahal izateko, datozen hilabeteetan, hainbat datu jasoko ditugu esperientzietan. Informazioa eskuratzeko, lau bide erabiliko ditugu:

- Ulertzaileengandik jasoko ditugu hainbat datu
- Trebatzailearengandik jasoko ditugu beste hainbat
- Adituengandik jasoko ditugu beste batzuk
- Eta azken datu batzuk balta esperientzia garatzen dugun gunearen arduradunarengandik ere

Esperientzia bakoitzeko informazio-emaileak zeintzuk diren/zareten ezagutzeko, dokumentu honi kontsulta dezakezue.

ADI! Kolore URDINEZ margotutako hitzek dokumentuetara sarbide zuzena eskaintzen dute. Dokumentuetara txosten honetako hitzei KLIK egindu sartu nahi badituzu, "Aldahitz – Uler-saioak" ATARI DIGITALERA konektatuta egon behar duzu.

Atari digitalerako sarbidea: labur.eus/aldahitz-ulersaioak

Atari digitalerako erabiltzailea eta pasahitza: trebatzaile bakoitzak berea du.

Trebatzaile bakoitzaren esperientziak karpeta propio bat du atari digitalean. *Uler-saioak* zikloaren arabera daude antolatuta esperientziak: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1, 2 edo 3" karpetak. Karpeta horien barruan topatuko du trebatzaile bakoitzak bere esperientzia garatzeko behar duen material guztia.

Txosten honetako loturen bidez dokumentuetara sartzeko arazoak ekiditearren, kolore URDINEZ adierazten diren dokumentuak atari digitaleko zein karpetatan topatu ditzakezuen adierazi dugu oin-ohar bidez.

Txosten honetan, beraz, **trebatzailearen bidez bilduko dugun informazioa jasotzeko modua** deskribatzen da.

[1] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak". Dokumentuaren izena: "Uler-saioak. Esperientziak 2024-2025 - Informazio-emaileak".

www.soziolinguistika.eus 3

ALDAHITZ Ikerketa. *Uler-saioak* esperientziak
Esperientzien ikerketa eta jarraipena - TREBATZAILEAK

2 IKERKETA-HELBURUAK

Ablatuko diren esperientzien bidez, honako lau ikerketa-helburuei erantzun nahi zaie:

1. *Uler-saioak* metodologiaren bidez, ulertzaileek euskarazko ahozko ulermenean **aurreikusitako ulermen-maila eskuratu duten aztertzea**:
   a. *Uler-saioak 1* taldekideek A1 inguruko maila eskuratu duten aztertzea
   b. *Uler-saioak 2* taldekideek A2 inguruko maila eskuratu duten aztertzea
   c. *Uler-saioak 3* taldekideek B1 inguruko maila eskuratu duten aztertzea
2. Esperientzien ezaugarrien arabera ulertzaileen ulermen-**aurrerapenak zer nola aldatzen diren aztertzea**, *Uler-saioak 1, 2 eta 3* zikloak ainzat hartuz:
   a. Esperientzien bilakaeraren arabera
   b. Taldearen ezaugarrien arabera
   c. Trebatzailearen ezaugarrien arabera
   d. Ulertzaile profilaren arabera
3. Esperientziaren **balorazio kualitatiboa** ezagutzea
   a. Ulertzaileen aldetik
   b. Trebatzaileen aldetik
4. *Uler-saioak* 3n, hurbileko harreman sareko kide batzuekin *Ulertzketa* dinamika ablatu den aztertzea

www.soziolinguistika.eus 4

3 ESPERIENTZIA GARATZEKO IRIZPIDEAK ETA DATU-JASOKETA

Aurreko atalean zehaztutako ikerketa-helburuak erdiesteko, une desberdinetan bilduko dugu esperientziei buruzko informazioa.

Informazio hori biltzeko urratsak nola emango ditugun jasotzen da atal honetan, esperientzia garatzeko irizpideak eskaintzearekin batera.

3.1 ESPERIENTZIA HASI AURRETIK

Dagokizun esperientziaren guneko arduradunarekin harremanetan jarri eta **ziurtatu** saioak emateko **aretoaren ezaugarriak** egokiak direla; beharrezko material guztia duzula, alegia.

Esperientzia bakoitzeko gune-arduraduna nor den ezagutzeko, dokumentu hau[3] kontsulta dezakezu. Aretoari lotutako gorabeheraren bat egongo balitz, guneko arduradunarekin jarri beharko du harremanetan trebatzaileak.

Intzidentzia guztiak jaso egingo ditu trebatzaileak, eta dagokion adituari jakinarazko dizkio. Trebatzaile bakoitzak garatuko duen esperientzia zein adituk jarraituko duen jakiteko, atal honetan aipatutako dokumentu berbera kontsulta daiteke.

3.2 LEHEN SAIOA

Lehen saioan, honako zeregin hauek ditugu:

- Trebatzaileak norbere burua aurkeztu
- Ulertzaileek izen-emate orria bete dutela ziurtatu
- *Uler-saioak* esperientziaren kokapena egin
- Grabazio-baimena eta parte hartze-konpromisoa sinarazi
- Ulermen-proba eginarazi
- Saioa amaitzean, asistentzia-orria bete

ADI! Zerrendatutako zeregin horiek burutzeko, **gaztelaniaz** mintzatuko gara ulertzaileekin lehenengo saio honetan. Behin ulermen-proba eginda, denbora izanez gero, lehenengo ariketaren bat egin liteke saioan bertan, eta, kasu horretan, euskarazko dinamika hartuko luke dagoeneko trebatzaileak.

Ondorengo ataletan deskribatzen dira zeregin horiek burutzeko moduak eta materialak.

[3] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak". Dokumentuaren izena: "Uler-saioak. Esperientziak 2024-2025 - Informazio-emaileak"

3.2.1 Trebatzailearen aurkezpena eta ulertzaileen izen-ematea

Lehendabizi, aurkezpen-erronda bat egin eta **ulertzaile guztiek izena eman dutela** ziurtatu.

Ulertzaile guztiek izena eman ote duten ziurtatzeko, "Inscripción" izeneko excel dokumentua kontsultatu behar da. Trebatzaileek ez dute dokumentu hau editatu behar. Intzidentziaren bat egon bada, adituei jakinarazi e-mail bidez.

ADI! Esperientzia/talde bakoitzak excel dokumentu propioa du, eta, beraz, trebatzaile bakoitzak dagokion karpetan topatu behar du berari dagokion "Inscripción" dokumentua: *"Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler- saioak 1, 2 edo 3" karpetak. Eredua: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Eredua karpetan > "Inscripción"*

Ulertzaile guztiek ez badute izena eman, tartetxo bat utzi saioan bertan izena eman dezaten.

Ulertzaileek izena eman dezaten, online erantzun beharreko galdetegi bat prestatu dugu. Galdetegia esperientzia hasi aurretik "taldearen arduradunak" helarazi dien arren, litekeena da ulertzaileren batek galdetegiari erantzun ez izana esperientziaren lehen saiorako. Ondorioz, trebatzaileak ARBELEAN idatzi beharko du galdetegia erantzuteko url lotura, ulertzaileak momentuan konekta daitezen izen ematera.

ADI! Esperientzia/talde bakoitzak izen-emateko galdetegi propioa du, eta, beraz, trebatzaile bakoitzak dagokion karpetan topatu behar du berari dagokion galdetegiak zein url lotura duen (zein webgunetan dagoen).

3.2.2 Esperientziaren kokapena egin eta grabazio-baimena zein parte hartze-konpromisoa sinarazi

Behin taldeko kide guztiek izena eman dutela ziurtatuta -eta, baten bat falta bazen, momentuan beteta- esperientziaren **kokapena** egingo dugu, eta jarraian **agiri bat sinatuko** dute ikasleek: grabazioak egiteko haien onespena eta parte hartze-konpromisoa jasotzen dituen dokumentua.

Kokapenaren azalpena egiteko, jarraian duzuen testua erabiliko dugu (ideiak). Azalpen hau GAZTELANIAZ egingo dugu. Hiru gairi buruzko azalpen laburrak daude jasota kokapen honetan:

1. *Uler-saioak* metodologia. Ezaugarriak, helburuak eta aukerak.
2. Saioetako dinamika.
3. Izaera esperimentala.

Introducción breve a la experiencia *Uler-saioak*

- ✓ Bienvenidas y bienvenidos. Comenzamos hoy una experiencia de la ***metodología Uler-saioak***. Esperamos que sea una experiencia agradable y productiva para todos/as.
- ✓ ***Uler-saioak*** no es un método de aprendizaje de euskera convencional. Tiene como objetivo que las personas que no entienden nada de euskera, o entienden muy poco, puedan llegar a entenderlo en el menor tiempo posible. Para ello, se centra exclusivamente en la comprensión, dejando de lado las otras tres competencias (leer, escribir y hablar euskera).
- ✓ ***Uler-saioak*** pretende ser una puerta de acceso rápido a la comprensión del euskara, entendiendo esta comprensión como primer paso, como condición indispensable, tanto para su posible uso, como para un posible aprendizaje más completo y avanzado.
- ✓ Al disponer de un tiempo limitado para llegar a una comprensión de un euskera oral básico, es indispensable un buen seguimiento de las sesiones, con una **alta asistencia**. Es por ello que solicitamos vuestro compromiso al respecto (a continuación, firmaremos el "compromiso de participación").
- ✓ En las clases, podréis interactuar conmigo tanto en castellano como -si es posible para vosotr@s- en euskera. Pero la norma básica será que **expreséis lo que hayáis entendido.** Dependiendo del ejercicio, habrá diferentes opciones para ello:
  - Traducir literalmente lo que dice el profesor/a, o traducir literalmente lo que escribe en la pizarra.
  - Hacer un resumen de lo que habéis entendido.
  - Responder a las preguntas del profesor/a.
  - Hacer comentarios pertinentes sobre lo entendido.
  - Ejecutar diferentes consignas u órdenes.
- ✓ Para el seguimiento del curso, **no es necesario comprar o utilizar ningún tipo de libro**, guía o manual para seguir las sesiones. Podréis utilizar un cuaderno, pero al tratarse de una metodología destinada al desarrollo de la comprensión oral, no será estrictamente necesario. Lo dejamos a vuestra elección. Tampoco tendréis que utilizar el teléfono móvil para saber el significado de lo escuchado, ya que será misión del profesor/a **volver a explicar** de otra manera o con otras palabras lo que no hayáis entendido.
- ✓ Lo que sí será necesario en estas sesiones, es que, en los casos **en los que no consigáis entender algo** que os estoy intentando explicar, me lo hagáis saber. No sólo expresar el hecho de que no habéis entendido, sino intentar especificar **qué es lo que no habéis entendido.**

- ✓ La ***metodología Uler-saioak*** es, por ahora, una metodología **en fase de experimentación** y desarrollo, de ahí el carácter **piloto** de estas experiencias. Para poder analizar su funcionamiento y sus resultados, nos es necesario medir el avance de vuestra comprensión oral en euskera. Es por ello que os solicitamos hacer una **prueba de comprensión oral** tanto al principio como al final de la experiencia, así como rellenar un cuestionario individual al final de la misma. Pedimos, en ese sentido, vuestra comprensión y colaboración.
- ✓ Con respecto al grupo, hemos intentado, tomando en cuenta los datos de la prueba de nivel que rellenasteis en su día, que sea **minimamente homogéneo** con respecto al nivel de comprensión de euskera que tenéis. No obstante, si para algún alumno/a el nivel del grupo no es el adecuado, intentaremos tomar medidas al respecto.
- ✓ A continuación, tomaremos un minuto para **rellenar y firmar un documento.** Por una parte, vuestra conformidad para poder grabar algunas secuencias de las sesiones. El objetivo de estas grabaciones es el desarrollo de la metodología y serán en todo caso de uso interno (instructores, formadores...). Y, por otra parte, vuestro compromiso de participación en esta experiencia piloto.

Jarraian, dokumentu hau sinatu dezatela ulertzaile guztiek, eta guztiak jaso.

Lehenengo saiorako, beraz, ulertzaile bakoitzarentzat dokumentu bana inprimatu behar dute trebatzaileek, saioan ulertzaileei sinarazi eta, saioaren ostean, ulertzaileek sinatutako dokumentuak eskaneatu beharko ditu.

ADI! Ulertzaileek sinatutako dokumentu eskaneatuak trebatzailearen esperientziari dagokion karpetan gordeko ditugu. *Eredua: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Eredua > 0. Grabazio- baimenak eta Konpromiso-agiriak" karpetan.*

3.2.3 Ulermen-proba eginarazi

Taldea osatu ahal izateko, ulertzaileek erantzunda dute ulermen-proba bat, A2 mailakoa. Esperientzia hastean, ordea, **dagokien mailako ulermen-proba pasa**ko diegu:

- *Uler-saioak 1*: A2 mailakoa ➔ 40 bat minutu inguruko iraupena
- *Uler-saioak 2*: A2 mailakoa ➔ 40 bat minutu inguruko iraupena
- *Uler-saioak 3*: B1 mailakoa ➔ 25 bat minutu inguruko iraupena

Ulermen-proba pasatzeko **beharko duzuena:**

[3] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak". Dokumentuaren izena: "Grabazio-baimena eta konpromiso-agiria".

- Tarte horretan isiltasuna mantentzea, ulertzaileek proba eroso egin ahal izateko.
- Audio sistemaren bat, ulertzaileek probaren audioak ongi entzuteko.

Ondorengo hauek dira **eman beharreko urratsak:**

1. Dagokion entzumen-probari buruzko dokumentua irakurri eta audioak probatu probaren eguna baino lehen, ziurtatzeko ez dagoela zalantzarik eta fitxategiak ongi entzuten direla.
   a. *Uler-saioak 1*: A2 maila → Hemen[4] dituzue materialak.
      Hemen[5] dituzue audio fitxategiak mp3 formatuan.
   b. *Uler-saioak 2*: A2 maila → Hemen[6] dituzue materialak.
      Hemen[7] dituzue audio fitxategiak mp3 formatuan. Nahiago izanez gero, "Audioak" dokumentuan[8] daude sareko link-ak, bertatik entzuteko. Aukera bat zein bestea balia liteke frogarako.
   c. *Uler-saioak 3*: B1 maila → Hemen[9] dituzue materialak.

   Kasu honetan, fitxategi bakarrean jasotzen dira 3 ariketak egiteko beharrezko diren audioak.

   Zalantzaren bat balego dokumentuarekin edo arazoren bat fitxategiekin, dagokizuen adituarekin jarri harremanetan.

2. Proba egunean, dagokien mailako "entzumen-proba (erdaraz)" izeneko dokumentuaren kopia bana eman ulertzaile bakoitzari, paperean edo online (url bidez)
   a. *Uler-saioak 1*: A2 maila → Dokumentu hau[10] inprimatu behar dute trebatzaileek ulertzaileei banatzeko eta euren erantzunak bertan txerta ditzaten.

[4] Dokumentuak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Ulermen-proba – A2 Maila"
[5] Fitxategiak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Ulermen-proba – A2 Maila > Audioak".
[6] Dokumentuak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2 > Ulermen-proba– A2 Maila".
[7] Fitxategiak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2 > Ulermen-proba – A2 Maila > Audioak".
[8] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2 > Ulermen-proba – A2 Maila > Audioak".
[9] Dokumentuak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 3 > Ulermen-proba – B1 Maila".
[10] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Ulermen-proba – A1 Maila". Dokumentuaren izena: "A2 MAILA entzumen-proba(erdaraz)"

   b. *Uler-saioak 2*: A2 maila → Dokumentu hau[11] inprimatu behar dute trebatzaileek ulertzaileei banatzeko eta euren erantzunak bertan txerta ditzaten.
   c. *Uler-saioak 3*: B1 maila → Dokumentu hau[12] inprimatu behar dute trebatzaileek ulertzaileei banatzeko eta euren erantzunak bertan txerta ditzaten.
3. Proba pasa dokumentu horretan adierazten diren irizpideekin:
   a. atal bakoitzeko galderak eta erantzunak irakurtzeko, aurreikusitako denborak errespetatu,
   b. audio bakoitza bi aldiz jarri,
   c. eta ondoren erantzunak hautatzeko dituzten denborak errespetatu.

   ADI! Ulertzen dutenaren arabera erantzun dezatela eskatuko zaie. **Bete gabe edo gaizki erantzundako itemek berdin balioko dute; alegia, erantzun zuzenen kopurua hartuko dugu aintzat.**

   Proba amaitutakoan, ulertzaile bakoitzaren dokumentuari izen-abizenak jarri lehen orrian.
   d. Eta ADI! **ez esan ulertzaileei zeintzuk diren erantzun zuzenak** (esperientziaren amaieran ulermen-proba berberari erantzungo baitiote hainbat kasutan).
4. Saioa amaitzean, ulermen-proben emaitzak biltzeko excel dokumentua bete:
   a. *Uler-saioak 1*: A2 maila → Txantiloia edo eredua hemen[13] dago, baina ADI! trebatzaile bakoitzak bere esperientziaren karpetan dauka bete beharreko excel dokumentuaren kopia. Eredua: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Eredua > Hasierako ulermena." karpetan.
   b. *Uler-saioak 2*: A2 maila → Txantiloia edo eredua hemen[14], baina ADI! trebatzaile bakoitzak bere esperientziaren karpetan dauka bete beharreko excel dokumentuaren kopia. Eredua:

[11] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2 > Ulermen-proba – A2 Maila". Dokumentuaren izena: "A2 MAILA entzumen-proba (erdaraz)".
[12] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 3 > Ulermen-froga – B1 Maila". Dokumentuaren izena: "B1 MAILA entzumen-proba (erdaraz)".
[13] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Ulermen-proba – A2 maila". Dokumentuaren izena: "Ulermen-proba_emaitzak_biltzeko_eredua".
[14] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2 > Ulerme-proba – A2 maila". Dokumentuaren izena: "A2_Ulermen-froga_emaitzak_biltzeko_eredua".

"Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2 > Eredua > Hasierako ulermena" karpetan.

   c. *Uler-saioak 3*: B1 maila → Txantiloia edo eredua hemen[15] dago, baina ADI! trebatzaile bakoitzak bere esperientziaren karpetan dauka bete beharreko excel dokumentuaren kopia. Eredua, "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 3 > Eredua > Hasierako ulermena" karpetan.
5. Excel dokumentua betetzeko irizpideak "Azalpenak" izeneko lehen orrian jaso dira, excel dokumentuan bertan.
   a. ADI! Proba pasatzean kontuan hartu beharreko arazo edo intzidentziaren bat egon bada, jaso idatziz excel-ean bertan.
   b. Excel dokumentua betetzean, dagokion karpetan gordeta geldituko da dokumentua.

3.2.4 Saioei ekin

Behin ulermen-proba eginda, denbora izanez gero, saioei ekingo diegu:

- *Uler-saioak 1* eta *Uler-saioak 2* zikloetarako, programazio zehatza osatu zuen Pello Jauregik (EHUko irakasleak).

  Programazio hori ***Uler-saioak*** metodologiaren argitalpenetik eskura daiteke. Argitalpen hori ezaguna egingo zaizue trebatzaileoi formakuntza-ikastaroan zehar behin baino gehiagotan kontsultatu baituzue.

  Gogoratzearren, *Uler-saioak 1* zikloari dagokion programazioa jasotzen da argitalpeneko 59-139 orrialdeetan. *Uler-saioak 2* zikloari dagokion programazioa, berriz, 140-204 orrialdeetan aurkituko duzue.
- *Uler-saioak 3* ziklorako ez dago programazio zehatzik. Bain eskuliburu bat osatu dugu saioetarako laguntza gisa. Hemen[16] jaso dugu dokumentua.

[15] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 3 > Ulermen-proba – B1 Maila". Dokumentuaren izena: "B1_Ulermen- proba_emaitzak_biltzeko_eredua".
[16] Karpeta topatzeko, ATARI DIGITALean: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 3". Dokumentuaren izena: "Uler-saioak 3_saioetarako lagungarriak."

3.2.5 Asistentzia-orria bete

Saio bakoitza amaitzean, asistentzia-orria bete beharko du trebatzaileak.

Asistentzia-orri guztiak excel dokumentu bakar batean bilduko ditugu. Excel dokumentu horien ereduak edo txantiloiak hemen daude:

   a. *Uler-saioak 1*: hemen[17]
   b. *Uler-saioak 2*: hemen[18]
   c. *Uler-saioak 3*: hemen[19]

ADI! Hala eta guztiz ere, trebatzaile bakoitzak bere esperientziaren karpetan dauka asistentzia-informazioarekin bete beharreko excel dokumentuaren kopia. Eredua: *"Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Eredua" karpetan.*

Asistentzia-orrien excel dokumentua betetzeko irizpideak excel dokumentuan bertan jaso dira, "Azalpenak" izeneko lehen orrian. Trebatzaileen esku geldituko da saioaren ostean zuzenean asistentzia-informazioa excel dokumentuan bertan jaso nahi duen edo bestelako euskarriren batean jaso nahi duen informazioa eta internet konexioa izatean/aukera duenean pasa nahi ote duen asistentzia-informazioa excel dokumentura. Hala eta guztiz ere, asistentzia-orri hauek egunean eramatea komeni da.

ADI! Saioei buruzko gero eta informazio gehiago jaso, emaitzak aztertzeko informazio osatuagoa izango dugu. Ondorioz, behar adina ohar idatzi ditzakezue asistentzia-orrietan bertan, saioen eta taldearen dinamikari buruz, esaterako. Arazoak, intzidentziak edo bestelako oharrak jasotzeko tokia baduzue excel-ean bertan.

Excel dokumentua betetzean, dagokion karpetan gordeta geldituko da dokumentua.

[17] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Eredua". Dokumentuaren izena: "Uler-saioak1_Asistentzia-orriak".
[18] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2 > Eredua". Dokumentuaren izena: "Uler-saioak2_Asistentzia-orriak".
[19] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 3 > Eredua". Dokumentuaren izena: "Uler-saioak3_Asistentzia-orriak".

3.3 ESPERIENTZIAN ZEHAR: AHOLKULARITZA-SAIOAK ADITUAREKIN

Esperientzian zehar, hamar saio-ordutik behin gutxi gorabehera, aholkularitza- saio bat egingo du trebatzaileak adituarekin:

- *Uler-saioak 1* eta *Uler-saioak 2*: guztira 3 aholkularitza-saio; 10 orduz behin egingo ditugu tutoretza-saioak.
- *Uler-saioak 3*: guztira 6 aholkularitza-saio. Lehenengo hiru saioak 10 orduz behin egingo ditugu. Ondorengo hiru saioak, trebatzaileak eta adituak egoki ikusten eta adosten duzuenaren arabera. Iradokizun modura, hiru saio horietako bat, egokia izan liteke lankide euskaldunak (*mintzatzaileak*) taldera sartu aurretik, edo sartzean egitea; eta azken aholkularitza-saioa esperientzia amaitu aurretik egitea.

Aholkularitza-saio horietarako, aurrez, bi material hauek bidali behar zaizkio adituari:

- bideo-grabazio bat
- zalantzen fitxa bat

Ondorengo ataletan deskribatzen dira zeregin horiek burutzeko moduak eta materialak.

3.3.1 Ariketak grabatu bideoz eta karpetara igo

Bideoz grabaturiko ariketa hauen helburua da adituek zuen saioen jarraipena egin ahal izatea, neurri batean behintzat. Modu horretan, aholkularitzarako elementuak identifikatu ditzakete adituek, baita zuek ere, ondoren saioan lantzeko.

Grabazio hauek baliagarriak izateko, **beharrezkoa da, behintzat zuen jarduna (trebatzailearena) bideo-grabazioan ongi entzutea eta ikustea**. Posible balitz, oso ona litzateke ere, zuen jardunaz gain, neurri batean ikusten bada taldearen dinamika, ikasleen erantzunak, eta abar (ikasle batzuena, behintzat).

Baina lekuaren, taldearen, grabazio-euskarrien eta abarren arabera, badakigu "dena" harrapatzea zaila dela. Lehentasunez, beraz, egin grabazioak behintzat zuen jarduna ongi jasoz, eta gero, posible den neurrian, ikasleena ere, maila osagarrian.

Aholkularitza-saio bakoitzean landuko duzuen bideoetan honako ariketa hauek ikustea komeni da:

- *Uler-saioak 1*: "Forma helburu" komunikazio-estrategiako hiru ariketa.
- *Uler-saioak 2*: "Forma helburu" komunikazio-estrategiako hiru ariketa.
- *Uler-saioak 3*: "Mezua helburu" komunikazio-estrategiako sei ariketa.

Trebatzaile bakoitzak bere esperientziaren karpetan dauka bideo-grabazioak gordetzeko karpeta propioa. Eredua: "*Dokumentuak > 2024-2025* Esperientziak > *Uler-saioak 1 > Eredua > Aholkularitza-saioak > Bideoak*" *karpetan*.

Trebatzaileak bideoa karpetara igotzean, e-mail bidez jakinarazi behar dio dagokion adituari. ADI! Komeni da adituarekin aholkularitza-saioa egiteko adostu zenuten hitzordua baino 2 egun lehenago igotzea bideoak eta adituari jakinaraztea.

3.3.2 Zalantzen fitxa bete

Trebatzaileek adituarekin egingo duten aholkularitza-saiorako bete beharreko zalantzen fitxaren eredua hemen[21] dago. Aholkularitza-saio bakoitzeko, zalantzen fitxa bat betetzea da ideia.

ADI! Hala eta guztiz ere, trebatzaile bakoitzak bere esperientziaren karpetan badauka dokumentu horren kopia bat.

ADI! Fitxak bete ahala, trebatzaile bakoitzak bere esperientziaren karpetan gordeko ditu.

Ondo legoke fitxa hauek adituari aholkularitza-saioa baino lehenago bidaltzea, baina ez da beharrezkoa izango. Trebatzaileak identifikatu dituen gaiak edota kezkak aholkularitza-saioan bertan kontrasta ditzake adituarekin.

3.3.3 Aholkularitza-saioa adituarekin

Gehienez ere ordubeteko saio bat izango da, online. Esperientzia hasi eta berehala, adituarekin harremanetan jarri eta aholkularitza-saio hauen hitzorduak lotzea gomendatzen da.

ADI! Aholkularitza-saio bakoitzean, zalantzen fitxetako edukia eta taldeko dinamika (bideoaren bitartez) aztertzeaz gain, ordura arte bildutako datuen errepasoa egingo da:

- Burututako saio guztien asistentzia-orriak dagokien karpetan jasota daudela ziurtatuko da
- +1. aholkularitza-saioan:
  - ulertzaile guztiak izena emanda daudela egiaztatuko da
  - ulertzaile guztiak grabazio-baimena eta konpromiso-agiria sinatu dutela ziurtatuko da
  - ulertzaile guztiek ulermen-proba zuzen bete dutela eta ikerketarako baliozkoak direla egiaztatuko da

[21] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak ½ edo 3 > Eredua > Aholkularitza-saioak". Dokumentuaren izena: "Aldahitz_Uler-saioak_trebatzaileak_zalantzak_fitxa".

- *Uler-saioak 1* eta *Uler-saioak 2*:
  - + 2. aholkularitza-saioan: jarraian datorren 3.4 puntuko zeregina egiteko materiala prestatzea freskatuko da
  - + 3. aholkularitza-saioan:
    - taldeak hurrengo zikloarekin jarraituko duen edo ez aztertuko da,
    - aholkularitza-saioetan baliatutako fitxategi guztiak (bideoak eta zalantzen fitxak) dagokien karpetetan daudela egiaztatuko da
    - eta esperientzia amaierako materialak nola bete errepasatuko da
- *Uler-saioak 3*:
  - + 4. aholkularitza-saioan: mintzatzaileak inkorporatzeko modua freskatuko da
  - + 5. aholkularitza-saioan: jarraian datorren 3.4 puntuko zeregina egiteko materiala prestatzea freskatuko da
  - + 6. aholkularitza-saioan:
    - taldekide batzuk *Ulerrizketa* dinamikarekin jarraitzeko aukera duten aztertuko da,
    - aholkularitza-saioetan baliatutako fitxategi guztiak (bideoak eta zalantzen fitxak) dagokien karpetetan daudela egiaztatuko da
    - eta esperientzia amaierako materialak nola bete errepasatuko da

3.4 ESPERIENTZIAREN AZKEN TXANPAN

Esperientziaren azken txanpan, ulertzaileei hurrengo zikloarekin jarraitu nahi duten galdetuko diegu:

- *Uler-saioak 1*: 20.ordua igarotzean
- *Uler-saioak 2*: 20.ordua igarotzean
- *Uler-saioak 3*: 50.ordua igarotzean (→ *Ulerrizketa* esperientzia batekin jarraitu nahi duten galdetuko zaie).

Hurrengo ziklorako taldea osatu eta jarraitu nahi luketen erantzun beharko dute ulertzaileek, banaka, paperean. Hona hemen inprimatu eta ulertzaileei banatu beharreko dokumentua:

a. *Uler-saioak 1*: hemen[22]
b. *Uler-saioak 2*: hemen[23]
c. *Uler-saioak 3*: hemen[24]

Hala, ulertzaile bakoitzak emandako erantzuna jasoko da "Asistentzia-orriak" excel-ean. "Asistentzia-orriak" izeneko excel dokumentuak "HURRENGO ZIKLOA" izeneko orri bat du, eta berau baliatuko dugu ulertzaile bakoitzak galderari egin dion erantzuna jasotzeko. Excel dokumentuaren lehen orrian, "Azalpenak" izenekoan, xehetasun gehiago topatuko dituzue.

ADI! Txosten honetako 3.2.5 atalean adierazi moduan, trebatzaile bakoitzak bere esperientziaren karpetan dauka asistentzia-informazioarekin bete beharreko excel dokumentuaren kopia. Eredua: "*Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Eredua*" karpetan (Dokumentuaren izena: "Asistentzia-orriak").

[22] Dokumentuak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1". Dokumentuaren izena: "Pregunta_galdera_Ikasleak_Uler-saioak_1".
[23] Dokumentuak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2". Dokumentuaren izena: "Pregunta_galdera_Ikasleak_Uler-saioak_2".
[24] Dokumentuak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 3". Dokumentuaren izena: "Pregunta_galdera_Ikasleak_Uler-saioak_3".

3.4.1 Uler-saioak 3: mintzatzaileak

Uler-saioak 3 zikloaren kasuan, esperientziaren 40. ordu inguruan, ***mintzatzaileak*** inkorporatuko dira esperientziara. Hortik aurrera, taldeko ***ulertzaileak*** eta taldera etorritako ***mintzatzaileak*** zuen gidaritzapean hasiko dira saioetan *Ulerrizketa* praktikatzen, egoera eta gune "babestuan".

Inkorporazio eta egoera babestuko praktika honen helburua da, behin *Uler- saioak 3* esperientzia amaituta, euren ingurune naturaletan (lantokia, hurbileko harreman-sarea...) *Ulerrizketa* esperientzia bat egin nahi dutenei horretarako bidea prestatzea.

Mintzatzaileak *Uler-saioak 3* taldean inkorporatzeko urrats hau esperientzia honen "taldeko arduradunak" koordinatu eta antolatuko du.

Bestalde, ***ulertzaile-mintzatzaile*** dinamika hau nola antolatu zehazteko, eta *Ulerrizketa*ren nondik norakoak gogora ekartzeko (funtsean "mezua helburu" komunikazio-estrategiaren garapen bat da), lotura honetan duzue formakuntza-ikastaroan landutako materiala.

3.5 AZKEN SAIOA

Esperientzia borobiltzeko baliatuko dugu hitzordu hau. Azken saioan, honako zeregin hauek ditugu:

- Ulermen-proba eginarazi
- Ebaluazio-galdetegia betearazi
- (hala erabaki bada) Hurrengo zikloaren hasiera berretsi
- Saioa amaitzean, asistentzia-orria bete

Ondorengo ataletan deskribatzen dira zeregin horiek burutzeko moduak eta materialak.

3.5.1 Ulermen-proba eginarazi

Esperientziaren hasieran egin moduan, **dagokien mailako ulermen-proba pasa**ko diegu ulertzaileei:

- *Uler-saioak 1*: A2 mailakoa
- *Uler-saioak 2*: A2 mailakoa
- *Uler-saioak 3*: B1 mailakoa

Urrats hau emateko, ikus txosten honetako 3.2.3 puntuko oharrak.

ADI! Kasu honetan, ulermen-proben emaitzak biltzeko excel dokumentua "2. Amaierako ulermena" izeneko karpetetan aurkituko dute trebatzaileek, beren esperientziari dagokion karpetaren barruan:

a. *Uler-saioak 1*: A2 maila → Eredua *"Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Eredua > **3. Amaierako ulermena –** "* karpetan.

b. *Uler-saioak 2*: A2 maila → Eredua *"Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2 > Eredua > **3. Amaierako ulermena –** "* karpetan.

c. *Uler-saioak 3*: B1 maila → Eredua *"Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 3 > Eredua > **3. Amaierako ulermena –** "* karpetan.

3.5.2 Ebaluazio-galdetegia betearazi

Ulertzaileek esperientziari buruz egiten duten balorazioa ere jaso nahi dugu. Horretarako, ebaluazio-galdetegi bat baliatuko dugu.

Esperientzia bakoitzaren karpetan dago adierazita ulertzaileei bidali behar zaien url lotura, galdetegia erantzuteko. Eredua *"Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > eredua> "evaluación"* karpetan.

ADI! Eta karpeta horretan bertan "Evaluación" izeneko excel dokumentua kontsultatu behar da, ulertzaileek galdetegia erantzun duten jakiteko.

Saioan bertan, 10 minutu har itzazue galdetegia erantzuteko, mesedez.

3.5.3 Ahoz berretsi ulertzaileekin hurrengo zikloaren hasiera

Urrats hau, gorago adierazi bezala, "taldeko arduradunarekin" koordinatuko da eta, jarraitzekotan, azken saio honetarako adostuta egongo da jarraipena noiz eta nola eman: ordutegi berdina edo egokitu, bi zikloen artean asteren bateko tartea utziko den edo ez, eta abar. Kontu hauek, noski, taldeko arduradunak zuekin ere koordinatuko ditu.

Kasuan kasuko erabakiaren arabera, hortaz, azken saio honetan hurrengo urrats horren berri emango da. Jarraipenik ez ematea erabaki bada, berriz, hori adierazi zaie.

3.6 ESPERIENTZIA AMAITZEAN

3.6.1 Ulertzaileen amaierako ulermena ebaluatu

Gorago adierazi bezala, ikerketa honen lehen helburu gisa hartu dugu aztertzea ea *Uler-saioak metodologiaren* esperientzia hauetan ziklo bakoitzean eskuratzen ote den aurreikusitako edo esperotako euskarazko ulermen-maila.

Hori egingo dugu, alde batetik, esperientzien hasieran eta amaieran ikasleei dagokien mailako ulermen-proba pasata. Horren osagarri, ulertzaile bakoitzaren amaierako ulermena ebaluatuko dugu. Horretarako:

- Ulertzaile bakoitzak esperientziaren amaieran duen ahozko ulermena ebaluatuko dugu, HABEk argitaratutako HEOC-en arabera (helduak euskalduntzeko oinarrizko curriculuma).
- Ulertzaile bakoitzak uler-saioen metodologia eta dinamika bere egin dituen ebaluatzeko, *Uler-konpetentzien* dokumentua beteko dugu ulertzaile bakoitzarentzat.

Ebaluazio-ariketa hori burutzeko, dokumentu hauetan dituzue azalpenak eta ulertzaile bakoitza sailkatzeko erabili beharreko erreferentziak:

a. *Uler-saioak 1*: hemen[27]
b. *Uler-saioak 2*: hemen[28]
c. *Uler-saioak 3*: hemen[29]

[27] Dokumentuak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 1 > Ulertzaileen amaierako ulermena ebaluatzeko" karpeta: Dokumentuen izenak: "HEOC_ebaluazioa_Uler-saioak1_betetzeko eta Uler-konpetentziak_galdetegia".
[28] Dokumentuak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 2 > Ulertzaileen amaierako ulermena ebaluatzeko". Dokumentuen izenak: "HEOC_ebaluazioa_Uler-saioak1_betetzeko eta Uler-konpetentziak_galdetegia".
[29] Dokumentuak topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Uler-saioak 3 > Ulertzaileen amaierako ulermena ebaluatzeko". Dokumentuen izenak: "HEOC_ebaluazioa_Uler-saioak1_betetzeko eta Uler-konpetentziak_galdetegia".

Ebaluazio hau egiteko moduaren inguruan zalantzarik izanez gero, esperientziaren azken aholkularitza-saioan adituarekin komenta ditzakezue.

3.6.2 Esperientziaren ebaluazio-galdetegiari erantzun

Esperientziaren garapena borobiltzeko, trebatzaileen balorazioa ere jaso nahi dugu. Horretarako, ebaluazio-galdetegi hau baliatuko dugu: ebaluazio-galdetegia_2024-2025

Lotura horretarako sarbidea karpeta honetan ere baduzue: *"Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak > Ebaluazioa-galdetegia_2024-2025 "*.

ADI! Ideia da ziklo bakoitza amaitu ostean betetzea trebatzaileek galdetegi hori. Ondorioz, *Uler-saioak 1* zikloarekin hasten den talde batek *Uler-saioak 2* ziklora arte jarraitzen badu, trebatzaileak ebaluazio-galdetegia 3 alditz bete beharko du.

4 SAIOETARAKO GOMENDIO BATZUK

4.1 AHOLKU OROKORRAK

- **Bi aldeek dinamikaren berri izatea:** kontuan hartu *uler-saioak* dinamika bi aldeen artean sortu beharra dela (trebatzaile/ulertzaile). Hortaz, trebatzailea trebatu beharra da egiteko modu batzuetan, baina baita ulertzailea ere. Ulertzaileak ere dinamika ezagutu behar du, eta modu aktiboan parte hartu poliki-poliki ohitura hartzen joateko eta bera ere eroso sentitzeko. Horregatik, garrantzitsua da ulertzaileari ere bere rola argitzea eta jokatzeko zein aukera dituen ezagutaraztea lehen saiotik.
- **Ulertzaile bakoitzean fokalizatu eta txandakatzen joatea:** ulertzaile bat baino gehiago ditugunean, gure inputa fokalizatzen joango gara; talde handia izanez gero, agian binaka egin daiteke, hau da, tarte batean batez ere bi ulertzaile horiekin sortuko da *uler-saioa* eta gainerakoak entzule moduan arituko dira. Honek aukera eman dezake ulertzaileen beharretara hobeto egokitzeko (ulertzaileak ezagutu ondoren, trebatzaileak aurreikus dezake zein alderdi landu gehiago bakoitzarekin); aldi berean, ondoren, entzule egon direnekin gaia berrartu daiteke.
- **Saioek aurrera egin ahala sintonizazioa berrikustea:** saioek aurrera egin ahala, aurreikus dezakegu ulertzaileak dinamikara ohituago egongo direla, eta beraien ulermen maila igo egingo dela. Beraz, trebatzaileak bere estrategiak egokituko ditu egoera berria, hau da, sintonizazioa berrikusi egingo du, eta erabaki berriak hartu, esaterako: keinu gutxiago erabili, erritmoa bizitu...

4.2 FORMA HELBURU

- **Programazioa gida bat da:** hortaz, trebatzaileak erabakiko du erritmoa mantsotu edo bizkortu ulertzailearekin lortzen den sintonizazioaren arabera. Trebatzaileak berak ere, ariketak zirriborratu ditzake, luzatu... beti ere, arretaguneak mantenduz.
- **Arbela eta txartelak, ezinbesteko euskarri:** saioetan behar-beharrezkoa izango da arbela, etengabeko sostengua baita bai trebatzaile, bai ulertzailearentzat ere. Unean sortzen diren forma edo hitzak begi-bistan izateko, teknikak errazago lantzeko, gramatika-pilularen bat emateko... txartelak ere saio guztietan egongo dira.
- **Aurretik simulakro txikiak egin:** batik bat "galde-gurpila" eta "istorioa-kontatu" teknikekin, komeni da trebatzaileak aurretik ariketa horiek bere kabuz irudikatzea, simulatzea, zein galdera egin dezakeen, nola luzatu ariketa ... eta ideia-bilduma hori aurretik idatzi, saioan seguruago eta erosoago sentitzeko.
- **Aurrera egin ahala teknikak nahastu:** saioan bertan inputa areagotzeko edo saioa biziagotzeko teknikak nahastu egingo ditugu.

- **Azkenik...gogoratu!** Helburua poliki-poliki *uler-saioak* 2-3ra igarotzea da, ondoren ulerrizketa naturalera iritsi ahal izateko.

4.3 MEZUA HELBURU

- **Lehen saioa ulertzaileen interesak ezagutzeko baliatu:** ulertzailearen interesa eta arreta mantentzeak lagunduko digu bera ere aktibo aritzea, eta ondorioz, metodologia eraginkorragoa izatea. Hortaz, lehen saioan galdetegi bat partekatzea lagungarri izan daiteke, edota beraiek ezagutzeko galdera batzuk prestatuta eramatea, albiste zerrenda bat euren gustuak adierazteko...
- **Kontaketa eta elkarrizketa tartekatu:** gai beraren inguruan bi testu mota hauek jar daitezke praktikan. Hasieran gai baten inguruan kontaketa bat egin eta ondoren, beste ulertzaile batengan fokalizatu eta berarekin elkarrizketa sortu gai berari eutsiz, edo hariari jarraituz.
- **Azkenik...gogoratu!** Helburua ez da ulertzaileek den-dena ulertzea, mezua, eman nahi dugun ideia ulertaraztea baizik, horretan jarriko dugu gure indarra. Ikasleei hasieratik lasaitasuna transmititzeak eta prozesu bat dela azaltzeak saioa bideratzen lagundu dezake, eta noski, trebatzailearen motibazioa beti izango dugu lagun.

4.4 GOGOAN IZAN KONTZEPTU NAGUSIAK

Mezua Helburu:

Bi estrategietako bat da. Komunikazio-estrategia mota honen helburua ez da ulertzaileek esaldi edo diskurtso baten elementu (hitz) guztiak ulertzea, baizik eta entzundakoaren zentzua ulertzea. Beste hitz batzuetan esanda, hitzak aldatu ideia ulerrarazteko. Hori da trebatzailearen misioa. Komunikazio-estrategia hau erabiltzean, beraz, hitz edo gramatika-egitura zehatzak bigarren mailan geratuko dira. Albistea kontatu eta bideoa kontatu bi teknika nagusiak dira.

Input ulergarria:

Ulertzaileek ulertzen dituzten hitzak eta egiturak erabiliko ditu trebatzaileak. Horretarako, esaldi motzak kateatu behar ditu trebatzaileak, eta ahoskera garbia erabili. Etengabeko input ulergarriari esker (sirimiria izango balitz bezala) garatzen dute ulermenaren gaitasuna ulertzaileek, eta hori da, hain zuzen ere, Uler-saioen funtsa. Kontrol eta erronka sentsazioak nabaritu behar dituzte ulertzaileek. Kontrol -sentsazioak lasaitasuna emango dio ulertzaileari, baina erronka puntua izan behar du era berean.

Sintonizazioa:

Beste hitzetan: trebatzaileak eta ulertzaileek elkar ulertzea. Irratiaren gurpiltxoarekin egiten dugun bezala irrati-kate jakin bat bilatzean, trebatzaileak ulertzaileekin sintonizatu behar du etengabe, lanketak errazegiak edo zailegiak izan ez daitezen (kontrol- eta erronka- sentsazioak)

Zuzeneko egiaztatzea:

Ulertzaileak entzundakoa itzultzen edo laburtzen duenean zuzenean egiaztatzen ari da ulertutakoa.

Zeharkako egiaztatzea:

Aginduak ematen direnean, esate baterako, ulertzaileek jasotako aginduak betetzean gauzatzen dena. Harira datozen iruzkinak (entzundakoak poza, harridura, tristura, eragiten ote dion...) egitea ere zuzeneko egiaztatzea litzateke (hitzez hitzezko itzulpena izan gabe ere).

Mezua helburu teknikak: bideoa kontatu / albistea kontatu

Bideoa kontatu.

Soinurik gabeko bideo bat kontatzean datza. Trebatzaileak bideoan ikusten dena kontatzen du euskaraz eta zuzen edo zeharka egiaztatzen du ulertzaileek jasotakoa. Oso teknika anitza da; azken batean, bideoaren argumentuan oinarritu gaitezke, baina hamaika bidezidorretatik jo dezake trebatzaileak aldi berean: ulertzaileek pertsonaien janzkera, izaera eta beste jorra ditzake, eta bideotik atera eta ulertzaileak zirikatu.

Albistea kontatu

Komunikabideetatik hartutako albiste/erreportaje/elkarrizketa bat kontatzean datza. Trebatzaileak ulertzaileekin sintonizatuko du -ez du albistea gordinean, komunikabidean agertzen den bezala kontatuko, baizik eta ulertzaileekin sintonizatu ostean, modu ulergarrian kontatuko du. Esaldi bakoitzaren ondoren egiaztatze lana egingo du.

Forma Helburu

Bi estrategietako bat da. Komunikazio-estrategia mota honen helburua da ulertzaileek esaldi edo diskurtso baten elementu (hitz) guztiak ulertzea. Arreta eta denbora eskainiko diogu hizkuntza formen (hitzen eta egituren) esanahia eta osaera ulertzeari; ulertarazte horretan hizkera gramatikalik apenas erabili gabe.

Komunikazio-estrategia honetan, forma lantzean, ezinbestekoa izango da zuzeneko egiaztatzea erabiltzea: hau da, ikasleak forma horren esanahi zehatza adierazi behar du.

Forma berria maiz erabili behar dugu, gutxienez, 60 aldiz. Helburua da forma berria % 80 barneratzea saio batean.

Forma berriak modu gradualean azalduko ditugu.

Forma berriak lantzeko urratsak

Hiru urrats dira:

1. Agertu

Forma berria beti esaldi batean agertuko da (testuinguru batean). Bi modutan ager daiteke: ulertzaileak eskatuta (asimilaziotik gertuago dago, beraz, egokiagoa da), edota trebatzaileak planifikatuta (argi izan behar dugu zein forma berri landu nahi dugun, eta beti esaldi batean eta kontestu batean agertuko da). Behin, forma berria agertuta ezinbestekoa da zuzeneko egiaztatzea egitea.

Forma berriak gutxi, errazak, kontzienteak eta erabilera handikoak izango dira (arretaguneak ondo zehaztu).

2. Ulertu

Forma berria ulertzeko hiru estrategia ditugu:

- Ez hitzezko komunikazioa (keinuak, irudiak, soinuak ...)
- Euskaran oinarritutako estrategia (eraginkorrena, input ulergarri gehien ematen dugu horrela):
  - Estrategia lexikala: definizioak, adibideak, egoerak, sinonimoak
  - Estrategia sintaktikoa: ezaguna lagun (ezagutzen duena, ezagutza-zaharra, ezagutzen ez duenarekin, ezagutza-berriarekin, lotu)
- Erdaran oinarritutako estrategia: itzulpena (salbuespena izango da, azken aukera gisa erabiliko dugu)

Urrats honetan ere zuzeneko egiaztatzea egingo dugu.

3. Maiz erabili

Forma berriak (arretaguneak) gutxienez 60 aldiz errepikatuko ditugu. 60 aldiz entzun eta ulertu behar dituzte. Lehenbizi, ezagutzen dutenarekin (zaharrarekin) agertuko dira, eta behin barneratu dutela ikusten dugunean, bakarrik esango ditugu.

Ezaguna Lagun

Forma berriak ulertarazteko teknika da. Helburua da ezagutza berria ezagutza zaharrarekin lotzea, eta biak elkarrekin esaldi berean agertzea.

Arretaguneak vs momentuko euskarriak

Arretaguneak:

Landu nahi ditugun formak (hitzak, sintaxia, aditza...) dira. Saioan zehar maiz errepikatu behar ditugu (60 aldiz, gutxienez), eta helburua da ulertzaileek % 80 barneratzea arretaguneak. Saio bakoitzean arretaguneak gutxi izango dira (gehienez 3), kontzienteak behar dute izan, oso maiz erabiliko ditugu eta gradualki landuko ditugu.

Momentuko euskarriak:

Arretaguneak lantzeko eta forma berriak lantzeko behar dugun lexikoa litzateke. Kasu honetan, ez ditugu hainbeste errepikatu behar (helburua % 20 barneratzea litzateke).

Momentuko euskarriak erabiltzean / aukeratzean hitz-familiekin aritzea komeniko litzake.

Istorioa kontatu

Istorio bat kontatzea da helburua. Albistea kontatu teknikaren dinamika bera jarraituko genuke, baina, kasu honetan istorioa kontatuko dugu. Gure hizkera ulertzailearen mailara egokituko dugu, eta esaldi bat esan ondoren ulertu duen egiaztatuko dugu. Ulertzaileak ez badu ulertu birformulatuko dugu (mezua helburua) edota forma azalduko diogu (forma helburu).

Ez dugu istorioa zehatz jarraitu behar, istoriotik atera gaitezke nahi dugunean.

Galde-gurpila

Arretaguneak/hitzak maiz erabiltzeko estrategia bat da. Helburua da ulertzaileei galderak egitea, eta ulertzaileak erantzutea. Galde-gurpila egiten dugunean, beti, ulertzaileak ezagutzen dituen hitzak erabiliko ditugu.

Hiru motako galderak ditugu

- Bai / ez
- Bata ala bestea
- Galdetzaileak erabiltzen dituzten galdera (nor, zein, non...)

Galdetzaileak ikusgai izan behar ditugu eskolan.

Istorioa galdetu

Istorio bat kontatzea da helburua, baina kontatu baino gehiago galdetu egiten da. Hau da, esaldi bat esan eta galdetu egingo dugu (galde-gurpila teknika erabiliz). Istorioa ez da jarraitua, etengabe ditu geldiuneak eta galde-erantzun jokoak.

Bi urratsetan egiten da:

1. Hitza/ekintza ulertarazi (forma berriak lantzeko lehen bi urratsak: agertu, zuzeneko egiaztatzea, ulertu, zuzenezko egiaztatzea)
2. Istorioa kontatu (galdetu): istorioaren esaldi bat esan eta galdetu (galde-gurpila teknika). Argi izan behar dugu zein diren arretaguneak eta horiek 60 aldiz errepikatu behar ditugu.

Aginduak teknika

Arretaguneak edo hitzak maiz erabiltzeko estrategia bat da.

Helburua da ulertzaileari ekintza bat egiteko eskatzea / agintzea. Ulertzaileak ekintza zuzen egiten badu ulertu duen seinale.

Horretarako, lehenbizi hitza edo ekintza ulertaraziko dugu. Behin ulertarazita ekintzaren itzulpena ikusgai jarriko dugu (arbelean, horman...). Eta, ondoren, aginduak emango ditugu behin eta berriz. Kasu honetan ere, arretaguneek kontzienteak behar dute izan eta maiz erabili behar ditugu (60 aldiz).

Behin, ulertzaileek barneratu dutela ikustean, lehendik ezagutzen dituzten hitzak sartu ditzakegu.

5 ANTOLAKETA

Esperientzia garatzen ari den bitartean, **trebatzaileen erreferentziazko pertsona aditua** izango da. Dokumentu honetan[33] kontsulta dezakezue aditu bakoitzak zein trebatzaileri eta esperientziari egingo dion jarraipena.

[33] Dokumentua topatzeko, ATARI DIGITALeko karpeta: "Dokumentuak > 2024-2025 Esperientziak". Dokumentuaren izena: "Uler-saioak. Esperientziak 2024-2025. - Informazio-emaileak"

10.12 ULER-SAIOAK - ESPERIENTZIEN ANTOLAKETA – URRATSAK ETA IRIZPIDEAK







10.13 SISTEMA INTEGRALA PROBA PILOTUAK. ULERRIZKETAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

Metodología Ulerrizketa.

Principales características de una experiencia

- Son experiencias **voluntarias**. Los participantes deciden si llevarlas a cabo o no.
- Se forma un **núcleo de *ulerrizketa***: un ***ulertzaile*** y dos ***mintzatzaile***-s.
  - Si no es posible conseguir dos ***mintzatzaile***, también es posible iniciar la experiencia con un único ***mintzatzaile***.
- El/la ***ulertzaile*** y los ***mintzatzaile***-s interesados en llevar a cabo una experiencia de este tipo, reciben una **breve formación** (2 o 4 horas, según el caso) con un/a formador/a. En ella conocen de forma práctica las pautas para comunicarse en modo ***Ulerrizketa***. Contando con ese conocimiento, y teniendo en cuenta su relación, toman la decisión de comenzar -o no- la experiencia.
- Las experiencias tienen una **duración de 8 semanas** (2 meses), pero los participantes deben **confirmar semanalmente** si desean continuar con la misma.
  - Si en cualquiera de esas 8 semanas deciden que no quieren continuar, se da por finalizada la experiencia.
  - Durante la experiencia, uno de los tres miembros asume el rol de coordinador para enviar los cuestionarios semanales al compañero/a que hace el seguimiento de la experiencia en Aldahitz Ikerketa.
- ***Ulerrizketa*** es una experiencia colaborativa en la que tanto el/la ***ulertzaile*** como los/las ***mintzatzaile***-s hacen un esfuerzo, el primero para una comprensión activa del euskera, y los segundos para adaptar y hacer comprensible su euskera.
- Gracias a este trabajo colaborativo, y siguiendo los sencillos criterios practicados en la formación, es posible **comenzar a utilizar el euskera** en la relación ***ulertzaile-mintzatzaile***, que hasta entonces era en castellano, a través del estilo ***Ulerrizketa***.
  - Se inicia así un proceso de cambio de hábitos lingüísticos, gracias al cual el/la ***ulertzaile*** tiene la oportunidad de ir progresivamente entendiendo cada vez más euskera, así como de comenzar a utilizarlo (en la medida en que se sienta capaz de hacerlo).
  - Los ***mintzatzaile***-s, por su parte, aprenden de forma práctica a adaptar su euskera. Esto les abre la posibilidad de hablar euskera con quienes tienen un nivel intermedio de comprensión oral (alrededor de B1), utilizando, entre otros recursos, **conversaciones bilingües**.
- Pasadas las 8 semanas de experiencia, si hasta entonces se ha confirmado semanalmente su continuidad, **finaliza la experiencia**. La semana siguiente se lleva a cabo una **valoración** de la experiencia en una reunión.

www.soziolinguistika.eus

Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

Ulerrizketa metodologia.

Esperientzia baten ezaugarri nagusiak

- **Borondatezko** esperientziak dira. Partaideek erabakitzen dute esperientzia egin edo ez.
- **Ulerrizketa-unitate** bat osatzen da: ***ulertzaile*** bat eta bi ***mintzatzaile***.
    - Bi ***mintzatzaile*** lortzea ezinezko bada, posible da ere esperientzia abiatzea ***mintzatzaile*** bakarrarekin.
- Halako esperientzia bat egiteko interesa duten ***ulertzaile*** eta ***mintzatzaile***-ek **formazio labur bat** egiten dute (2 edo 4 ordukoa, kasuaren arabera), trebatzaile batekin. Formazio horretan, modu praktikoan ikusten dute nola egiten den ***Ulerrizketa***. Hori ezagututa, eta haien arteko harremana kontuan izanik erabakitzen dute esperientzia abiatu edo ez.
- Esperientziek **8 asteko iraupena** izaten dute (2 hilabete), baina partaideek **astero berretsi** behar dute esperientziarekin jarraitu nahi duten.
    - 8 aste horietako edozeinetan erabakitzen badute ez dutela jarraitu nahi, bertan behera geratzen da esperientzia.
    - Esperientzian zehar, hiru kideetako batek koordinatzaile rola hartzen du asteroko galdetegiak bidaltzeko Aldahitz Ikerketan esperientziaren jarraipena egiten duen kideari.
- ***Ulerrizketa*** esperientzia kolaboratibo bat da, non ***ulertzaileak*** zein ***mintzatzaileak*** ahalegin bat egiten duten, batak euskarazko ulermenean aktiboki jokatzeko eta besteak bere euskara egokitu eta ulergarri egiteko.
- Lan kolaboratibo horri esker, eta formazioan jasotako irizpide sinpleak jarraituz, posible da ordura arte gaztelaniaz zen ***ulertzaile-mintzatzaile*** harremanean **euskara erabiltzen hastea**, ***Ulerrizketa*** estiloan.
    - Modu horretan, hasiera ematen zaio hizkuntza-ohituraren aldaketa-prozesu bati, eta ***ulertzaileak*** aukera du progresiboki gero eta euskara gehiago ulertzeko. Baita euskara erabiltzen hasteko ere (horretarako gai sentitzen den neurrian).
    - ***Mintzatzaileak***, bere aldetik, ikasten du modu praktikoan bere euskara egokitzen. Horrek aukera zabaltzen dio euskara ahoz ulertzeko tarteko maila (B1 ingurukoa) dutenekin euskaraz aritzeko, **ele biko elkarrizketak** baliatuz, besteak beste.
- Esperientziaren 8 asteak pasatakoan, ordura arte astero berretsi bada jarraitzea, esperientzia **amaitzen da**. Amaitu eta ondorengo astean **balorazio-bilera** bat egiten da.

www.soziolinguistika.eus

10.14 SISTEMA INTEGRALAREN PROBA PILOTUAK. ZER DA ULERRIZKETA?

¿QUÉ ES "ULERRIZKETA"?

Damos el nombre de ***Ulerrizketa*** a una forma especial de conversación que, como es habitual, cuenta con dos miembros o interlocutores/as. La/el primera/o tiene facilidad para hablar euskera y la/el segunda/o se encuentra en una situación *intermedia*: por un lado, puede entender lo expresado en euskera si se le habla de forma sencilla y lenta, pero, por otro, no puede seguir cualquier conversación en euskera, y no se siente capaz de hablarlo.

Al compañero o compañera que se desenvuelve bien en euskera le llamamos ***mintzatzaile***, porque intenta ofrecer mensajes comprensibles utilizando un euskera fácil y hablando despacio. "Mintzatu" es hablar en euskera, por tanto, ***mintzatzaile*** sería "el que -o la que- habla".

Al miembro que entiende en euskera le llamamos ***ulertzaile***, porque tiene una actitud abierta y activa para entender cuando los demás compañeros se le dirigen en euskera, y les pide que lo hagan mediante un euskera fácil. "Ulertu" es entender en euskera, por tanto, ***ulertzaile*** sería "el que -o la que- entiende".

Llamamos ***Ulerrizketa*** a este diálogo especial porque uno se esfuerza en hacer comprensible su euskera, y el otro hace un esfuerzo claro por entenderlo.

Ulerrizketa, por tanto, exige un esfuerzo tanto a un interlocutor/a como al otro. No obstante, la metodología ofrece para ambas partes consejos y pautas simples para hacer llevadero ese esfuerzo. Practicando estos consejos y criterios, se puede adquirir el hábito de actuar de esta manera, y entonces ***Ulerrizketa*** se convierte en una actividad natural, que nos sirve para hablar de cualquier tema o utilizarlo en cualquier situación.

En ***Ulerrizketa*** el o la ***ulertzaile*** suele hablar en castellano, ya que tiene una capacidad limitada para hablar en euskera. El o la ***mintzatzaile*** en cambio, no sigue la tendencia (digamos, natural) de responder en castellano, y continúa en euskera, sabiendo que su compañero/a le entenderá. El ***ulertzaile***, por su parte, sea en castellano o en euskera, expresa y confirma continuamente que ha comprendido. De esta forma, el ***mintzatzaile*** recibe a menudo la confirmación de que el ***ulertzaile*** le ha entendido, y sabe que si en algún momento no es así, este se lo hará saber. Así, en ***Ulerrizketa*** sucede a menudo que el o la ***ulertzaile*** habla en castellano y el ***mintzatzaile*** en euskera: llamamos a esta dinámica ***conversación bilingüe***.

Al principio resulta extraño utilizar dos lenguas en una misma conversación, pero la práctica va cambiando esa sensación hasta convertirlo en algo habitual. Ayuda mucho ver en la práctica que la comunicación no se ve perjudicada, aunque sí exija a las dos partes adaptarse y colaborar.

Adaptando su forma de hablar (el ***mintzatzaile***) y comprobando lo entendido (el ***ulertzaile***), se establece una nueva dinámica entre los participantes, que hace posible que esa relación comience a ser (también) en euskera, gracias al esfuerzo cómplice de ambas partes.

INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA (EN EUSKERA)

En la página web de **Aldahitz Ikerketa:**

https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/aldahitz-ikerketa/

- *Aldahitz Ikerketa. Ulerrizketa metodologia* argitalpena (Jauregi eta Suberbiola, 2019)
- Metodologiaren oinarriak. Bideoa, Pello Jauregi-ren azalpena (1 ordu inguruko iraupena; 2019ko mintegia, Gasteizen)
- ***Ulerrizketa*** esperientzien lekukotzen bideoa (2019; 7:37')
- ***Ulerrizketa*** esperientzia baten antolaketari buruzko bideoa (Emun-eko Kristina Pavo lankidearen azalpena. 2019; 13:17')
- ***Ulerrizketa metodologia***ri buruzko adibideen bideoak ("Lantokian" eta "Aisialdian) eta horietan oinarritutako "bideo tutoriala" (2019).

ZER DA ULERRIZKETA?

Ulerrizketa izena ematen diogu elkarrizketa molde berezi bati, eta elkarrizketa guztiek bezala bi kide edo solaskide ditu. Lehenak euskaraz hitz egiteko erraztasuna du, eta bigarrena *tarteko* egoera batean dago: batetik, euskaraz esandakoa uler dezake baldin eta modu errazean eta poliki hitz egiten bazaio, baina, bestetik, ezin du euskarazko edozein elkarrizketa jarraitu eta ez da gauza sentitzen euskaraz egiteko.

Euskaraz ongi moldatzen den kideari ***mintzatzaile*** esaten diogu, euskara erraza erabiliz eta poliki mintzatuz saiatzen delako mezu ulergarriak egiten.

Euskaraz ulertzen duen kideari ***ulertzaile*** esaten diogu, jarrera zabala eta aktiboa duelako euskaraz ulertzeko beste kideek euskaraz egiten diotenean, eta eskatu egiten dielako berari euskara errazean egiteko.

Batek euskara ulergarria egiteko ahalegina egiten duelako, eta besteak ulertzeko ahalegin argia egiten duelako esaten diogu ***Ulerrizketa*** elkarrizketa berezi honi.

Ulerrizketak, orduan, ahalegina eskatzen dio solaskide bati zein besteri. Ordea, ahalegin hori eramangarri bihurtzeko aholku eta jarraibide sinpleak eskaintzen zaizkie metodologia honetan, kide bati zein besteari. Aholku eta irizpide horiek praktikatuz, ohitura har daiteke horrela jarduteko, eta orduan ***Ulerrizketak*** jarduera naturalaren tankera hartzen du, eta edozein gaiz hitz egiteko eta edozein egoeratan erabil daiteke.

Ulerrizketan ulertzaileak erdaraz hitz egin ohi du nagusiki, euskaraz hitz egiteko gaitasun mugatuta duelako. Baina ***mintzatzaileak*** eutsi egiten dio erdaraz erantzuteko joerari (joera naturala edo), eta euskaraz jarraitzen du, jakitun kideak euskaraz ulertuko diola. ***Ulertzaileak***, bere aldetik, aldiro adierazi eta ziurtatu egiten dio ulertu diola, modu aktiboan. Modu horretan, ***mintzatzaileak*** aldiro jasotzen du konfirmazioa, ***ulertzaileak*** ongi ulertu diola euskaraz, eta uneren batean hala ez bada, jakinaraziko diola. Beraz, ***Ulerrizketak*** eskatzen du hainbat unetan ***ulertzaileak*** erdaraz eta ***mintzatzaileak*** euskaraz hitz egitea: horri esaten diogu ***ele-biko elkarrizketa***.

Hasieran arraroa izaten da bi hizkuntza erabiltzea elkarrizketa berean, baina praktikak aldatzen du arrotz sentsazio hori eta ohiko bihurtzen. Asko laguntzen du praktikan ikusteak komunikazioa horrela aritzeagatik ez dela kaltetzen, bi aldeetatik egokitzea eta elkarri laguntzea eskatzen badu ere.

Hizkera egokituz (***mintzatzailea***) eta ulertutakoa konprobatuz (***ulertzailea***), dinamika berri ezartzen da partaideen artean, posible egiten duena harremana euskaraz (ere) izaten hastea, bi aldeen ahalegin konplize horren emaitza gisa.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Aldahitz Ikerketa-ren webgunean, "***Ulerrizketa metodologia***" atalean:

https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/aldahitz-ikerketa/

- *Aldahitz Ikerketa. Ulerrizketa metodologia* argitalpena (Jauregi eta Suberbiola, 2019)
- Metodologiaren oinarriak. Bideoa, Pello Jauregi-ren azalpena (1 ordu inguruko iraupena; 2019ko mintegia, Gasteizen)
- ***Ulerrizketa*** esperientzien lekukotzen bideoa (2019; 7:37')
- ***Ulerrizketa*** esperientzia baten antolaketari buruzko bideoa (Emun-eko Kristina Pavo lankidearen azalpena. 2019; 13:17')
- ***Ulerrizketa metodologia***ri buruzko adibideen bideoak ("Lantokian" eta "Aisialdian) eta horietan oinarritutako "bideo tutoriala" (2019).

10.15 SISTEMA INTEGRALAREN PROBA PILOTUAK. AUKEREN FITXA

Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

Uler-saioak 3-tik Ulerrizketa-ra. Proba pilotuak.

Mintzatzaile egokiak lokalizatzeko

AUKEREN FITXA

Data:
Lekua:
Nork betea:

1) ¿Te gustaría llevar a cabo una experiencia piloto de *Ulerrizketa*? (recibir la formación)

Ulerrizketa esperientzia pilotu bat egin nahiko zenuke? (gutxienez, formazio-saioa egiten)

2) ¿Cuentas en tu entorno cercano con *mintzatzaile*-s que puedan tener las características descritas en la reunión?

Baduzu zure inguruan bileran adierazitako ezaugarriak betetzen dituen *mintzatzaile*-rik?

3) Información sobre posibles *mintzatzaile*-s

Balizko mintzatzaile-ei buruzko informazioa

3.1.- Mintzatzaile 1

Nombre / Izena:

A.- ¿Qué tipo de relación tienes con el/ella? (describela brevemente)
Zein harreman mota duzu berarekin? (deskriba ezazu laburki)

www.soziolinguistika.eus

Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

B.- ¿Consideras que tenéis una relación de suficiente cercanía/complicidad como para una experiencia de tipo colaborativo como Ulerrizketa?
Zure ustez baduzue *Ulerrizketa*-ren moduko esperientzia kolaboratibo bat aurrera eramateko moduko harremanik zuen artean?

C.- ¿Crees que durante 8 semanas podríais tener conversaciones a menudo? (diariamente, o casi diariamente, y al menos 30 minutos al día)
Uste duzu 8 astetan zehar baduzuela aukerarik elkarrekin maiz hizketan aritzeko? (egunero, edo ia egunero, eta gutxienez 30 minutu egunean)

D.- (podrás valorarlo mucho mejor si lleváis a cabo la formación, pero) ¿Crees que podríais aplicar a vuestra relación actual el "estilo" Ulerrizketa?
(askoz hobeto baloratu ahalko duzu formazioa egiten baduzue, baina) Uste duzu gaur egun duzuen harremanean aplikatu dezakezuela *Ulerrizketa* "estiloa"?

3.2.- Mintzatzaile 2

Nombre / Izena:

A.- ¿Qué tipo de relación tienes con el/ella? (describela brevemente)
Zein harreman mota duzu berarekin? (deskriba ezazu laburki)

B.- ¿Consideras que tenéis una relación de suficiente cercanía/complicidad como para una experiencia de tipo colaborativo como Ulerrizketa?
Zure ustez baduzue *Ulerrizketa*-ren moduko esperientzia kolaboratibo bat aurrera eramateko moduko harremanik zuen artean?

C.- ¿Crees que durante 8 semanas podríais tener conversaciones a menudo? (diariamente, o casi diariamente, y al menos 30 minutos al día)
Uste duzu 8 astetan zehar baduzuela aukerarik elkarrekin maiz hizketan aritzeko? (egunero, edo ia egunero, eta gutxienez 30 minutu egunean)

www.soziolinguistika.eus



Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

D.- (podrás valorarlo mucho mejor si lleváis a cabo la formación, pero) ¿Crees que podríais aplicar a vuestra relación actual el "estilo" Ulerrizketa?
(askoz hobeto baloratu ahalko duzu formazioa egiten baduzue, baina) Uste duzu gaur egun duzuen harremanean aplikatu dezakezuela *Ulerrizketa* "estiloa"?

3.3.- ¿Aparte de los mintzatzaile-s arriba descritos, si fuera necesario, podrías identificar alguno/a más en tu entorno de relaciones cercano?

Gorago aipaturiko bi mintzatzaile horiez gain, beharrezkoa balitz, izango zenuke aukera zure harreman hurbiletan besteren bat identifikatzeko?

www.soziolinguistika.eus

10.16 SISTEMA INTEGRALAREN PROBA PILOTUAK. ARDURADUNAREN DOKUMENTUA



Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

ULER-SAIOAK 3-TIK > ULERRIZKETA-RA. PROBA PILOTUAK ETA IKERKETA 2024

ARDURADUNAREN DOKUMENTUA

PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK, BALDINTZAK ETA URRATSAK

2024KO APIRILA

1) Ideia orokorra eta urratsak

- *Uler-saioak 3* zikloa amaitu duten ikasleekin, proba pilotu bat egingo dugu haien euskararen ikaste- eta erabiltze-prozesuarekin aurrera jarraitzeko, *Ulerrizketa* esperientzien bitartez.
- Esperientzia hauek ez dira *Uler-saioak* bezala klase-orduetan egiten, baizik kideen arteko harreman naturalaren baitan (laneko harreman formalean, informalean... haiek duten harremanean).
- Borondatezko esperientziak izango dira, nahi duten *ulertzaileek* soilik parte hartuko duta.
- Baina ez nahi duen *ulertzaile* orok, gutxieneko baldintza batzuk eskatuko dira, esperientziak ongi ateratzeko aukerak bilatu asmoz.
- Ideia nagusia da esperientzia egiteko parte hartuko duen *ulertzaile* bakoitzak behar dituela, borondatea eta B1 inguruko ulermen-mailaz gain, bere hurbileko harreman naturalean bi *mintzataile* (edo, gutxienez bat). *ulertzailearekin* shoako harremana maiz izaten dutenak, eta prest daudenak probatzeko euren harremana 8 astez *Ulerrizketa* moduan edo estiloan egitea (ikusi informazio osagarrian zertan datzan *Ulerrizketa*).
- Esperientzia hauek antolatzeko, lehen urratsa izango da *Uler-saioak 3* egin duten *ulertzaileekin* bilera bat antolatzea. Bilera horretan adierazoko zaie zer den *Ulerrizketa*, proposatuko zaie esperientzia pilotu hau egiteko aukera, eta (interesa dutenei) galdetuko zaie ea zein aukera duten haien inguruan *mintzataile* aldetik.
  - Bileran bertan "*Aukeren fitxa*"-n jasoko da informazioa, eta, beharrezkoa bada, osatu egingo da hurrengo egunetan, baliteke *mintzataileei* zuzenean kontsulta egiñda (*ulertzaileak* berak, edo arduradunak).
- Behin osatuta, tauletan jasotako informazioa pasako die arduradunak Aldahitzeko Ikerketa Taldeko kideei eta baloratuko dira esperientziak egiteko aukerak.
- Aukera egokiak dituzten *ulertzaile* eta *mintzataileekin* formazio laburrak antolatuko dira (2 ordukoa edo 4 ordukoa, kasuaren arabera, haientzat errazena den ordutegi eta lekuan).

1

Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

- Formazioa eginik (bertan modu praktikoan ikusten dute zer den *Ulerrizketa*, eta nola egiten den), *ulertzaile* eta *mintzataileek* erabakiko dute *Ulerrizketa* esperientzia abiatzeko pausoa eman nahi duten, edo ez.
- Esperientziak abiatzea erabakitzen den kasuetan, formazioa egin eta hurrengo egunean bertan abiatuko dira.
- Esperientziek 8 asteko iraupena dute, baina astez aste berretsi behar dute partaideek ea jarraitu nahi duten.
- Esperientzien jarraipena Aldahitzeko Ikerketa Taldeko kideek egingo dute (harremanetan egongo dira, beharko balitz, guneko arduradunarekin ere).
- Esperientziak laneko edo partaideen harremaneko egoera naturalean egiten dira, aparteko saiorik edo klaserik gabe. Esperientzia hauetan parte hartzen dutenei, eskatuko dien denbora eta lana honako hau da:
  - Hasierako bilera informatiboa, *ulertzaileentzat* (*mintzataileen* kasuan, hasierako kontsulta soilik, ea prest leudekeen).
  - Formazio laburra egitea (kasuaren arabera, 2 edo 4 ordu).
  - 8 astez, astero, ostiralean 2 minutu asteko berrespena egiteko, eta astelehenean beste 2, berrresteko esperientziarekin jarraitzen duten (edo ez).
  - Esperientzia amaitzean (amaitu eta hurrengo astean), ordu beteko tartea, balorazio-bilera egiteko.
  - Esperientzia amaitu eta hiru hilabetera, 5 minutu, galdetegi labur bat betetzeko.
- Aipatu bezala, esperientzia pilotu hauek ez dute, aurreko puntuan zerrendatzen dugu, denbora edo aparteko ahalegirik eskatzen, baina bai eskatzen du *ulertzaile* eta *mintzataileen* artean maiz hitz egitea, eta komunikazio hori *Ulerrizketa* moduan egitea, horretarako beharrezko den gutxieneko denbora eta lasaitasunarekin, batetik (ez presaka edo tentsio handirekin). Eta bestetik, eskatzen du elkarren arteko konpromisoa, aldakatak ekarriko dien "arrarotasuna" onartzeko, hasierako komunikazio-zailtasunak pazientziaz hartzeko, eta abar.

2) Ulerrizketa esperientzian parte hartzeko baldintzak

Hiru baldintza bete beharko dituzte esperientzia pilotu hauetan parte hartuko duten *ulertzaileek* eta (balizko) *mintzataileekin* duten harremanak:

A. Euskarez B1 inguruko ulermena izatea.
  - Ez dugu probarik egingo.
  - Suposatuko dugu *Uler-saioak 3* saioak ongi eraman dituzten kideak maila horren inguruan ibiliko direla.
  - Trebatzailearen iritzi subjektiboan oinarrituko gara, era bere ustez (dena delakoagatik: abiapuntua, asistentzia...) maila horretan ez dauden kideei ez zaie proposatuko esperientzia egiteko aukera (ikus honetaz beherago 3. ataleko "2)" puntua).
    - Zehatzago esateko, *Uler-saioak 3* esperientzianen Itzulketa-txosteneean trebatzaileek HEOC irizpideen arabera "2" eta "3" mailetan kokatu dituzten *ulertzaileei* proposatuko zaie, baina ez maila baxuan ("1") kokatu dituztenei.

2

Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

B. Interesa eta baloratzea egingarri izan litekeela.
  - Euskararen ikaste- eta erabiltze-prozesuarekin aurrera jarraitzeko interesa izan behar du *ulertzaileak*.
  - Esperientzia pilotu honetan parte hartzeko prestutasuna. Gutxienez, prest egon behar du formazioa egiteko; han ikusiko du modu praktikoan zer den *Ulerrizketaa* artzea, eta baloratuko du *mintzataileekin* batera ea egingarria ikusten duten halako esperientzia bat egitea haien artean (haien harreman naturalean); ea ez den gehiegizko erronka.

C. Harreman-sare naturalean (lankideak, lagunak, bezeroak...)[1], *mintzataileen* aukera izatea, ea haiengandik egoera errealetan euskaraz *input ulergarria*[2] jasotzekoa, gutxieneko kopuruan (input kopurua, harreman-denbora...) eta gutxieneko lasaitasunarekin (espazioa, kalitatea, lasaitasuna...). Irizpide ebo erreferentzia hauek erabiliko ditugu:
  - Irudikatzen duen *mintzataileaarekin* harremana maiz izatea: egunero, edo ia egunero.
    - Gaur egungo harremanean hala ez bada ere, aukera erreala ikustea *Ulerrizketa* esperientziak irauten dituen 8 asteetan harremana maiz izateko.
  - Bi *mintzataileekin* hurbileko harremana izatea (formala, informala, edo biak), eta gutxieneko konfiantza, elkarrekin lan kolaboratibo bat egiteko aukera ematen diena (elkar laguntza, enpatia...).
  - *Ulerrizketa*-ko formazioa eginda, bi *mintzataileekin* (edo, gutxienez, batekin) aukera ikustea beraien gaur egungo harremana (dena delakoa) 8 astez gehienbat *Ulerrizketa* estiloan egiteko.
    - Ideia ez da haien harremana orain arte bezala gazteleraz jarraitzea eta tarte batzuk berezki hartzea *Ulerrizketa*-n artezko. Bazik haien harremana, bere osotasunean, esperientziak irauten duen bitartean gehienbat *Ulerrizketa* estiloan bideratzera aldaketa egitea (formazioan landutako teknika, irizpide eta aholuketen).
    - Gehienbat *Ulerrizketa* estiloan artzeko "arau" edo proposamen hau bete beharko da, behintzat, *ulertzailea* eta *mintzataileaa* biak bakarrik ari direnean.
      - Elkarrizketan haiek biakin batera kide gehiago daudenean, ez da beharrezkoa izango baldintza hau betetzea, tartean egon daiteekelako euskara ulertzen ez duten kideak.
    - Proposamena da, 8 astesetan zehar *ulertzailearen* eta *mintzataileaaren* arteko harremana gehienbat *Ulerrizketa* estiloan egitera pasatzea: hau da, harremanean ematen duten denbora gehienean, eta egoera gehienetan.

[1] Esperientzia erakunde batean dagoen (enpresa...), bertako harreman-sarera mugatuko gara, esperientzia erakundearen barnako egitaasmoa delakoan. Esperientzia erakunde baten barnaka ez dagoan *ulertzaile* bakoitzaren harreman-sarea izango da ereferentzia.
[2] Beste hitz batzuetan: *Ulertzaile* horrek ulertzeko moduko euskara, euskara *egokitua*. Ikus, *Ulerrizketa metodologia* argitalpena (2019), 2.4 atala (18-27 or.).

3



Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

- Salbuespen modura, egon daitezke uneak edo elkarrizketa laburrak non gaztelaniaz ariko diren, egoerak hala eskatuta (denborarik ez, egoera...), baina une edo tarte labur hori pasata, berriz itzuliko dira *Ulerrizketa* estilora.
- *Mintzatailearekin Ulerrizketan* aritzeko denbora eta gutxieneko lasaitasuna izatea:
  - Erreferentziaz gutxienez, egunero 30 minutuz aritu ahal izatea *mintzataile* batekin, edo, bi badira, bien jarduna batuta gutxienez denbora hori izatea.
  - Gorago adierazi bezala, *Ulerrizketan* aritze hori harreman naturalean izango da: laneko gaiak (formalak edo informalak), edo haien ohiko gai informalak, baina ez berariaz "euskara praktikatzeko" geratzea.
  - Esperientzia egiteko, beharrezkoa da, tentsio edo estres aldetik, 8 aste horiek bolada txarra ez izatea.
- Proposamena da *ulertzaile* bakoitzak esperientzia egitea bi *mintzataileekin*.
  - *Ulertzaile* batek bere harreman-sare naturalean *mintzataile* bakarra badu, onartuko da esperientzia harekin egitea modu esperimentalean, bi kideen eta haien arteko harremanaren baldintzak egokiak badira.
    - Esperientzia *mintzataile* bakarrarekin abiatzen bada, dena den, arriskua hartzen da, *mintzataileaaren* edozein aldakataren aurrean (lan-egoera...) esperientzia bertan behera geratzeko.
  - *Mintzataile* bat *ulertzaile* bat baino gehiagorentzat egokia bada (harremanagatik), eta prest badago batekin baino gehiagorekin aritzeko, bermatu beharko da bakoitzarekin aukera duela gorago adierazitako denbora tartean aritzeko.

Horrez gain, *mintzataileaaren* aldetik, honako baldintza hauek bete beharko dira:

Ondoren adierazten diren baldintzak ezagunak egingo zaizkizue, zuzenki, mintzataileak *Uler-saioak 3* saioetan sartzeko proposatukoak direlako, funtzean.

- Euskarez ongi hitz egitea. Euskarez ongi, erraztasunez eta bere hizkera egokitzeko adinako gaitasunarekin hitz egiten duen hiztuna izan behar du.
  - Esperientzia hauetan ez dugu hitz egiteko gaitasun/erraztasun hori proba bidez neurtuko. Nolanahi ere, erreferentzia modura, bilatzen ari garen profila litzateke hiztun bat euskaraz ahoz egiteko C1 inguruko gaitasuna duena.
- Ez da ezinbestekoa, baina ahal dela bai komenigarria, ingurune horretan (lan-eremu horretan, harreman-sare horretan...) dagoeneko beste kide batzuekin euskaraz egiteko ohitura izatea hiztun horrek (eta beraz, bata erraztasuna ere).

4

Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

- Hala ez balitz, eta balizko *mintzataile* horrek, euskaraz hitz egiteko gaitasun eta erraztasun hori izan arren, eremu horretan orain arte beste inorekin euskaraz hitz egiteko ohituririk/joerarik ez badu, egon liteke aukera *mintzataile* lana ongi egiteko, baina kontuan hartu behar dugu erronka segurueenik handiagoa izango dela, bai *mintzataile* horrentzat, eta bai *ulertzailearentzat* ere.
- *Mintzataileak* bilatzeko eta hautatzeko beste irizpide bat gogoan izan dezakeguna partaionaren malgutasuna edo egokitzeko gaitasuna da: izaera mailan, nolabait.
  - Esaten dugu *Ulerrizketa*, neurri handian, lan "kolaboratiboa" dela, eta arileta enpatikoa eskatzen duela bi aldeetatik: bestearen lekuan jarri, gure adierazteko modua haren ulertzekoire hurbiltzen saiatu, eta alderantzizkoa (bi norabideatan).
  - Noski, ez da beti erraza halako gaitasunak nork dituen jakitea, eta noski ez gara hasiko balizko *mintzataileen* (eta *ulertzaileen*) "enpatia-mailaz" azterketak egiten, baina, besterik gabe, bada irizpide lagungarri bat *ulertzaileak* (edo arduradunak) kontuan har dezakeena, eta lagungarri suerta daiteekeana *mintzataile* egokiak topatzeko.
- Interesa eta borondatea.
  - Esperientzia pilotu honetan parte hartzeko prestutasuna izan behar du: gutxienez, formazioa egiteko.

3) Urratsak (zehatzago)

1) Guneko arduradunak enpresako edo erakundeko zuzendari, gerente edo dena delako arduradunari emango dio *Ulerrizketa* esperientziak modu pilotuan antolatzeko asmoaren berri, eta *ulertzaileei* proposatu aurretik bermatuko du ez legokeela haren aldetik eragozpenik.
2) Ikerketa Taldeak guneko arduradunari pasako dio *Uler-saioak 3* taldean trebatzaileak *ulertzaileei* buruz jasotako informazioa, haien aurrera begiratko asmo eta interesen inguruan.
  - Gune arduradunak trebatzailearekin kontrastatuko du egoki ikusten duen edo ez taldeko *ulertzaile* guztiei *Ulerrizketa* esperientzia abiatzeko proposatzea.
    - Egoki ikusten dituenekin, bilera labur bat antolatuko du arduradunak.
  - Egoki ikusten ez direnei, adierazko zaie urrats hori gehiegizkoa dela haientzat.
    - Esperientzia pilotu hauetan *ulertzaile* eta *mintzataileen* arteko harremana *Ulerrizketa* estilora pasatzea ez da edonolako aldakata, elkar ongi ezagutzen duten bi pertsonen arteko hizkuntza-ohituran aldaketa baten hasiera baita.
    - Esperientzia pilotu hauetan saiatu nahi dugu proposamen hori egiten horretarako baldintza egokiak izan ditzaketenei,

5

Aldahitz Ikerketa 2024
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

modu horretan esperientziak, partaideentzat erronka bat suposatu arren, ahal den neurrian positiboak eta atseginak izan daiteezen.
    - Gure ustez, B1 inguruko ulermen-maila momentuz ez duten batzuk *mintzataileekin* erronka gehiegizkoa izan liteke, eta partaideentzat ahalegina merezi izateko eta amaieran balorazio on bat egiteko aukerak asko gutxitzen dira.
    - Garrantzitsua da, beraz, trebatzailearen ustez baldintza hori betetzen ez dutenei hau ongi azaltzen saiatzea, inor ez mintzeko.
3) Guneko arduradunak bilera bat antolatuko du *Uler-saioak 3* amaitu duten eta trebatzailearen ustez *Ulerrizketan* aritzeko egokiak diren *ulertzaile* guztiekin. Bileran:
  - Bileraren abiapuntua: bileran ellkartutako *ulertzaileak Uler-saioak 3* zikloetik aurrera jarraitzeko asmoa adierazi izana.
  - Arduradunak bileran ondorengo puntuak azalduko ditu (gaztelaniaz, edo euskara zein gaztelania baliatuz):
    - Zer den *Ulerrizketa*
    - Nola proposamena egiten zaien *Uler-saio 3 > Ulerrizketa* esperientzia bat osatzeko, eta nola prozesu hori eta esperientzia hori proba pilotu bat den.
    - Esperientzian parte hartzeko baldintzak.
    - Esperientzia egiteko urratsak eta garapena.
4) Bileran bertan, eta, behar bada, ondorengo egunetan osatuta (*ulertzaileek* kontsultak balizko *mintzataileei*), *Aukeren fitxa* osatuko da eta Ikerketa Taldera bidali.
  - *Ulertzaile* bakoitzak *Aukeren fitxa* fitxa bana osatuko du (word dokumentuan, edo paperean, harentzat erosoen dena).
5) Aukerak baloratuta, guneko arduradunarekin harremanetan, Ikerketa Taldeak proposatuko du (ea arduradunarekin baloratu) zein *Ulerrizketa-unitate* osatu litezkeen, eta haientzat formazioa noiz/nola antolatu.
6) Formazioa antolatuko da eta adostutako egunean formazio-saioa(k) egin.
7) *Ulerrizketa* esperientziak abiatzea erabakitzen duten *ulertzaile* eta *mintzataileek* haien arteko 8 astako esperientziak abiatuko dituzte.
8) Esperientzia amaitu ondorengo astean, balorazio-bilera bat antolatuko da partaideekin (1 ordu).
9) Esperientzia amaitu eta hilabete / bi hilabetera, partaideek eta arduradunek esperientziak eman duenari buruzko Itzulketa jasoko dute Aldahitz Ikerketa Taldearen aldetik.
10) Esperientzia amaitu eta hiru hilabetera, partaideei eskatuko zaie galdetegi labur bat betetzea (5 min).

6

10.17 SISTEMA INTEGRALAREN PROBA PILOTUAK. IKERKETA MAILAKO HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK



SISTEMA INTEGRALA
METODOLOGIEN ARTEKO LOTURA ETA JARRAIPENA IKERTZEA

ULER-SAIOAK 3 > ULERRIZKETA. PROBA PILOTUAK ETA IKERKETA 2024
IKERKETA MAILAKO HELBURUAK, IRIZPIDEAK ETA KONTUAN HARTZEKO OHARRAK

ALDAHITZ IKERKETA TALDEA ETA ULER-SAIOETAKO ADITU-TALDEA

2024ko iraila

1) Sarrera

Uler-saioak 3 amaitu eta *Ulerrizketa* metodologiaren esperientzia bat osatzeko egingo ditugun proba pilotu hauetan bi dokumentu erabilliko ditugu oinarri gisa: batetik "Arduradunaren dokumentua", ideia orokorrak, urratsak eta bestelakoak azaltzen dituena, eta, haren osagarri gisa, bigarren hau, aditu-taldeko kideek eta Ikerketa Taldeak erabiltzekoa, ikerketari begirako helburu, irizpide eta bestelakoak xehesago jasotzen dituena.

Bi dokumentu horiez gain, "Esperientzia_urratsak_ardurak_oharrak" excel fitxategian daude jasota esperientzia bakoitzaren urratsak, bailara beharreko dokumentuak eta kontuan hartu beharreko oharrak xehetasun gehiagorekin.

2) Helburuak

1. Aztertzea ea lortzen ote den *Uler-saioak 3* amaitu eta *Ulerrizketa* esperientzia baten proposamena onartu duten *ulertzaileak* harreman naturalezan[1] *mintzatzaileekin* *Ulerrizketa*-n ongi aritzera iristea.
   Gai hori aztertzea, bai ikuspegi kuantitatibotik, eta bai kualitatibotik:
- Kuantitatiboki
  - Esperientziak abiatu dituztenetatik, zenbaten kasuan lortu da *Ulerrizketa*-n nolabaiti aritzera iristea? Eta, *ongi* aritzera iristea? (Ikus beheraqo 3. puntua).
  - *Ulertzailea*-n aritzera iristea lortu den kasuetan (*ongi* izan edo ez), lortu da pertsona horiek duten harreman naturalaren egoera gehienetan (edo denbora gehienean) egitea, edo, aldiz, harremanaren zati edo une (oso) jakinetan soilik?

[1] Hemen, Aldahitz-ek ohi dugunez, "talde naturala" eta "harreman naturala" erabiltzen dugu zentzu honetan: *Uler-saioak* zein *Ulerrizketa* metodologiak, esperientziak eta abarrak alde batera utziz, lazako, lagun-taldeko edo dena delako harreman-careen harremanak finkatu bat izatea, elkarrekin maiz egotea eta artizea dakarrena, dela astolaketa formalagatik (xail bereko kideak, adibidez, lanean), dela bestelako harremanen informal edo alektiboengatik.

- Kualitatiboki
  - Esperientzia abiatu eta *Ulerrizketa*-n aritzea lortu den kasuetan, ea lortu den "ongi" aritzera iristea, edo soilik modu (oso) mugatu edo (oso) beharra bateen, edo gabezia nabarmenekin (*Ikus* beherago 3. puntua).

Lehen helburu hau zenbateraino eta nola beta den baloratzeko, informazio kuantitatibo eta kualitatibo hori konbinatuko ditugu.

Informazio hori konbinatzeko, esperientzia berri hauetan *ulertzaile* bakoitzak *mintzatzaile* bakoitzarekin duen harremana analisirako elementu[2] modura hartuko dugu, eta elementu horietako bakoitza baloratuko dugu, aipatu aldagai kualitatiboak eta kuantitatiboa konbinatzen dituen ondorengo matrizean kokatuz:

Ulertzaile eta *mintzatzaile* arteko harremanean iristi dira *Ulerrizketa*-n aritzera? (edo ez) Denbora gehienean bai? (edo ez) *Ongi* aritzera bai? (edo ez)

Kuantitatiboki ↓↓ / Kualitatiboki → →			
Bai, eta gehienetan			
Bai, baina ez gehienetan			
Ez			
	Bai, eta *ongi*	Bai, baina ongi aritzera iritsi gabe	Ez

2. Partaideen balorazio subjektiboak jasotzea (*ulertzaile* eta *mintzatzaile*), ondorengo hiru gaietan:
   a) Aldaketa edo trantsizioa (metodologia bateik bestera).
   b) Euskararen ikaste- eta erabiltze-prozesuaren jarraipena, *ulertzaile*-aren zein *mintzatzaile*-aren ildetik.
   c) Egingarritasuna (erronka, asebeetzea, harremana-giroa, lagungarriak eta oztopatzaileak...) eta hobetzekoak.
3. Hobekuntzarako ideiak eta aukerak identifikatzea.

Maila ezberdinetan identifikatuko ditugu, ziurrenik, hobetu beharrekoak edo hobetzeko aukerak, besteak beste:
- *Guneko arduradun*ekin, balizko *mintzatzaileak* lokalizatzeko moduan, gauzak komunikatzeko moduan, haiekin koordinatzeko moduan, prestatutako euskarriatan...
- *Adituak* jasoko duzuen informazio ugarian, maila ezberdinetan: formazioa emateko moduan, edo ikerketarako datuak jasotzeko moduan, informazio kualitatibo jasotzeko moduan, *Ulerrizketa-unitateak* osatzeko edo hautatzeko

[2] Berez, "analisirako unitate" lizateke egokiago, baina "analisirako elementu" aipatzen dugu nahasterik ez sortzeko "Ulerrizketa-unitate" kontzeptuarekin.

garaian, esperientzietan parte har dezaketen *ulertzaileak* hautatzeko moduan edo irizpideetan...
- *Ikerketa Taldea*ren egitekoetan: proba pilotuetarako finkatzirko irizpideetan, aditu-taldearen eta Ikerketa Taldearen arteko koordinazioan...

3) Ulerrizketa-n *ongi* aritzera iristea (eta ez iristea)

- *Ulerrizketa*-n "ongi" aritzera iristea zer da?
